



2011-01-24
ASTELEHENA
306. ZENBAKIA
7. URTEA
1,10 EURO
GOIENA.NET
TOKIKOM

Erregaien prezioak goia jo du egunotan



Arrasate Aviako arduradunak uste du prezioak ez direla txikituko handitu diren neurri berean | 6

Leintz Gatzagako bideko kurba nagusiak kendu gura ditu Udalak | 11



Arrasateko azoka EAEko indartsuena dela diote | 14



Bergarako Infernukua taberna historikoa maitzerako zabalik | 17

Goya sariaren zati bat ekar dezakete

Film onenaren izendapena lortu duen 'Una caja de botones' lanean parte hartu dute Aitor eta Sara Mantxola aita-alaba oñatiarrek | 29



Mantxola aita-alabak Oñatiko plazan, filmaketan erabilitako klaketa eskuetan dutela. | JOSETXO ARANTZABAL

Ume-loditasuna tratatzeko programak familia osoari eragiten dio

Umeen loditasuna arazo bihurtu da Debagoiengan ere. Eskualde ospitalean loditasun klinika jarri zuten martxan iazko otsailean eta emaitza onak lortu ditu: 52 pazienteren eta euren familien konpromisoa lortu du. Aretxabaletan EAEn baino %71 ume lodi gutxiago dago. | 2

Jone Elortza soka tiralaria emakumezko kirolari onena

Ibarreko kirolariek egindako lanaren saria jaso dute | 22



Jone Elortza oñatiarra sariekin. | J.A.

Pello Zabala: "Eguen arratsaldean euritara joko du eta elurra izango da gainera" | 4

goienakluba



Euskal Herriko zira opari.

Nahi?

Zoaz 12. orrialdera

Ume-loditasunean ere, hobe da prebenitzea sendatzea baino

- ▶ Behin finkatuta, oso zaila da loditasuna sendatzea
- ▶ Tratamenduak familia osoari eragiten dio
- ▶ Ospitaleko loditasun klinikan emaitza onak dituzte

LEIRE KORTABARRIA | ARRASATE

Umeen loditasuna arazo bihurtu da Debagoienean ere. Zorionez, ez da arazo orokorra, baina bai arreta merezi duena. Hain zuzen, Debagoieneko Ospitalearen datuen arabera, Espainian egindako ikerketek diote haur loditasunak %13,9ei eragiten diela, eta gehiegizko pisuak eta loditasunak, denetara, %26,3ei.

Hori ikusita, iazko otsailean martxan jarri zen, Debagoieneko Eskualde Ospitalean, Pediatria sailean, Loditasun Klinika. Bada, epe horretan, 52 pazienteren eta euren familien konpromisoa lortu du; horietatik 15, bakarrik azken hilabetean. Urte horretan, pazienten gorputz-masa indizea eta gantz portzentajea txikitzea lortu dute.

Daniel Jimenez-Villarreal pediatriak, klinikako zuzendariak; Lissete Delgado haur-gastroenterologoak; Cristina Letamendi erizainak; eta Laura Alutiz dietistak osatzen dute Loditasun Klinikako lantaldea, eta euren helburua da ume eta gaztetzoei zein euren familiei laguntzea, elikadura eta ariketa ohiturak aldatuta, ume edo gaztetzok horren loditasun arazoa ekiditzen edo, are hobeto, prebenitzen. Zuzendariak, endokrinologian espezializatutako Daniel Jiménez-Villa-

rreal pediatriak, balorazio ona egiten du: "Klinikak 52 gaixoren atxikimendu konprometitu lortu du, eta euren familiena ere bai. Pazienteak eta familiak tratamenduarekin bat egitea oso garrantzitsua da, izan ere, pazientea gustura ez badago, ez dugu helburua lortuko; eta familiak bat egitea da garrantzitsuena, umearen elikadura gurasoen esku dagoelako", azaltzen du.

Jarraitzeak saria dakar

Familia batek klinikara jotzen duenean, lehenengo ume edo gaztetzoearekin egoten dira eta berarekin berba egiten dute: "Umea gustura egon dadin saiitzen gara, komunikazioa irekitzeko. Zer jaten duen galdetzen diogu", esaten du zuzendariak. Familia-medikuak analisiak bidali izana da aukera bat; bestela, egin egiten dizkiote.

Handik aurrera, hilero-hilero joatera konprometitu behar da pazientea. Hau da: tratamendua programa bat da eta pazientea eta bere familia horrekin konprometitu behar dira. Izan ere, emaitzak ez dira berehala lortzen, eta elikadura kontzientzia aldatzeak eta jokaera moldatzeak denbora bat behar dute. Horregatik, ezinbestekoa da kontrol zurruna.

Eta ohiturak aldatzea "asko kostatzen" dela esaten digu Jimenez doktoreak; uste baino gehiago kostatzen da: "Benetan zaila da elikadura-ohiturak aldatzea. Umearen familiaren menpe dago aldatzea", esaten digu.

Zailtasunak zailtasun, paziente gehienek tratamendua jarraitzea erabakitzen dute, eta oso kasu gutxitan erabaki dute bertan behera uztea. Jarraitzen dutenek euren saria jasotzen dute, eta gantz edo grasa txikitzea oso garrantzitsua izaten da pazienteendako, "emaitza ukigarria" delako, diote arduradunek.

Ohitura txarrak

Gero eta ume lodi gehiago dago. "Azken urteotan portzentajea bikoiztu ere egin da", esaten du Jimenez-Villarreal doktoreak. Arrazoiak hauek dira: "Bizimodua aldatu egin da. Mediterranear dieta alde batera utzi dugu eta janari lasterretara gero eta gehiago jotzen dugu". Eurek ikusi dituzten kasuetan ere, horiek dira kausak: "Badaude beste kausa batzuk; %1en, arazo organikoengatik sortzen da loditasuna, dela hipotiroidismo bat, dela sindrome jakin bat. Gure klinikan, horrelako kasu bat ere ez dugu jaso orain arte; kasu guztietan, ohiturengatik sortzen da arazoa".

Tratamenduak "bi zutabe" ditu, klinikako zuzendariak dioenez: "Umea beste modu batera elikatzea, eta ariketa fisiko gehiago egin dezan; kalean jolas dezan, futbolera joka dezan, adibidez, eta ez dezan eman hainbeste denbora telebista aurrean edo bideo-jokoekin. Horrela, umeak ez ditu gastatzen dituen baino kategoria gehiago izango", azaltzen du.

Baina zeintzuk dira zehazki elikadura-ohitura txar horiek? Litxarrerria larregi jaten dute umeek? "Bai, jaten dituzte; baina



Informazio honekin zerikusirik ez duen ume bat, litxarrerria denda baten aurrean. | LK.

gehiago da ohituren kontua. Jolas egitea ahaztu dute, gutxiago mugitzen dira... Eta garrantzitsuena da etxean denok ondo jatea", esaten dute Loditasun Klinikako.

Aretxabaletan, osasuntsu

Loditasuna izurritetzat jotzen du gaur egun Osasunaren Mundu Erakundeak. Horretaz arduratuta, Aretxabaletako anbulatorioan urte



Arantza Landaluze eta Igone Zubizarreta erizainak. | LK.

Aretxabaletako erizainak, ikertzaile

Erizaintza arloan ikerketa-lan gutxi egiten dira; bada, horietako bat Aretxabaletako osasun etxeko Arantza Landaluze erizainak egin du, Igone Zubizarretaren laguntzaz. Herriko 4 eta 14 urte arteko ume eta gaztetzoei loditasunaren prebalentzia (zelako eragina zuen) ikertu zuen 2009an. Elkar Ezagutu Erizaintzan Ikerketa eta Berrikuntzako IV. Jardunaldian aurkeztu zuen lana.

DATUA

52

PAZIENTE

2010eko otsailean ireki zenetik, 52 paziente hartu ditu Eskualde Ospitaleko Pediatria saileko loditasun klinikak. Hilero joan behar dute.

14

UME

Hego Euskal Herrian eta Espainian, 100 umetatik 13,9 lodiak dira eta 26k dute loditasuna edo gehiegizko pisua.



asko daramatzen Arantza Landaluze erizainak ikerketa bat egin zuen 2009. urtean zehar, Igone Zubizarreta erizainak lagunduta. Aretxabaletako 4, 6, 10 eta 14 urteko neska-mutikoen gorputz-masa indizea kalkulatu zuen (pisuaren zifra, kilotan, zati altuera, metro koadrotan) eta hainbat modutara aztertu zituen neurketak. Bere ikerketa Elkar Ezagutu delako Erizaintzan Ikerketa eta Berrikuntzako IV. Jardunaldian aurkeztu zuen azaroan. Zergatik egin zuen galdetuta, hauxe dio: "Herrialde garatuetan, kasu askotan, haurren loditasuna hirukoiztu egin da; eta gure herrian arazo horrek duen eragina jakin nahi genuen".

Landaluzeren esanetan, "loditasuna faktore askotako gaixotasun kronikoa da, eta tratamendu zaila du". Hala ere, umeen kasuan, "zailagoa" da jakitea umea noiz dagoen lodi: "Gizentasuna markatzen duen gorputz-masa indizea ez da berbera helduendako eta umeendako". Arantza Landaluze hauxe dio: "Prebenitzeko egiten dugu lan. Umearen gorputz-masa indizea larregizko pisua markatzen hasten denean, orduan zuzendu behar da".

Bada, ikerketaren ondorioak oso pozgarriak dira: "2005ean, 4 eta 18 urte arteko Euskadin egin-

dako elikadura inkestaren arabera, %12,2 lodi zeuden; %15,9ek gehiegizko pisua zuten; eta %28,1ek neurritz gaineko pisua zuten. Aldiz,

Aretxabaletan, 2009an 4 eta 14 urte artekoekin egindako ikerketaren arabera, %3,5 bakarrik zeuden lodi; gehiegizko pisua %8,9ek baka-

rrik zuten; eta neurritz gaineko pisua, %12,5ek". Hala, "Aretxabaletan, EAEn baino %71 ume lodi gutxiago dago, eta %44 ume gutxia-

go larregiko pisua dutenak". Horren zergatia da, bere esanetan, lehen mailan prebentzio ona egiten dela.

Behar den moduan arrosatu behar da

- Elikadura-piramidea oso antzekoa da helduendako zein umeendako: egunean sei ogi edo pasta arrazio, bi esneki arrazio... eta, oso garrantzitsuak, frutak eta barazkiak: "Egunean bost delako kanpaina egiten ari dira orain: egunean hiru fruta ale eta bi barazki arrazio. Bestalde, orokorrean, proteina gehiegi jaten ditugu; egunean bi arrazio jan daitezke -arraina eta okela", esaten du Laura Alutiz dietistak.
- Sedentarismoa, jarduera fisiko eza, arrisku-faktore bat da. Hortaz, ariketa egin behar da; baina ez du zertan kirola izan behar. Umeen kasuan, jolas egitea eta eguneroko mugimendua nahikoa izan daiteke.
- Elikadurari dagokionez, kaloria gutxiago elikagaiak jan behar dira, edo betiere, norberak gastatzen dituen baino kaloria gehiago ez jan.
- Azukrea duten freskagarriak baztertu egin behar dira.
- Otorduak egiterakoan, komeni da ahora eramaten diren janari zatiak txikiak edo neurri aproposkoak izatea; joera dago arrazio handiegiak hartzeko.
- Arantza Landaluze ume-erizainaren esanetan, "oso arrisku-faktore larria da gosari txikia hartzea edo ez gosaltzea". Izan ere, gosaria edo arrosua da eguneko otordu garrantzitsuena.
- Komeni da otorduak familia osoak batera egitea, edo behintzat umeak bakarrik ez jatea; aita-amekin, amona-aitonekin...
- Gomendagarria da telebista itzaltzea otorduak egiteko.
- Goxoren bat ere har dezakete, baina noizean behin bakarrik.
- Komeni da umeari ez uztea jateko bat gustuko ez duen bakoitzean hari uko egitea; adibidez, fruta.

DANIEL JIMENEZ-VILLARREAL | PEDIATRA

"Familiaren konpromisoarekin, hiru hilabete emaitzak ikusten dira"

Daniel Jimenez-Villarrealak Eskualde Ospitaleko Pediatria saileko loditasun klinika zuzentzen du. Haren esanetan, "tratamendua zaila da, baina gaixotasuna gainditu egin daiteke".

Zelakoak dira zuen pazienteak?

Gehienak aurre-nerabeak dira; eta mutil eta neska kopuru oso antzekoak ditugu.

Zelakoa izaten da pazientearekiko lehen harremana?

Lehenengo, berriketalditxo bat egiten dugu harekin; erizaina eta dietista ere egoten dira. Gustura senti dadin saiatzen gara, eta tratamendurako komunikazioa irekitzen, haren konfiantza irabazten eta tratamendua egin dezan konbentzitzen; hori pauso handia da. Jateko ohiturak, zer jaten duen... ere galdetzen diogu. Pazientea gurasoekin dator, eta gero eurekin ere egoten gara, izan ere, familiak tratamendurekin bat egitea ezinbestekoa da.

Zergatik?

Umearen dieta ez duelako berak erabakitzen, gurasoek baizik. Horregatik, umearen elikadura-ohiturak aldatzea oso zaila da.

Ze kausa nagusi izaten du loditasunak zuek ikusi dituzuen kasuetan?

Denek dituzte elikadura-ohitura desgokiak: ordutegitik kanpo jaten dute, eta askotan, janari lasterrak egiten dituzte; behar baino ariketa gutxiago egiten dute; telebistaren aurrean edo bideo-jokoetan luzaroegi egoten dira...

Ez dituzte bestelako kausak izaten?

Orokorrean, loditasun kasuen %1 kausa organikoengatik sortzen dira. Hala ere, guk orain arte ikusi ditugun kasuetan, ez dugu horrelakorik izan.



Daniel Jimenez-Villarreal. | L.K.

Zer behar da tratamendua ondo joan dadin?

Pazientearen eta familiaren konpromisoarekin, hiru hilabete emaitzak ikusten dira. Arazoak jabetu behar dute, eta tratamenduan jarraitu, pisua gal dezaten eta ez dezaten berriz ere hartu. Bestela, tratamendua oso ardatz gutxitan datza: mediterranean dieta jarraitu eta ariketa egin. Jakin behar dute ez dela ezinezkoa gaixotasun hori gainditzea.

Ze ondorio ditu ume-loditasunak?

Berehalakoan, autoestimu txikia, isolamendu soziala, arnasketan eta hezurretan arazoak, diabetesa... eragin ditzake. Epe luzean, loditasuna iraunkor bihurtzen da askotan. Umetan lodi izan dena, kasu askotan heldua denean ere lodi izaten da.

Otsailan urte bete egingo du loditasun klinikak. Zeintzuk dira zuen helburuak etorkizunera begira?

Orain dauzkagun pazienteekin lanean jarraitu gurako genuke, eta ume eta nerabe gehiagori lagundu.

Zer egin behar dute familiak loditasun klinikara etortzeko?

Zuzenena da lehen arretako osasun zerbitzuen bidez etortzea.



Laura Alutiz dietista, elikadura piramide eskuetan duela. | LEIRE KORTABARRIA

Bi egun t' erdi ipar haizearekin eta gainerakoak hegoarekin, astero

Tenporek esandakoa zuzen betetzen ari da, Pello Zabalaren hitzetan

GOIATZ ARANA | ARRASATE

Bi gradu zero azpitik zapatu goizean Arantzazun, eta elur hautsa. Giro hotz eta lehor hori bera izango ditugu egunotan –aste erdira arte– eta eguzten arratsalde-egunean prezipitazioak helduko dira: sei eta zortzi gradu arteko tenperaturekin, euria egingo du kostaldean zein barnealdean, eta elurra mendian. "Metro koadroko 5-10 litro ur botatzen baditu, elur geruza izango da gainera", azaldu digu Pello Zabala eguraldi adituak; eta gero, atzera ere, epeltzera egingo duela gaineratu du.

Gora-behera handiko negua

Neguan sartu ginenetik, iazko abendu erdi ingurutik, ziklo bera errepikatu da astero: bi egun t' erdi iparrarekin eta gainerakoak hegoarekin, tenporek iragarri moduan. "Negu honetan zuzen-zuzen ari da betetzen tenporek esandakoa", dio Arantzazukoak.

Gora-behera horiek eragina dute pertsonengan; bereziki, adinekoengan. Galdera egitera kalera aterata, batzuk nahiago dute giro epela, nahiz eta negua izan; beste batzuk, aldiz, nahiago dute hotza egitea, hori delako garai honetan tokatzen dena. Batzuk eta besteak bat datoz, ordea, hain

epe motzean termometroa mutur batetik bestera joatea ez dela ona esaterako orduan. Hala erakusten du gripe epidemiak; eta zapatu goizean Arrasateko kaleetan harrapatu dugun bat baino gehiagok ere aitortu du, gripeak jota, egin duela egonalditxoa ohean.

Martxorako, euria

Otsail bukaerarako –25-26 ingururako– euria espero du Pello Zabalak. Arantzazukoak esandakoa betetzen bada, hilabete pasa-

txo barru, orain arteko dinamika apurru eta aurtengo neguak lehorra izateari utziko dio.

DATUA

5-10

LITRO UR METRO KOADROKO

Kopuru hori espero da eguenerako. Baiezko kasuan, elurra mendian.



Arantzazutik Urbiara bideko iturria izoztuta, zapatu goizean. | USUE UGARTE



ANDONI CONDE
ELGOIBAR

"Iragarri zuten hotza izango zela asteburua eta hala izan da. Badut ohitura eguraldi iragarpenei kasu egiteko; batez ere kanpora joan behar bazara, komeni da zer nolako giroa datorren jakitea, badaezpada".



JAZINTO AREETA
ARRASATE

"Gogorra doa zapatua, oso hotza! Badakit neguan hala egitea tokatzen dela baina, eskatzen hasita, nahiago dut epel egitea. Edozein kasutan, aldaketak dira nik okerren eramaten ditudanak, asko nabaritzen ditut".



MAIALEN KORTABARRIA
ARRASATE

"Hotza egiten du baina... arropa gehiago jantzi eta listo! Hala ere, kalean egoten garenontzat, hobe da epelago egiten badu. Egiten diet kasu iragarpenei; ondo dator, adibidez, zer jantzi erabakitze".



KARMEN GALDOS
ARRASATE

"Uda bezala joan da hilabetea eta ez da normala. Nik nahiago hotza; atsegin dut haize hotza, batez ere. Gora-behera hauek izorratzen gaituzte, ordea! Gripea pasa dut eta tarrasean nabil oraindik".

"Epai honekin zilegitasun osoa eman diote Udalbiltzari erakunde moduan jokatzeko"

Xabier Zubizarreta ezker abertzaleko kideak pozik hartu du Udalbiltzaren absoluzioa

U.M./G.A. | ARRASATE

"Zazpi urteko amesgaiztoa amaitzeak izugarriko poza ematen du. Baina sentsazio gazi-goza ere bada: batetik, joan den astean izandako atxiloketek izaera antzerakoak dutelako; eta bestetik, Udalbiltza kasuko epaia absoluzioa izanik ere, justizia erabatekoa izan ez delako", dio Xabier Zubizarretak. "Azken batean, denon ordezkari izatearren, errudun izendatu dituzte zazpi urtez, euren eskubideak urratuta izan dituzte, eta batzuk kartzelan ere izan dira". Horregatik, ezker abertzaleko kidearen esanetan, "justizia egingo litzateke sumario honek egindako kalteak ordaintzerakoan; hala ere, gauzak dauden moduan egonda, kartzelara ez joatea pozgarria da".

Zubizarretak dio, bestalde, epai honekin adierazi dutela Udalbiltzak instituzio moduan ez duela loturarik ETArekin eta

zilegitasun osoa ematen diotela erakunde moduan jokatzeko, eta hori ere "oso positibotzat" jotzen du. Uste du, gainera, estatu espainolaren norabidearen bilakaera apurru egin duela sententzia honek, eta orain arte "euskal kutsua zuen edozeren kontrako ehizarako joera" baretzen hasi ote den esperantza zabaltzen duela: "Euskaldunon eskubideak errespetatuak izan daitezen bidea irekitzen ari den itxaropena zabaltzen da, baina hori egia bihurtu dadin lan handia egin beharko dugu".

Indarren batura

Era berean, garrantzitsutzat jo du Udalbiltzako auzipetuei erakutsi zaien babesa: "Oso garbi dago Euskal Herriaren aldeko urrats sendoak emango dituen herri bateratu baten kontra egingo duen estaturik ez dela egongo". "Ea halako sententzia gehiago izaten diren", dio.

Odol-ateratzeek behera egin dute, Arabako elkartearen arabera

2010ean 23.569 odol-ateratze egin zituzten, orotara; 2008an baino ia mila gutxiago

G.A. | ARRASATE

Arabako odol-emaile elkarteok 876 odol-ateratze egin zituzten iaz Arrasaten, eta odola ematera joandakoen artean 48 berriak ziren. Aretxabaletan, 390 lagunek eman zuten odola, horietatik 18k lehendabiziko aldiz. Eskoriatzan, jende gutxiagok eman zuten odola eta gutxiago izan ziren lehen aldiz egin zutenak ere: 168tik bost. Aramaion, bestalde, 39 odol-emaile izan ziren iaz; hiru, berriak. Lau herrietan Arabako sexu-joera bera ematen da: gizonezkoak emakumezkoak baino gehiago dira.

Unitate mugikorrek Deba-goieneko ikastetxe eta enpresetara ere egin zuten bisita iaz. Batutako odol kopurura ailegatzeko lagundu zuten MUn, Fagorren edota JMan odola ematera joandako ikasle, irakasle eta langileek.

Datu orokorrak

Arabako odol-emaileen elkarteak emandako datuen arabera, 2008an, orotara, 24.421 odol-ateratze egin zituzten; 2009an, 24.189; eta 2010ean, 23.569. Azken urte horretan, 14.331 pertsonak eman zuten odola; horietatik 1.715ek lehendabiziko aldiz.

Hiru urteetako datuei erreparatu gero, ikus daiteke, orokorrean, gizonezkoak gehiago direla emakumezkoak baino; eta adin tarteei dagokienez, 45 urtetik 65era artekoak daude zerrendan aurrea; 31 eta 45 bitartekoak daude hurrea; eta adin horretatik behera, odol-emaileak gutxiago dira. Odol taldeka, O+ (%37) eta A+ (%34) multzoetakoak dira gehienak. Herriz herri joaten den unitate mugikorrarenak dira emaitzarik onenak, odol-ateratze gehien egin dituenak: 12.000 eta 13.000 artean, urtero.

Auto batek txirindulari bat harrapatu zuen zapatuan Bergaran

SOS Deiakek goizeko hamaiak baino zertxobait lehenago jaso zuen deia. Arcelorrenko biribilgunean, GI-627 errepidean, Opel Zafira auto batek txirindulari bat harrapatu zuen eta eskualde ospitalera eramane zuten, zaurituta. Bertatik jakinarazi zigitenez, kolpeak zituen gorputz osoan eta kaskoak eragindako zauri bat buruan, baina ezer larririk ez. Arratsaldean bertan bidali zuten etxera.

Asis Sarearen hileroko otoitzaldia egunean Oñatiko Bidaurretan

Egunean, hilak 27, Asis Sarearen otoitzaldi-bilkura egingo da Oñatin, Bidaurretako elizan, 19:30ean. Asis Sareak 2.000 lagun inguru biltzen ditu eta "bide zabala eta plurala jorratu nahi du bilatze-bide pertsonalean edo eguneroko fedearen bizipenean, laguntza gisa, espiritualtasun frantziskotarraren balioaren intuizioa dutenekin". Informazio gehiagorako: 646 214 896 telefono zenbakia edo www.asissarea.org webgunea.

Bigarren deialdia Oñatin kolon minbizia detektatzeko proba egiteko

Lehen deialdian parte hartu ez zuten herritarrak gonbidatu gura dituzte Osakidetza: 50 eta 69 urte artekoek egin dezakete proba

MIREIA BIKUÑA | OÑATI

Kolon minbizia aurrez detektatzeko beste deialdi bat egin dute Oñatiko osasun etxetik. Kanpainaren lehen fasea bukatuta, proba egin ez duten herritarrak gonbidatu gura dituzte proba egitera. "Lehen deialdian 2.693 herritarri bidali genien informazioa, eta horietatik, 1.455ek egin dute proba, %61,8k. Hori horrela, bigarren deialdia egiten diegu gainerako guztiei", dio anbulatorioko zuzendari Santiago Aietxu medikuak.

2010eko maiatzean hasi zuten kanpaina Oñatin, eta udako oporren ondoren, irailean hasi ziren berriro ere. Hasieran %70eko parte-hartzea izan zuten, baina azken hilabeteetan jaitsi egin da kopuru hori. Osasun etxean uste dute bi izan daitezkeela arrazoiak: alde batetik, proba entregatzeko epea bukatuta dagoela pentsatzea; eta, beste alde batetik, potean jarri beharreko pegatinak galdua izatea. Bietan, arazoa konpon daiteke osasun etxean bertan edo 900 84 00 70 doako telefonora deituta.



Kartela. | M.B.

50 eta 69 urte artekoak

Lehen deialdian proba egin ez zutenei gutuna bidaliko diete berriro, kolon minbizia aurrez detektatzeko probaren garrantzia azpimarratzeko. "Kolon minbizia oso geldoa da, sintoma argirik ez duena. Askotan, oso berandu antzematen dugu, eta halako kasuetan tratamenduaren eragina oso txikia da. Oso inportantea da aurrez detektatzea", diote adituek. Bestalde, dei berezia egiten

diete 2010ean 50 eta 69 urte artean bete zutenei. Proba egiteko gutuna jaso ez badute, aurretik aipatu dugun telefonora dei dezakete, edo familiako medikuari edo erizainari galdetu.

100 proba, positiboak

Lehen faseko parte-hartze kopuruaz gain, beste datu batzuk ere kaleratu ditu Osakidetza. Adibidez, egin zituzten 1.455 probetatik 100 positiboak izan dira. Hori horrela, 84 kolonoskopia egin dituzte. Horietatik, 18 probatan minbiziaren lehen sintomak topatu dituzte, eta bitan minbizia aurreratua. "Guztiak daude medikuaren kontrol pean. Tratamendua hartzen dihardute", esan digu Aietxuk.

Proba erraza

Egin beharreko proba oso erraza da. Beharrezko kita anbulatorioan jaso ahalko da. Kaka lagin bat eraman beharko da hiru egunen buruan, laborategian analiza dezaten. Proba egiten dutenek bi asteren buruan jasoko dute emaitza etxean, gutun bidez.

DATUAK

1.455

HERRITAR

Horiek dira kolon minbizia detektatzeko lehen fasean parte hartu dutenak.

100

POSITIBO

Guztira, 1.455 proba egin dituzte, eta horietatik 100 izan dira positiboak. 84 kolonoskopia egin dituzte.

Kolon minbizia aurrez detektatzeko programa 2009an jarri zuten abian Zarautzen, Pasai Antxon eta Pasai San Pedron. Iaz, Zumaian, Getarian, Orion, Zestoan, Aian, Irunen, Hondarribian eta Oñatin hasi zuten.

Zabaldute txotx denboraldia Aramaioko Iturrieta sagardotegian

Korrika 2011ko arduradun Eurne Brouardek egin zuen irekiera ekitaldia eguen iluntzean; Iturrietan 9.500 litro sagardo egin dituzte aurten

M.B. | ARAMAIO

Eguenean, hilaren 20an, zabaldute zuten Arabako sagardo denboraldia Aramaioko Iturrieta sagardotegian. "Euskalariok, hau da aurtengo Arabako sagardo berria" hitzekin inauguratu zuen Korrika 2011ko arduradun Eurne Brouardek txotx garaia.

Korrika izan zen gonbidatu nagusia Aramaion. Hori horrela, Brouardekin AEK-ko arduradun nagusi Mertxe Muxikak izan zuen kupelak zabaltzeko ohorea.

Andere Arriolabengoak eta Manex Agirrek bertsoan egin zuten Iturrietako giroa berotzeko. Ondoren, txalaparta eta trikiti doinuak izan ziren nagusi. Guztiek gogo handiz probatu zuten sagardoa eta sagardotegietako menua. Aste bukaeran ere zabalik izan dute sagardotegia.

"Kontserbatzeko aproposa"

Iturrieta sagardotegiko ugazaba Juanjo Peciñaren esanetan, uzta ona da aurtengo: "Sagardoak

heldutasun maila ona harrapatu du, garratz puntu bat dauka eta kolore nahiko argia. Usaintsua da eta, zaporeari dagokionez, lehor puntu bat badu, baina kupele arabera, betiere. Kontserbatzeko aproposa da".

9.500 litro

Iturrietan 9.500 litro sagardo egin dituzte; Aramaion, 125.000 kilo sagar erabili dituzte –asko zukua ateratzeko–; eta Araban, 250.000 kilotara ailegatzen da erabilitako sagar kopurua.

Iturrietakoek Arabako sagar propioa gura dute, eta Sagardo Eguna egingo dute Gasteizen. "Arabako sagarrak ekarri nahi izaten ditugu zukua egiteko. Aurten gehienak Arabatik ekarri ditugu, Lautadatik eta Trebiñutik; hala ere, kilo batzuk ekarri ditugu Debagoienetik: Zabaleta, Bergara... Baina guk nahi duguna da Arabako sagar propioa atera. Sagardo Eguna egingo dugu Gasteizen, hasteko erakusten Arabako sagardo desberdinak. Data zehaztu barik dago, baina seguruenara ekain-irailean izango da", adierazi du Iturrietako Peciñak.



Eguenean egin zuten txotx denboraldiaren irekiera Iturrietan. | GOIATZ ARANA



Jonan Fernandez. | M.B.

Jonan Fernandez
| Baketik zentroko arduraduna

"Elkarbizitza da Baketik-en modulu berriaren ardatza"

M.B. | OÑATI

Eskolan biktimekiko elkartasuna lantzeko modulu aurkeztu zuen Baketik zentroko arduradun Jonan Fernandezek. Zertan datza esku artean duzun modulu berriak?

Biktimekiko elkartasuna lantzeko materiala da modulu honen bidez jorratu gura duguna. Alde teorikoa izango du, bai irakasleek, bai ikasleek gurasoek ere hausnarketa sakona egin dezaten. Alde praktikoa ere izango du: gai hori eskolan lantzeko 15 proposamen egingo ditugu.

Nola bideratuko duzue materiala eskolatar?

Esku artean duguna Baketik-en proiektua da. Inork ez digu halakorik eskatu, borondatez egin dugu, eta ikastetxe bakoitzak erabaki beharko du ikasgaia eman gura duen edo ez. Guk moduluaren berri emango diegu, eta erabakia euren da. Erantzuna baiezkota bada, orduan bi orduko formazioa emango diegu. Ekaina bitartean modulu aurkeztu eta formazioa egingo du. Aldiz, ikastetxeak irailean hasiko dira.

Ze helburu bete gura dituzue proiektu honekin?

Iraganean, orainean eta etorkizunean biktimen eskubideen urraketa landu gura dugu. Alegia, landuko dugu zer gertatu den gure herrian azken urteotan, egun biktimek zer sentitzen duten eta zer egin behar dugun elkarbizitza beste modu batera antolatzeko. Ardatz nagusia elkarbizitza da. Etorkizunean biktimen eskubideen urraketa ekidin behar dugu.

Ze adinetako ikasleendako da?

DBHko laugarren mailatik gorakoendako, baita batxilergo ikasleendako ere. Adin aproposena da gaia lantzeko, duda barik.

Jasone Martinez | Arrasate (Avia) gasolindegiko arduraduna

"Gasolindegian nabilenetik ikusi ditudan prezio handienak dira"

- ▶ Arrasate Aviako arduradunak uste du "gutxi" merkatuko direla erregaiak
- ▶ Zergak handitu izanak –BEZa %18an dago– eragin handia duela dio

LEIRE KORTABARRIA | ARRASATE

Erregaien prezioak goia jo du. San Andresko Avia gasolindegiko arduradun Jasone Martinezek honela esaten du: "Prezioak ez dira txikituko handitu diren neurri berean".

Zeintzuk dira erregaien prezioak gaur? [urtarrilak 19]

Gasolio litroa 1,19 eurotan dago; Innova delakoarena (gasolio mota bat), 1,26 eurotan; 98 erregaiarena, 1,38 eurotan; eta 95 erregaiarena, 1,25etan. Atzo [martitzena] merkatu egin genituen apurtxo bat. Gorabehera handiak daude, eta egun batetik bestera alda daitezke prezioak. Dena dela, gasolindegiko guztiok prezio berberak edo oso-oso antzekoak izaten ditugu; alderik baldin bada, hirugarren dezimalekoa edo izango da. Denok elkarren salneurriari begiratzen diegu, eta prezio antzekoak jartzen ditugu gurata, bat ere bereiztu ez dadin.

Zeren araberakoak dira eten bako gorabehera horiek?

Merkatuaren araberakoak. Edozein modutan ere, lehen ez ziren hain sarritan aldatzen; lehen, astean behin edo aldatzen ziren. Orain, aldiz, bi egunean behin edo dagoeneko aldatu egiten dira. Merkatuak gehiago fluktuatzen du. Hori horrela da globalizazioaren eragirik.

Lehen esaten zen gasolina garesti zegoela, petrolio gordin barrika oso garesti zegoelako. Orain, aldiz, barrika merke dago. Ze arrazoi ematen dute, orduan, gasolinaren prezio handirako?

Merkatuak markatzen ditu prezioak. Kontuan hartu behar da petrolio gordin barrikak dolarrean erosten direla, eta ez eurotan;



Jasone Martinez, gasolindegiko hornigailu baten aurrean. | LEIRE KORTABARRIA

"Erregaien prezioaren erdia baino gehiago zergena da"

gero, trukatu egin behar da, eta horrek aldaketak ekar ditzake. Horrez gain, dolarra igotzen dabil; azkenaldian izugarri igo da. Bestalde, zergak asko handitu dituzte azkenaldian: adibidez, BEZa %18koa da orain, eta hori ere igarri egiten da. Erregaien prezioaren erdia baino gehiago zerga da, eta zergak gero eta handiagoak dira.

Egia da, entzutengabiltzan moduan, azkenaldiko prezio handitzea historikoa dela?

Bai. Ni honetan lanean nabilen urte guztietan ez dut gasolina hain garesti ikusi.

Orain bi urte hasi zen joera

Oñatiko Madalena gasolindegian krisi hasieran kokatzen dute prezioak puze: "Orain bi urte ailegatu ziren gorenera; diesela 1,32 eurotan zegoen. Gero, merkatzera jo zuten. Orain berriz handitu dira. Eta dagoeneko ez digute azaltzen zergatik", esaten dute. Bezeroek onartu egin dute: "Ez dugu kexa askorik entzuten. Onartu besterik ez dago eta..." diote arduradunek.

Prezioak jakiteko: geoportal.mityc.es/hidrocarburos/eess.

Nondik ateratzen duzue marjina gasolindegioak?

Saldutako litroetatik. Eta etekinak ateratzeko, litro asko saldu behar dira. Jende askok uste du gasolindegia ipintzea primerako negozioa dela eta diru piloa irabazten dela; baina ez da horrela. Gasolindegiko guztiok enpresa bati erosten diogu erregaiak. Azken baten, litro asko saldu behar ditugu irabaziak izateko.

Jendeak komentatzen du zerbait prezio handien inguruan?

Bai. Jendeak begiratu egiten du, komentatu egiten du eta prezioak kontuan hartzen ditu. Beharbada gidari gehienok ez dira akordetzen lehen zenbatean zegoen, baina badakite prezioa handitu egin dela. Garraioa lanbidetzat duenak, berriz, horrek badaki, eta komentatu egiten digute.

Merkeago egongo da inoiz gasolina, zure iritziz?

Prezio merkeagoak izango ditugu, bai; adibidez, abenduan zertxobait merkatu ziren. Baina gutxi merkatuko dira; azkenaldian sekulako garestitzea egon da, eta prezioak ez dira txikituko orain handitu diren neurri berean. Merkatua horrela dabil: prezioak handitu, txikitu, gero berriz handitu... Guri ere garestitu egiten digute produktua, eta horregatik guk ere proportzio berean garestitu behar dugu.

Gaiaz aldatuta, tabakoaren lege berria dela eta, zerbitzuguneetan berriz ere tabakoa saldu ahal izango dela dirudi. Hala da?

Bai, badirudi guk ere izango dugula tabakoa saltzeko baimena. Lehen zerbitzuguneok saldu genezakeen, baina lehenengo tabakoaren legea egin zenean, debekua ezarri ziguten.

Eta salduko duzue?

Ez, ez saltzea erabaki dugu. Hemen, gasolindegiotan, ezin daiteke erre. Bestalde, jendea ohitu da ez erretzera. Baimena kendu zigutenean, asko kostatu zitzaigun, izan ere, batzuk etortzen ziren tabako bila eta, bide batez, autoari gasolina sartzen zioten, eta debekatu zigutenean, igarri egin zen. Orduan, beste produktu batzuk eskaintzen hasi ginen.

Aldunditik 1,3 milioi Debagoienara, etxez etxe laguntzarako

Foru Aldundiak 1.363.416,49 euro banatuko ditu Debagoieneko udalen artean, etxez etxe laguntzaren aurtengo premietarako. Herriz herri, hauek dira kopuruak (eurotan): Antzuolak: 55.953,19; Aretxabaletak: 217.692,41; Arrasatek: 327.326,56; Bergarak: 369.805,87; Elgetak, 44.749,96; Eskoriatzak: 62.097,21; Gatzagak, 27.002,68; eta Oñatik, 258.788,61.

Mercadona Euskal Herrian sartuko dela ziurtzat jotzen dute

Mercadona banaketa-enpresa handia Euskal Herrian sartzeko puntuak dagoen zurrumurrua egiztat jotzen dute adituek. Nafarro hegoaldean eta Bilbo Handian lursail bila ei dabil. Interneten, blog eta talde batzuek sarrera hori eskatzen dute, izan ere, urterik urte Espainiako prezio txikienak dituen banatzaile handia da Mercadona.

Estarta eta Mondragon Korporazioko Danobat, orain bateratuta

Estarta eta Mondragon Korporazioko kide Danobat kooperatibek bat egitea adostu dute, merkatu globalean dimentsioa eta lehiakortasuna handitzeko, Mondragonen esanetan. Bi kooperatibetako Batzar Orokorrekin Estarta Danobaten integratzea erabaki dute, "merkatuan lehiatzeko duten ahalmena areagotzeko".

Eskoriatzak izan du langabeziaren eboluzio onena Gipuzkoan

Gipuzkoa osoan, Eskoriatzak murriztu du gehien langabezia tasa azken bi urteotan: 2009an, %1 murriztu zuen, eta 2010ean, %16,2. Hala, urtea 196 langaberekin bukatu du. Azken urteotako urtarileko langabe kopuruak hauek izan dira Eskoriatzarendako: 2008an, 236, eta 2007an, 141. Espainiako Enplegu Zerbitzu Publikoaren datuak dira.

Ordu erdian dena itzaltzeko dei egiten dute herritar batzuek

Espainiako kontsumitzaile talde batek dei egin du otsailaren 15ean, Kontsumitzailearen Eguna, etxeke tresna elektriko guztiak itsungitzera, "bonbilla bat izan ezik", 22:00etatik 22:30era bitartean. Horrekin, "Endesak, Iberdrolak eta Fenosak euren tarifak neurriz kanpo handitu izanagatik protesta" egitera deitzen dute.

Bigarren urtez, stand propioa du Fagor Automazionek Asia hegoaldeko azoka nagusian

Eguena ezker eta hilaren 26ra arte, makina-erremintaren IMTEX azokan dago

L.K. | ARRASATE

Fagor Automation kooperatibak Indian zabaltzen jarraitzen du. Hala, joan den eguna ezker, IMTEX 2011 azokan dago, Bengalurun. Asia hegoaldeko eta hego-ekialdeko metala ebakitzeko makina-erremintaren eta fabrikazio soluzioen azoka handia da hori, eta 15. edizioa du. Fagor Automation bigarren aldiz dago

IMTEXen bere stand propioarekin, eta Indian dituen komertzial eta lantalde berria daude han.

"Inbertsiorako ingurune aurreikuspenak oso altuak eta baikorrak dira Indian", esaten du Fagor Automazionek. "Indiako ekonomia eta bere industria prest daude berriz ere hazkunde fase bati ekiteko 2011n. %100eko apustua egiten dabil Fagor Automation Indian".



Bengaluru ordezkaritzako sarrera. | FAGOR AUTOMATION

Aurtengo IMTEXen, zenbaki-kontrollean CNC 8055 Power produktua aurkeztu dute berritasun gisa. 3A soluzio absolutuak enkoder optiko lineal eta birakarietan ere ikusgai dira.

Bulego berria, laster

Fagor Automazionek hiru ordezkaritza dauzka Indian –Delhi Berrian, Punen eta Bengalurun– eta Rajkot hirian (Gujarat) laugarrena ireki nahi du aurtun.

ZABALIK



ANDONI URZELAI
'http://goiena.net/iritzia/'

'Obsolescencia programada'

Tarteka bada ere, batzuetan aurkitu daitezke gaurko telebista kate anabasa higuin garri guzti horien artean zenbait kalitatezko produktu ere. Inork ikusten ez duen La2-en egin nuen nik topo dokumental zeharo gomendagarri batekin joan den astean.

Honelaxe zuen izenburua: *Obsolescencia programada*. Eta gaia, berriz, ondoko hau: erosten ditugun produktuek (sakelako telefono, ordenagailu, etxetresna elektriko...) daukaten bizitza motza.

Kontua zera da, hainbat fabrikatzailek iraungipen data zehatz bat itsasten dietela beren produktuei, guk, kontsumitzaileok, behin eta berriz dagokiguna egin dezagun; hau da, kontsumitu.

Ez hori bakarrik, hainbeste eta hain azkar kontsumitzen ditugunez produktuak, soberakinak nola tratatu jakin ez eta Afrikako lurretara bidaltzen dituzte patxada osoaz, gure kakek hango lurrak kutsatzen utziz.

Banioen, batzuetan badaude telebistan -inoiz ez Euskadiko katerik ikusienean, Tele5n- zenbait gauza interesgarri. Eta antzerkian. Eta liburuetan. Baina bilatu egin behar dira. Eta ikusi, entzun, irakurri.

Nago, edozelan ere, nahiago dugula gure begiak anormalentzako egindakoak diren programei begira jarri eta gauzotaz ahaztu eta ezjakinarena egitea.

Lelotzen ari gara, tximinoak bezala ematen dugu existentzia: Internet aurrean kanpaia joz. Beldurgarria gainera datorkigun mundua, aizue: inork gutxi deusik irakurri ez, eta, gainera, to, monoak programa idiotekin erabat narkotizatu.

Ez nuke ez hemendik 50 urteko munduan bizi nahi, ez horixe. Balego, behintzat, martxa honetan, bietako bat: edo mundua pikutara bidali du gure axolagabekeriak edo leloz betetako mundu jasanezina da gelditzen zaiguna. Uff...

USTEAK USTE

UBANE MADERA | 'umadera@goiena.com'

Arnas apur bat hartu dugu

Udalbiltza ETaren proiektu bat dela esaten duen hipotesiak ez du balio. Hautetsien batzarra ideia eta proiektu abertzale bat da, besterik gabe; ez proiektu terrorista bat", dio Javier Gomez Bermudez, Manuela Fernandez Prado eta Ramon Saez Valcarcel magistratuek idatzi duten Udalbiltzaren gaineko epaiak. Urteak dira, eta dezente gainera, halakorik entzuten ez dudana. Bueno, betiere euskaldunokin lotuta; izan ere, hainbat proiektu abertzalek sekula ez dute izan eta ez dute izango proiektu terrorista izaerarik. Orain, berriz, badirudi gurek ere izan dezaketela zilegitasunik. Atearen zirrikitutxo bat zabaldu da. Arnasa hartu dugu. Gustura, gainera. Ea ez den berriro ixten.

KALE INKESTA

Zer iruditzen zaizu horoskopon zeinu bat gehiago egotea?



ASSAD
TXOHAN
BERGARA

"Pisiz izatetik Aries izatera pasatu naiz. Ondo dago aldaketa, baina lehengoarekin ere konforme nengoen".



ENEKO
ZIARSOLO
BERGARA

"Ez dut begiraten. Niri ez zait inporta Sagitario edo Kaprikornio izan, denbora-pasa hutsa baino ez da".



OLGA
OLIVENZA
BERGARA

"Kanzer izatetik Geminis izatera pasa naiz eta ez nau arduratzen. Kanzer irakurtzen jarraituko dut aurrerantzean ere".



TXARI
DOBAO
BERGARA

"Ni Kanzer naiz eta ez dut aldatzeko asmorik. Ez dut horretan sinisten baina denbora pasatzeko irakurtzen dut".

HANDIK ETA HEMENDIK

Bizitzaz haraindi

Luis Aranberri Mendizabal
http://eibar.org/blogak/amatino/

Bihotzekoak jota, aspaldiko laguna berpiztu zait bizitzaz haraindian ehun segundo inguru iraun ostean, inondik ere etsi nahi izan ez duen osagileari esker. Egia ote joan-etorri horretan jardundakoek kontatu ohi dituztenak? Gezurra dirudien arren baietz dio lagunak eta, laguna denez gero, sinetsiarenak egin behar.

Sasi-zientzia edo erdipurdiko literatura ugaria dago hil ostean berriro bizitzara itzultzen omen direnen ahotan jarria. *Life after life-Vida después de la vida* (Raymond Moody, 1975), *Life at Death* (Kenneth Ring, 1980) eta beste hainbat best-seller klasiko izan badira gertakari paranormalak gustuko dituztenentzat anglosaxoi merkatuan, istorio hauek askoz sinesgarriagoak baitira ingelesez.

Hala ere, honelako esperientziak ezagutzeko ez dago Ipar Ameriketaraino joan beharrik. Nik neuk hiruzpalau kasu ezagutzen ditut eta, aurrena, 1976an edo lankide nuen prentsa-argazkilaria

iruindarrari gertatua.

Kontua da lankidea istripuz zerraldo geratu eta hiltzat jo zutela zenbait minututan, gero konortera bihurtu aurretik. Oraindik ere gogoan dut erredakzio-lanera itzuli zen egunean zein serio eta xehetasun handiz kontatu zizkigun bizitzaren mugaz bestaldean antzeman zituen pasarteak.

Geroztik beste pare bat kasu ezagutzeko aukera izan dut lanbidez zein zeharbidez, eta hona non orain, aurreko astean, beste lagun batek (kazetaria ere, azken bolada honetan zinegintzaren gibelean diharduen arren), bihotzekoak jo eta kordea galdu ostean, holakoetan errepikatu ohi diren sekuentziak errenkadan "bizi" izateko aukera izan duen.

Alegia, bere arima, espiritu edo dena delakoa hilotzetik ateratzen hauteman, norberaren soinez kanpoko ikuspegi zenitala begitandu, argi izpi zuri distiratu tunelpean kirikatu, minik eza eta aroltasun nabarmena sentitu, aurretikako bizitzaren balantza lasterra gogoratu eta azkenean, berriz, sekulako bakardadea eta hutsartea antzeman.

Seguru gero hau guztia erabat ezina bezain sinesgaitza

dela baina, zer gerta ere, ezinbesteko galdera zera da: zergatik elkarren berri batera ez duten gizakiek irudimen berdin-berdintsuak (omen) dituzte horrelako hiltzori edo trantze zail beretsu horietan?

Erantzunen bat edo beste eman gurarik egin du gure Clint Eastwood handiak *Más allá de la vida* filma. Entrenigarri samarra denik ezin uka, erantzunik ematen duenik ordea... ezta inondik ere.

Más allá de la vida (Hereafter). Clint Eastwood-en maisutza ez dago zalantza. Oraingo honetan are gutxiago Peter Morganen haria, bera ere bizitzaz haraindi egondakoa baita. Baina, Georgek (Matt Damon) dioenez, behar bada "haraindia" egon badago, baina non dagoenik inork ez daki. Filmak balio du, agian, ordu bi pasatzeko (bigarren ordu erdia luze egiten da), baina ez dio ikusentzulari aurrez dakienik sakontzen eta, are gutxiago, ez dakienik argitzen. Ziurrenik zer argitu gutxi dagoelako.

Erabat sinesgarria, aldiz, film-hasierako tsunamia. Ez soilik ikaragarri ondo eginga delako, baita duela zazpi urte benetan gertatu eta ikusi ere telebistaz ikusi genuelako. Benetakoa delako.

goiena
KOMUNIKAZIO TALDEA

Argitaratzailea Goiena Komunikazio Taldea Kooperatiba Elkarte
E05 Basabe Poligonoa,
20550 ARETXABALETIA
Lehendakaria Estepan Plazaola
Zuzendari nagusia Inazio Arregi

Zuzendaria Eneko Azkarate
Erredaktore burua Monika Belastegi
Sailtako arduradunak Xabi Urtzelai (Kirola), Iñaki Iturbe (Disenbua), Mireia Larrañaga (Publizitatea)

Asteburuko edizio arduraduna Goiatz Arana
Maketazioa Kepa Martelo, Imanol Soriano.
Publizitatea Mireia Larrañaga, Amaia Mundiñano, Zieritza Martín, Itsaso Berezibar, Imanol Elortza.
Testuen zuzenketa Sergio Azkarate
Harpidetza eta banaketa Marta Leturia
Administrazioa Argutxane Gaintzarain, Ane Berezibar, Iratxe Bengoa.

EGOITZA NAGUSIA - GOIENA PAPER
BERGARA 20570: Ibarra, 6
Tel.: 943 25 05 05 | Fax: 943 25 05 12
papera@goiena.com

ORDEZKARITZAK
ARRASATE 20500:
Otalora Lizentziaduna 31 | 132 posta-kutxa
Tel.: 943 25 05 05 | Fax: 943 25 05 00
arrasate@goiena.com
ARETXABALETIA 20550: Durana 11
Tel.: 943 79 86 21 | Fax: 943 77 18 54
aretxabaleta@goiena.com

Publizitatea Aretxabaleta 20550
E05 Basabe Poligonoa | Tel.: 943 25 05 05
Fax: 943 25 05 09 | publi@goiena.com
Harpidetza Aretxabaleta 20550
E05 Basabe Poligonoa | Tel.: 943 08 10 50
harpidetza@goiena.com
Lege Gordailua: SS-0088/04
ISSN: 1697-3542
Tirada: 5.000 ale.
Difusioa: 4.383 ale.

OJD erakundeak ikuskatutako astekaria.



Eusko
Jaurilaritzako
Kultura Sailak
diruz lagundutako
aldizkaria



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza



Sung Whan Kim kazetaria eta haren lankideak kooperatibismoaren gaineko erreportajea lantzen izan dira egunotan Debagoianean. | ANDER MONEDERO

Sung Whan Kim | Hego Koreako KBS telebista kateko kazetaria

"Hego Korean ere badugu zer ikasi modelo kooperatiboarengandik"

- ▶ Kooperatibismoaren gaineko erreportajea emitituko dute Hego Korean otsailaren 13an
- ▶ Horretarako, ibarreko hainbat enpresa bisitatu zituzten korearrek aurreko astean

EDU MENDIBIL | BERGARA

Hego Koreako KBS telebista kate publikorako kooperatibismoaren gaineko erreportaje lantzen dihardute Sung Whan Kimek (51 urte) eta haren hiru lankidek. Sung Whan Kimek 26 urte darama Espainian kazetari lanetan eta lehendik ere ezagutzen zuen Debagoiena, 1996an ere kooperatibismoa gertutik gertura ezagutzeko aukera izan zuen-eta.

Nolatan etorri zarete Hego Korea-tik erreportaje hau egitera?

Krisi ekonomiko globalaren garai honetan eredu oso erakargarria iruditzen zaigu Arrasateko kooperatibena. Orain dela pare bat hilabete hasi ginen kooperatiben ezaugarriak aztertzen eta urtarilaren 11n etorri ginen Euskal Herrira eta hamaika egun egin ditugu [zapatuan alde egitekoak ziren]. Besteak beste, Garaia Berrikuntza Gunean, Fagor Automotioien, Mondragon Unibertsitatean izan gara eta baita Mondragon Taldeko egoitza nagusian. Debagoienetik kanpo, berriz, Igoerreko Batz automobilgintza enpresa bisitatu dugu eta Madrilen Eroskik daukan merkataritzagune bat ere bai.

Idea zera da: kooperatibismoaren gaineko 60 minutuko erreportajea lantzea. Datorren

otsailaren 13an emitituko da, 20:00etan, KBS kateko saio berezi baten. Uste dugu interesgarria gertatuko zaiela ikusleei zein ekonomia adituei, badugulako zer ikasi.

Zein egoeratan dago Hego Korea gaur?

Beste herrialde askotan bezala, langabeziak dezente egin du gora azken urteotan. Gaur egun %8 inguruan dago langabezia tasa eta orain dela hamar urte, 2001. urtean, ez zen %1era ere iritsiko... Automotio eta etxetresna enpresa garrantzitsuak ditugu: Hyundai, Samsung, Kia, Daewoo, LG... Ez daude egoera kritikoa, ez, baina gogor nabaritu dute krisia

"Bizi dugun krisi garai honetan eredu oso erakargarria da kooperatibena"

"Errespetua eta solidaritatea bezalako balioak nabarmenduko nituzke"

haiek ere eta lana ez dago batere egonkor langile askorendako.

Zein da zure ustez kooperatibismoaren ekarpen nagusia?

Oso eredu bitxia iruditzen zaigu eta orain arte ikusitakoaren arabera, solidaritatea, langileekiko errespetua eta gizatasuna azpimarratuko nituzke. Orain dela 15 urte ezagutu nituen kooperatibak lehen aldiz; orduan ere KBS telebista kateak bidali ninduen, Madrilen nengoela, 15 minutu inguruko erreportaje bat egitera. Orduan ere zera azpimarratu genuen, bagenuela zer ikasi kooperatiben eruditik. Bestalde, kooperatibismoa aztertzen zuen AEBetako egile baten liburua itzuli eta argitaratu zuten Hego Korean 1990eko hamarkadaren hasieran eta arrakasta dezente izan zuen. Jendeak kuriositatea azaldu zuen eta aditu askok interesa azaldu dute harrezkero hemengo modeloarengan.

Orain dela 15 urte lehen aldiz gure artean ibili zinenetik hona zein ezberdintasun topatu dituzu?

Ez pentsa aldaketa asko sumatu dudarik... Azken baten filosofia, ideia eta kontzeptuak ordukoak dira oraindik... Euskal Herrira etorri aurretik, esan bezala, datuak batzen, egoera aztertzen eta aldizkari espezializatuetan adituen

artikuluak irakurtzen ibili ginen eta konklusio batera iritsi ginen; beste modelo batzuekin konparatuta, kooperatibena hobeto moldatu dela jasaten ari garen krisi egoerara. Herrialde garatuetan langabeziarena bihurtzen ari da arazo nagusietako bat eta horrek kezka handia sortu du langileriarengan, kaleratzeak edozein unetan etor daitezkeelako. Bestalde, soldatetan ere alde ikaragarriak egoten dira sektore eta lanpostu ezberdinen arabera eta diferentzia horiek agian ez dira hain nabariak kooperatibetan. Sakon-sakonean ez dut eguneroko egoera ezagutzen baina susmoa daukat beste egonkorta-

"Ez da arriskatzeko momentua, baina ikerkuntza funtsezkoa da"

"Korean %8 inguruan da langabezia; 2001ean ez zen %1era iristen"

sun bat, oinarri sendoa dagoela kooperatiben oinarrian.

Eta nola ikusten duzu etorkizuna?

Alternatibak topatu behar dira eta kooperatibena izan daiteke horietako bat. Ikerkuntza eta garapena funtsezkoak dira aurrera egiteko eta enpresek horretara bideratu behar dituzte indarrak eta inbertsioak. Ez da arriskatzeko momentua, baina bai, etxetresnen kasuan esaterako, produktu sendoak eta iraupen luzeak prezio interesgarrian egiteko. Kooperatiban esperientzia ikusi dudanez, beti izan dira gauza momentu zailak, kritikoa gaitzeko eta hori garrantia bat da etorkizunera begira, zalantzarik ez.

Hego Korean, hezkuntza sistema munduko eraginkorrena ei da, ala?

Bai, baina zorrotzegia da. Ikasleak ez dira zoriontsuak ez daukate aisialdirako denborarik ere.

Bukatzeo, ondo ibili zarete Euskal Herrian?

Bai, lanerako ez ezik, aisialdirako tartea ere izan dugu eta Donostiako danborrada ezagutzeko aukera ere izan genuen. Primerako giroa zegoen... Ederto ibili gara bai eta jendeak primeran hartu gaitu; oso jende atseginarekin egin dugu topo.



Goiena telebista ikusten ez baduzu, berriro sintonizatu

Hainbat aldaketa egin ditugu Muruko antenan; hori dela eta, baliteke Goiena telebista ikusten zenuten hainbat etxetan orain ez ikustea.

Ondorengo herrietan bakarrik dute eragina:

Leintz Gatzaga, Eskoriatza, Aretxabaleta, Arrasate, Aramaio eta Oñatin.

Kasu honetan, zure telebista berriro sintonizatu beharko duzu. Hau da, zure telebistak berriro bilatu beharko du automatikoki (edo bestela zu zeuk eskuz) Goiena telebista.

Berriz sintonizatu, baldin-eta:

- Aipatutako herriren batean bizi bazara.
- Telebista LTD bitartez ikusten baduzu.
- Orain arte Goiena telebista ikusi baduzu, baina orain ikusten ez baduzu.

UDAL ORDEZKARI IZANDAKOAK

Miguel Angel Kortabarria | Euskadiko Ezkerrako zinegotzia Oñatin (1983-1995)

- ▶ Euskadiko Ezkerrako zinegotzi bakarra izan zen
- ▶ Kultura eta Kirol batzordeetako buru izan zen
- ▶ Eli Galdos eta Angel Iturbe alkateekin egon zen

"Orduan abiarazitako zerbitzuak eta proiektuak martxan daudela ikustea da gehien betetzen nauena"

MIREIA BIKUÑA | OÑATI

Miguel Angel Kortabarria *Sarramendi* (Oñati, 1950) Euskadiko Ezkerra alderdiko zinegotzia izan zen 1983tik 1995era. Hiru agintaldi egin zituen udaletxean. Garain hartan egin zituzten Santa Anako lanak, musika eskola eta Txantxiku ikastola, besteak beste. Eli Galdos eta Angel Iturbe alkateekin lan egitea egokitu zitzaion. "Oroitzapen eta lagun onak" gordetzen dituela esan digu.

12 urte egin zenituen zinegotzi. Ordu asko politikarendako.

Bai, asko. Baina horretaz jabetu nintzen zinegotzi lana utzi ondoren. Orduko hartan dinamika baten barruan sartuta nengoen, eta denera heltzen nintzen. Noski, etxeokoin egoteko denbora laburra izan nuen.

Oroitzapen onak dituzu?

Bai, orokorrean bai. Oroitzapen onak eta lagun onak. Ez nuen eztabaida handirik izan inorekin. Hiru agintalditan pertsona asko ezagutu nituen, kolaboratzaile asko... Horrek guztiorrek asko aberastu ninduen.

Nola heldu zinen Euskadiko Ezkerreko zinegotzi izatera?

Etxean ez genuen politikarako zaletasunik, baina Euskadiko Ezkerra alderdian sartu nintzen.

Alderdi berria zen, eta demokraziako lehen hauteskundeetara aurkeztu arren, ez genuen zinegotzirik lortu. Bigarrenengan eta hirugarrenean, bai.

Zure alderdiko zinegotzi bakarria izanda, gainerako zinegotzien babesik izan zenuen?

Etapaz ezberdinak izan genituen Udalean. Lehen agintaldian oposizioan egon ginen, eta ez genuen ardura handirik. Bigarren agintaldian EAJk ez zuen gehiengo absoluturik lortu eta gobernua osatzeko negoziatu egin zuten gurekin. Hori horrela, Kultura eta Kirolleko batzordeburu izan nintzen. Egia esan, gustura egon nintzen. Kontuan hartu behar

dugu, garai hartan egiten zen politika ez zela egungoa bezalako. Herritarrek zuzenean parte hartzen zuten. Hartu-eman estua zuten politikariek, ideiak proposatuz, batzordeetan parte hartuz...

Bi alkateekin egin zenuen lan: Eli Galdosekin eta Angel Iturbekin. Nola gogoratzen dituzu?

Eli politikoko peto-petoa zen. Haren ezaugarri nagusia zen Oñatiren alde edozer gauza egiteko zuen prestutasuna. Alkate ona izan zen. Oinarrizko zerbitzu asko abian jarri zituen: kiroldegia, kultura etxea, ikastola...

Angelekin agintaldi bakarria egin nuen, pertsona jatorra zen



1983ko udalbatza kiroldegiko inaugurazioan. | UDAL ARTXIBOA. ARZUAGA FUNTSA



Miguel Angel Kortabarria, kultura etxearen kanpoaldean. | MIREIA BIKUÑA

eta egun ere bada. Hizketarako abilezia zuen.

Zeintzuk dira zinegotzi izandako urteetan egindako lanik aipagarrienak?

Zerbitzu asko martxan jarri genituen; besteak beste, kiroldegia inauguratu genuen, Santa Ana

birmoldatu genuen antzoki izateko eta ikastola egin genuen. Kultura etxea, musika eskola, igerilekua... Dena den, gehien betetzen nauena da orduan abiarazitako proiektu eta zerbitzu guztiak egun martxan daudela ikustea. Kultura eta kirol batzordetan lan handia egin genuen eta orduan ereindako haziaren emaitzak begi bistan daude.

Arantzaren bat?

Ez. Politika utzi ondoren, agian pentsatu izan dut proiekturen bat beste modu batera egin behar genuela...

Nola ikusten duzu Oñati?

Ondo. Herri dotorea daukagu, zerbitzu onekin, eta urbanistikoki itxura ederra du. Komunikazioa da daukagun gabezia handiena. Agian, gauden lekuan gaudelako izango da. Asko egiteko dago, baina azkenaldian hobekuntzak egon dira.

"Lehenengo agintaldian oposizioan egon ginen"

"Herritarrek erabateko inplikazioa zuten batzordeetan"

MAGAZINEA

GOIENA TELEBISTA | GOIENA MAGAZINEA

ASTELEHENETIK EGUBAKOITZERA, 19:45 | ARRITXU BARRUSOK AURKEZTUA



HERRIAK

LEINTZ GATZAGA

200 urte dituen Gatzagako bidea egokitze eskaera

- ▶ Kurba nagusiak kendu eta ibilbide guztia zabaltzea da Udalaren nahia
- ▶ Orain urtebete semaforoak jarri zituen Aldundiak, seguruago pasatzeko




Gatzagatik pasatzen den GI-3310 errepideko semaforoan automobila geldi egubakoitz eguerdian. | M.A.

XVII. mendeko errege-bidea

GI-3310 errepidea XVII. mendean eraiki zuten. Madril eta Irun arteko errege-bidea izan zen, Gaztelatik zetozenek Europarantz jotzeko bide bakarra. Orain legez, oso aldapatsua zen eta historia kontuek diote Marulanda inguruan idiak errentan ematen zituela baserri batek zaldiek igo ezin zituzten gurdia erroteko. Izan ere, bertatik pasatzen ziren Gaztelatik zetozen artile zamak, Europako merkatariak eta erregeen segizioak. Herriak garai gozoak bizi izan zituen orduan eta ostatu eta etxe dotore asko eraiki zituzten.

Gainbehera laster etorri zen: 1851n Etxegaraten errepide nazionala egin zutenean eta 1864an eraikitako Madril-Irun trenbide sare nagusitik kanpo geratu zenean.



1876ko grabatua.

MIRARI ALTUBE | LEINTZ GATZAGA

GI-3310 errepidea, Eskoriatzatik Gatzagara doan errepidea, izan da urte askoan debagoiendarrek Gasteizera jotzeko erabilitako bide nagusia. AP-1 autobidea zabaldu zutenetik asko txikitu dela automobil kopurua errepide horretan uste du Aldundiak, bai-

na gatzagarrak ez daude hain seguru: "Hemen beti dabiltza automobilak", diote. Errepide horrek 200 urtetik gora ditu eta Eusebio Villar alkateak uste du badela egokitzapen lan batzuk egiteko garaia: "Ez ibilbidea, ezta zabalera ere, ez da ezer aldatu 230 urtean bide horretan, eta lan

horiei heltzeko momentu ona dela orain uste dugu, autobidetik desbidera daitekeelako zirkulazioa". Hala, bada, eskaera hori egingo diote Aldundiari: errepideak dituen kurbarik nagusiak kendu eta ibilbide guztia zabaltzea apur bat. Alkateak badaki ez dela samurra izango hori lortzea,

"horretarako asmorik" ez dute -eta antzematen Aldundiko ordezkarien aldetik.

Semaforoekin gustura

Ez da lehenengo aldiz gatzagarrak eskaera horrekin doazena Aldundira. Orduan semaforoak jartzea erabaki zuten Aldundiko ardu-

radunek, eta ia urtebete pasatu da herria inguratzen duen errepide tartean hiru semaforo daudela. Batetik, herritarren segurtasuna bermatzea dute helburu semaforo horiek, herrirako sartu-irtenak seguru egiteko, eta gatzagarrak gustura daudela dio alkateak: "Ez da behar duen konponbidea, baina herritarren onerako dela ezin da ukatu". Bestetik, herri inguruko kurba arriskutsua seguruago pasatzea bermatzen du. Autobusaren joan-etorriak ere ugaritu egin dira GI-3310 errepidean eta lasaiago pasatzeko aukera dute orain. Errepidearen gainerako erabilitzaileak, oster, ez daude hain gustura bidean geratu behar izanarekin, "traba" delako.

Automobil gutxiago ibili edo ez, gatzagarrek herrirako duten bide bakarra da eta Udalak uste du konpontzeko ahalegina egin beharko luketela agintariak. Hala jakinarazi zion alkateak orain hilabete pasatxo herrian izan zen Rafa Uribarreni, Landa Inguru-nearen Garapeneko diputatuari.



XABIER JAUSORO
GATZAGA

"Oso ondo daude jarritako semaforoak; batez ere, herria inguratzen duen kurba handi horretatik seguruago pasatzeko guztiok. Errepide horretan konponketa batzuk egitea ere ederto egongo litzateke."



EGUZKIÑE ALBERDI
GATZAGA

"Guztiz ados nago semaforoak jarri izanarekin. Autobusak orain askoz seguruago pasa daitezke eta gidariak gutxiago kezkatzen dira. Eta semaforoekin konforme ez daudeneke beste bi errepide dituzte aukeran: Arlaban eta autobidea."



LUIS BELATEGI
ARRASATE

"Semaforo horiek traba besterik ez dutela egiten iruditzen zait, eta ez nago konforme; ez dakit zertarako jarri dituzten. Errepide hau erabiltzeko ohitura daukat eta eguraldi oso txarra dagoenean bakarrik hartzen dut autobidea."



KRISTINA LASUEN
ARRASATE

"Seguruago pasatzen laguntzen dutela semaforoek uste dut, bidea estua da eta. Lehen, Kurtzetatik ibiltzen nintzen, baina Aramaioko errepidea itxi zutenetik hemendik nabil, eta semaforoek ez didate inolako eragozpenik sortzen."

goienakluba™

Abantailaz betetako kluba!

URTARRILEKO ZOKKETA



Tel.: 943 25 05 05 | e-posta: kluba@goiena.com | Kuota: 48 €.

EUSKAL SELEKZIOKO ZIRA

Bidali KLUBA ZIRA
[Bazkidearen zenbakia]
215800 zenbakira.



LIBURU SORTA

Bidali KLUBA LIBURUAK
[Bazkidearen zenbakia]
215800 zenbakira.



UMEENTZAKO PUZZLEA

Bidali KLUBA PUZZLEA
[Bazkidearen zenbakia]
215800 zenbakira.



REALEKO MOTXILA ETA BUFANDA

Bidali KLUBA REALA
[Bazkidearen zenbakia]
215800 zenbakira.



ERREMEIXUAK DVD-A

Bidali KLUBA DVDa
[Bazkidearen zenbakia]
215800 zenbakira.



SARI NAGUSIA AZAROA-URTARRILA

PARTE-HARTZAILE GUZTIEN ARTEAN ZOKKETATUKO DA

26 HAZBETEKO TELEBISTA

- 26"-ko TFT-LCD pantaila.
- Barneratutako TDT-a.
- HDMI.
- USB 2.0



SMSaren kostua: 0,15 euro + BEZa mezu bakoitzeko.

Indarrean dagoen LOPD 15/1999 legearen arabera, jakinarazten dizugu zure datu pertsonalak Goiena Komunikazio Zerbitzuaren fitxategi automatizatu baten sartuko direla. Datu-bilketa honen helburu bakarra da indarrean dagoen sustapena gestioztatzea.

Eskubidea izango duzue datuotatik sartzeko, haiek zuzentzeko edo ezetzatzeko, helbide honetara idatzita: kluba@goiena.com



Frontoiko sabaitik behera jaitsi zen Mari Justa. | ANDER MONEDERO

BERGARA

Mari Justa jaitsi zenetik, jan, edan eta dantzari egin dute Uberan

Bihar, martitzena, izango da San Paulo eguna; ondo joan da orain artekoa

GOIATZ ARANA | BERGARA

San Pauloak ospatu dituzte aste-buruan Uberan, baina San Paulo ez, Mari Justa izan da protagonista. Maria Justa Beiztegi Idarraga baserriko maiorazgoa izan zenak Zeledonon edo Bitorianatxoren inbidiarik ez duela eta haren jaitsiera egin dute aurretik jaiei hasiera emateko; Mari Justak lekua kendu dio azken 30

urteetako bakailao janari. Bariku iluntzean izan zen jaitsiera, auzoko frontoian, eta uberatarrek ez zuten aukera galdu nahi izan; musika doinuekin eta txalo artean, harrera beroa egin zioten. 70 lagun pasatxo afaritarako elkar-tu ziren gero, eta jo eta su dantzari egin zuten hurrena frontoian goizaldeko hiru terdiak aldera arte.

Bertako sagardoa

Zapatu goizean bixamonik ez zen, ordea: auzoko bost baserriaren egindako sagardoa dastatu zuten. Eta domeka eguerdian, Moises Azpiazu dantza taldearen ikuskizunaz gozatu zuten.

Haritz eta Enaitz auzoko trikitilariak, Manu Iztueta soinu-jole bergararrak eta Alai taldeak jarri diete musika aurtengo jaiei.



ANDER MONEDERO

ARETXABAETA

San Kanutok hamaikagarrena egin du

Aurreko urteetan baino jende gutxiagorekin izan bada ere, Aretxabaetan ospatu dute San Kanuto eguna. Salda beroarekin hasi zuten ospakizuna: "Etorri ez direnek ez dakite zer galdu duten, primerakoa zegoen", zioten batzuk. Kalejira egin eta bazkaltzeko ordua ailegatu zenean, 60 bat lagun batu ziren mahaiaren bueltan; eta kasu horretan ere, menua aitzakiarik gabekoa, kontatu zigutenez: entremes bereziak, sakramentuak eta babarrunak. Herriko musika taldeen emanaldiekin borobildu zuten eguna: kontzertuak izan ziren arratsaldean eta goizean.

ESKORIATZA

Aretxak, lizarrak eta sekuoia landatu dituzte aurtengo Zuhaitz Egunean

Guraso askok seme-alabei aitzurra nola hartu eta zuhaitzak nola landatu irakatsi zieten

MAIDER ARREGI | ESKORIATZA

Hotzari aurre eginez, eskoriatzarrek ez die hutsik egin urtero Zuhaitz Egunearekin duten hitzorduari. Gaztetxo zein helduak aitzurra hartu eta zuhaitz bat baino gehiago landatzera animatu ziren domeka goizean. Familia osoak ikusi genituen Eskoriatzako bidegorrian zehar, zuhaitzak nola landatzen zituzten ikustera joateko espedizioan.

Eskoriatzarrek aretxak eta lizarrak landatu zituzten; guztira, 48 zuhaizka, iaz herrian jaiotako umeak adina. Dorleta inguruan landatu zituzten batzuk, Aingeru Goardako ermita inguruetan bes-

te batzuk, eta baita alboan dagoen biribilgunean eta belardietan ere. Hain zuzen ere, biribilgunean, bi sekuoia landatu zituen Pedro Lasagabaster Eskoriatzako alka-teak: "Herritar dezentek parte hartzen du. Gustura egiten den ekimena da". "Urtetik urtera jende gehiagok hartzen du parte eta batzuk bigarren umearekin datozela ere ikusi daiteke. Umeek naturarekin bat egiteko aukera aparta da", azaldu zigun Ibarraundi museoko Nerea Aranek. Eta hala da: guraso bat baino gehiago ikusi genuen euren umeei aitzurren nola egiten den irakatsi nahian.



Argazkiko koadrilak 14 urteko izeia landatu zuen. | JOSETXO ARANTZABAL



JESUS JARA
ESKORIATZAKO BIZILAGUNA

"Aurten animatu gara; badakizu, umeengatik. Baina pena da mordoia landatu eta gero ikustea batzuk bakarrik egiten dutela aurrera. Agian hobeto zaindu beharko genituzke".



ENERITZ ZUBIA
IBARRAUNDI MUSEOKO KIDEA

"48 zuhaitz landatzea egokitu zaigu aurten eta jendeak parte hartu du. Eguraldi txarra edo ona egin beti daude herritarrek prest. Ekimen polita da umeak eta natura harremanetan jartzeko".



MAREN
ESKORIATZAKO BIZILAGUNA

"Nik banekien zuhaitzak landatzen, aurretik ibilita nago aitzurrarekin. Zuhaitz Egunean, ordea, aurten etorri naiz lehen aldiz. Bat landatu dut eta beste batekin hastera noa orain. Asko gustatu zait ekimen hau eta lagunak ere egin ditut dagoeneko. Datorren urtean ere etorriko naiz, lagunekin eta amarekin".



IÑAKI ETA GORKA
ESKORIATZAKO AITA-SEMEAK

"Gorka semeak bere kabuz aitzurra hartu eta fin fin aretxa landatu du. Gustura pasatzen dugu goiza. Ia ez du aitaren laguntzarik behar izan, kar kar. Polita da umei zuhaitzak landatzen erakustea; jakin dezatela nola egiten den. Bigarren zuhaitz bat ere landatuko dugu honekin bukatzen dugunean".



BERGARA

MAIDER ARREGI

Aurkeztu dute urteko Kataide txakolina

Domekan Parteittin aurkeztu zuten Kataideren urteko txakolina. Jai giroa Miren eta Agur trikitilariak jarri zuten. Eta nola ez txakolina ondo dastatzeko ez zen txorizo modakutxorik falta izan. Jabier Arregi txakolingileak kontatu zigunez, aurtengo txakolina ederra da benetan. Garraztasun puntu egokia eta gorputz eta kolore apartekoduna. Kostakoagatik desberdina, izan ere, gurean haizeak ezberdin jotzen du eta baliteke bailarako txakolina espeziala horrek egitea. Halaxe entzun genien txakolina dastatu zuten auzotarrei.



ANTZUOLA

JOSETXO ARANTZABAL

Barikuan azken kanporaketa

Aste bukaeran jokotutako Antzuolako Mus txapelketako final aurrekoetan, bikote hauek sailkatu dira: Agurtzane Loidi eta Nekane Berasategi; Joan Simon Aristi eta Beñar Kortabarria; Peio Yurrita eta Migel Angel Cañizares; eta Josu Larrea eta Iker Muruamendiaraz. Gailur tabernan egingo da azken kanporaketa hilaren 28an, 22:15ean. Finala, berriz, urtarrilaren 30ean, 16:30ean, Arin jatetxean izango da.

1.583 lagunek gura dute Arrasaten babes ofizialeko etxebizitza bat eskuratu

Horietatik 950 lagun Arrasaten erroldatuta daude eta gainerakoak, berriz, kanpokoak dira

UBANE MADERA | ARRASATE

Datuek argi erakusten dute: jende askok gura du Arrasaten bizi. Azken zenbakien arabera: 1.583 lagun daude gaur egun Arrasaten etxebizitza bat eskuratzeko zain, erosita edo errentan hartzeko. Horietatik 950 lagun Arrasaten erroldatutakoak dira eta gainerakoak kanpokoak.

Hori erakusten dute Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza Sailaren datuek. Aurtengo urtarrilaren 3an eguneratutako datuak dira, hain justu.

Nahiago erosi, eta berria

Horien arabera, oraindik ez ditugu azken urteotako ohiturak aldatu, eta jendeak nahiago du etxebizitza erosi errentan hartu baino. 229 lagun gehiago daude etxebizitza erosi gura dutenen zerrendan sartuta.

Eta erosi gura duten horien artean, gainera, gehienek gura dute etxebizitza berria izan dadila: %98,64k. Etxebizitza tasatua da, berriz, eskaera gutxien duena.

35 urtetik beherako gizona

Arrasaten etxebizitza eskuratu gura duenaren profila, berriz, pertsona bakarra, gizonezkoa eta 35 urtetik beherakoa da. Alde

dezentekoa dago, gainera, sexuen artean: 778 gizonezko daude zerrendan eta 602 emakumezko; beraz, 176 gizonezko gehiago.

Bizikidetzaren unitateari begiratuta, berriz, etxebizitza eskatzerako orduan bakarrik dauden artean, eta hurrengo multzoaren artean ere bada alderik. 1.290 dira bakarrik joan gura dutenak, 141, berriz, bikoteak edo 115 biko edo hiruko taldeak.

Bostetik gorakoak dira gutxien: 37 eskatzaile.

12.000-22.000 euro

Bestalde, datu ekonomikoen artean ere bada desberdintasunik. Etxebiden izena emanda dutenen artean gehienek 12.000 eta 22.000 euro arteko diru sarrerak dituzte. Hurrengo datoz 22.000 eta 28.000 euro artean kobratzen dutenak, gero 28.000 eta 35.000 euro artekoak eta haien atzetik datoz 35.000 eta 45.500 euro arteko diru-sarrerak dituztenak.

Deigarria da, bestalde, badaudela 3.000 euro baino gutxiago kobratzen duten eskatzaileak: 58.

Bizigune

Horiek dira, esandako moduan, Etxebiden izena emanda dutenen datuak, baina Arrasaten bada



Zerrajerako eta Caixako babestutako etxebizitza eremua. | UBANE MADERA

etxebizitza merkaturatzeko beste bide bat: Bizigune.

Kasu horretan, Eusko Jaurlaritzaren ekimena da, baina Arrasateko Udaletik bideratzen da zerbitzu horren kudeaketa.

Biziguneren bitartez, etxebizitza eskuratu ahal da errentan hartzeko, baina baita norbere etxebizitza errentan jarri.

Bada, horien kasuan, Arrasaten 51 etxe-jabek dituzte euren etxebizitzak Bizigunen sartuta, batzuk errentan daude dagoeneko eta beste batzuk errentan emateko prozesuan.

Edozelan ere, Bizigune programak geldialdia izan du legealdi hasieratik, 2010eko udaberrira arte. Orduantxe hasi zen Jaurlaritzak atzera ere Bizigune lantzen. Eta harrezkero beste 16 espediente onartu dituzte Arrasaten. Oraindik, baina, exekutatu barik daude espedienteak.

ESKATZAILEEN EZAUGARRI ETA KOPURUAK

ESKATZAILE MOTA	KOPURUAK
35 urtetik beherakoak	788
Lau urte baino gehiago inskribatuta	285
Guraso bakarreko familiak	59
Mugikortasun urrikoak	17
Pertsona bakarrik	1.290
Bikoteak	141
Hiru edo lau lagun	115
Gizonezkoa	778
Emakumezkoa	602
12.000-22.000 euroko sarrerak	532
22.000-28.000 euroko sarrerak	311
28.000-35.000 euroko sarrerak	234
3.000 euro baino gutxiagoko sarrerak	58

"Diote Euskadin ondoen funtzionatzen duen azoka dela Arrasatekoa"

25 saltoki daude Arrasateko azokan zabalik: 17 finko, zazpi berezi eta bat irabazi asmo bakoa

U.M. | ARRASATE

Jo eta su. Egubakoitz goizean Arrasateko azokara joenez gero, horixe da saltzaile askok erakusten dutena: lanean jo eta fuego dabilzala. Eta erakusteaz gainera, praktikan ere halaxe dela uste dute: "Diote Euskadin ondoen funtzionatzen duen azoka dela, jende asko dabilela, oso azoka indartsua dela", adierazi du Moises Altunak, Obra eta Zerbitzu Saileko teknikari-buruak.

Gazte asko joaten da, oso goiz

"Aukera zegoen azoka egunak aldatzeko. Eguazten eta egubakoitzak lanegunak dira, eta askok ezin dute joan azokara. Hala, mer-

katariei proposatu genien ea nahi zuten zapatua erantsi eta egubakoitza kentzea... Ezetz esan zuten. Esan zuten kontrastatuta dutela 50-60 urteko emakumez gainera, gazte asko doala, errelebotik, adibidez. Merkatariak 06:00etan hasten dira deskargatzen, eta orduan joaten dela gazte asko. Diote orain 20 urteko bezero asko hil egin dela eta haien alabak edo errainak doazela orain azokara, haiek ere lanera joan aurretik. Eta egia dirudi, ze barikutan 08:00ak baino lehen ikusten baita jendea errekaduetarako karroarekin etxera bueltan errekaduak eginda doala", gaineratu du Zerbitzuetako udal teknikariak.



Ramos fruta eta berdurak saltokia eguazten eta egubakoitzetan izaten da azokan. | UBANE MADERA

Saltokiak hartzeko aukera

Hori bai, udal azokan saltoki asko hutsik dago oraindik. Esleitu berri dituzte datozen lau urteotarako saltokiak, eta 25 daude orain zabalik: 17 finko (egunero daudenak), zazpi berezi (eguzten eta egubakoitzetan) eta bat irabazi asmo

bakoa (hilean bi egunez datorrena).

21 saltoki, berriz, hutsik geratu dira: 12 finko eta bederatzi saltoki berezi: "Horrek ematen du aukera, nahiz eta orain lehiaketa bukatuta egon, hutsik geratu diren postuak zuzenean emateko. Edo-

zeinek badauka interesa gaur, etor daiteke eta postua eskuratu", dio Altunak.

Denetarik dago Arrasateko Udal Azokan: frutak eta berdurak, harategia, arrandegiak, baserritarrak, arrautza saltzaileak, kontserbak, gozokiak...

Amaian igogailua eta txarteldegi berria egokitze obrak ondo doaz

- ▶ Hilaren 10ean hasi ziren lanak; hiru hilabete eta erdiko epea dute
- ▶ Aste bukaeretako eskaintza mantendu egingo da, "ahal den heinean"

JOKIN BEREZIARTUA | ARRASATE

Urtarrilaren 10ean hasi zituzten Amaia antzokian igogailu berria jarri eta txarteldegia lekuz aldatzeko lanak. Obra Sailak adierazi duenez, hiru hilabete eta erdiko epea izango du Ulahi-Orona enpresak lanak amaitzeko. Beraz, apiril hasierarako amaituta egon beharko dute lanek. Aurrekontua 103.000 euro inguru da. Oraindik goiz da lanen jarraipena egiteko, baina Obra Sailekoak "oso pozik" daude, "oraingoz". Izan ere, igogailua joango den lekuan zuloa egiteko orduan ez zen arazorik izan.

Igogailua edozein herritarrek erabili ahal du. 2000. urte inguruan kokatu zuten plataforma jasotzailea, baina azken urteetan ez du bere funtzioa behar den moduan bete, pisuaren muga dela-eta. Bada, bestelako plataforma batzuk begiratzen aritu



Astelehenetik eguenera ez da kultura eskaintzarik egongo Amaia antzokian. | JOKIN BEREZIARTUA

ostean igogailu bat jartzea erabaki du Udalak. Beheko solairutik lehen solairura joango da, aretoaren sarrerara. Txarteldegia,

bestalde, leku berria hartuko du lanak amaitzen direnean. Eskuin aldean beharrean ezker aldean joango da eta aurrekoa baino

handiagoa izango da. Gainera, elbarriendako egokituta egongo da; hau da, altuera txikiagoa izango du.

Martxora arteko egitaraua gertu

Lanek kultura eskaintza ez dute etengo. Hala, Udaleko Kultura Sailak urtariletik martxora arteko egitaraua kaleratu du. Asteburutara mugatuko da eskaintza, baina egongo da zertaz gozatu. Martxora arte geratzen den egitarauan antzerkia eta musika izango dira nagusi. Bebe musikariaren emanaldia aipatzeko da: Y. Iana aurkeztuko du kantu mitikoekin batera, disko berria prestatzen dabilen bitartean. Martxoaren 12an izango da, 20:00etan. 25 euro da sarrera.

Kultura eskaintzarekin aurrera

Astelehenetik eguenera arituko dira lanean. Helburua da lanek aste bukaeretako eskaintza ez baldintzatzea. Izan ere, aste barruko eskaintza murriztu egin behar izan dute: astelehen eta eguenetako zinema saioak kendu egin dituzte, obrek iraun artean. Hala, Jon Garai Kultura Sailekoaren arabera, "ahal den heinean" aste bukaeretako eskaintza mantendu egingo da.

Inazio Zuazubiskar | Meatzerreka auzoko alkatea

"Niretzat behintzat, ez dago San Baleixo jairik mus txapelketa barik"

J.B. | ARRASATE

12 urte daramatza Inazio Zuazubiskarrek (Arrasate, 1953) Meatzerreka auzoko alkate lanetan. Harekin egon gara, aste bukaeran auzoko jaiak ospatuko dituztelako: San Baleixo jaiak, hain zuzen. Hilaren 28an, 29an eta 30ean ospatuko dute aurten; urtero legez, haur, gazte zein helduendako egitaraua prestatu dute.

San Baleixo jaiak ezin dira mus txapelketa barik ulertu. Bada, aurretik txapelketak 30 urte bete ditu. Urte asko dira, ezta?

Urteak aurrera doaz eta mus txapelketak ez du hutsik egiten. Jendeak ohitura hartu du jaietan mus txapelketan izena emateko. Niretzat behintzat, ez dago jairik mus txapelketa barik.

30 urte eta sasoiu dago, beraz, mus txapelketa.

Azken urteetan zertxobait jaitsi da parte-hartzea baina oraindik 30 bikote inguruk ematen dute izena urtero-urtero. Beraz, mus txapelketa oraindik ere sasoiu dagoela esan daiteke.

Noiz eta non izango da? Zer egin behar da izena emateko?

Urtarrilaren 29an izango da, 17:00etatik aurrera. Izena emateko nahikoa da txapelketa hasi baino ordu erdi lehenago elkartera jo eta bertan izena ematea. Bikote bakoitzak 25 euro ordaindu beharko du eta lehen lau biko-



Zuazubiskar, elkarrearen atarian. | J.B.

teendako izango dira sariak: lehen bikoteak txapela, garaikurra eta jasotako diruaren %50 jasoko du. Bigarrenak garaikurra eta diruaren %25 eta hirugarren eta laugarren bikoteek, azkenik, izenemateko diruaren %15 eta %10a, hurrenez hurren.

Mus txapelketaz gain, zer nabarmenduko zenuke?

Umeendako jolasak arrakasta handia izaten dute urtero. Kaleko zein auzoko hainbat ume gerturatzen dira eta giro polita egon ohi da. Gorritiren pottoken bueltan haur eta gaztetxo asko pilatzen dira, esaterako.

Amaitzeko, nola daude Meatzerreka San Baleixo jaiak osasun aldetik?

Jende berria hasi da gerturatzen baina oraindik gazteak gehiago inplikatzeko beharrezkoa da.

Ilunpeetatik gaztetxera, punk ilunenaren berpiztea

Los Carniceros del Norte saio ikusgarria eskaini zuen eguenean; etzi, Lobo Electrico dator

J.B. | ARRASATE

Los Carniceros del Norte talde barakaldarra izan zen protagonista *Kooltur Ostegunak* ekimenaren azken kontzertuan. Punkak bizirik dirauela frogatu zuten; gurean ezaguna den estilo baten barruan, emanaldi ezberdin bat eskaini zuten. Jarreran oinarritzen da punka, eta alde horretatik ezin zaie gehiago eskatu. Ikusleekin -80 sarrera saldu zituzten antolatzailleek-, akaso, ez zuten *feedback* handirik izan.

Zonbiei, odolari, amesgaiztoei eta heriotzari abestu zioten: punkaren alde ilunena berpiztu zuten gaztetxean.

Irudiak hitzekin bat eginez

Zuzeneko musika eta *playback*-a tartekatuta zuten, batez ere perkusio doinuei dagokienez. Gainera, ikus-entzunezko kontzertua izan zen: pantaila batean proiektatutako irudiak -*El Resplandor* filmaren irudiak, esaterako- euren abestiekin bateratu zituzten; irudiok bat zetozen abesten ari zirenekin. Bertsioen artean, nola ez, Paralisis Permanente Madrilgo talde mitikoaren *Un día en texas*. Hurrengo, Tolosako Lobo Electrico taldearen punk-rock psikodelikoa. Etzi izango da, eguaztena, hilak 26. Egun bat aurreratu dute, greba orokorra dela-eta.



Saio entretenigarria eskaini zuen eguenean Los Carniceros del Norte. | J.B.

Xaboi artisauen tailerra egingo dute Bedoñan, hirugarrenez

Bedoña Batu elkarteak hirugarrenez antolatu du xaboi artisauen tailerra. Hilaren 29an da hitzordua, 10:00etatik 13:00etara. Hamar euro ordaindu behar da eta lehentasuna auzotarrek dute. Izan ere, iazko saioak oso arrakastatsuek izan ziren parte-hartze aldetik. Izena emateko telefono honetara deitu behar da, urtarilaren 26a baino lehen: 695 56 50 33.

Bestalde, hirugarren ikastaro horren ostean, 12:30ean, iaz aurreko bi saioetan parte hartu zutenek xaboi jasotzeko eta zalantzak irakasleekin argitzeko aukera izango dute, eskola-etxean.

Al-Andalus elkarteak duela 21 urte sortu zela ospatuko du

Al-Andalus elkarteak ospakizun berezietan murgilduko da aste bukaeran. Elkarteak sortu zela 21 urte beteko dira eta hori ospatzeko asteburu osorako egitaraua prestatu dute. Egubakoitzean egitarauaren aurkezpena eta afari berezia egingo dute Bedoñako Errastiko jatetxean.

Gainera, ospakizunen artean, datozen bi urteetarako elkarteko presidentea zein izango den aukeratu dute.

Ikastaro erabat praktikoak antolatu dituzte datozen hilabeteetarako

Etxeko ekonomia kudeatzen, josten, sandwichak egiten... ikasteko aukera egongo da

MONIKA BELASTEGI | BERGARA

Otsailen askotariko hainbat ikastaro egongo dira herrian, Udalak eta Bizikasik antolatuta. Hain justu ere, etxeko ekonomia ondo kudeatzeko ikastaroa egongo da, batetik; oinarrizko ikastaroa ere bai, bestetik; elikagaien manipulazaiak karneta ateratzeko aukera ere egongo da; ogitarteko eta sandwichak egiten ikasteko ere bai; eta jendaurrean nola hitz egin ikasi nahi duenak ere horretarako aukera izango du herritik mugitu barik.

Etxeko kudeaketa ekonomikoari dagokionez, otsailaren 8an hasi eta maiatzaren 17ra arte izango da, martitzen eta eguenean, 14:30etik 16:30era, Miguel Altuna institutuan. Ikastaroaren prezioa 10 euro da, eta, edonork parte hartzeko aukera izango duen arren, bergararrek lehentasuna izango dute. Izena emateko zein informazio gehiagorako Udaleko Gizarte Zerbitzueta- ra jo behar da.

Joskintza ikastaroa

Oinarrizko joskintza ikastaroa ere egongo da datozen hilabeteetan. Otsailaren 8tik martxoaren 24ra izango da, martitzen eta eguenean, 18:00etatik 20:00etara, Anezka dendan.



Hainbat herritar joskintza ikastaroan. | M.B.

Hil bakoitzeko prezioa 20 euro da (40 guztira), eta, interesa duten guztiek parte har badezakete ere, bergararrek lehentasuna izango dute. Izena emateko azkeneko eguna otsailaren 1a da, Bizikasin

(943 76 93 94 eta info@bizikasi.com). Parte-hartzaileak zozketa bidez aukeratuko dira.

Jendaurrean nola berba egin ere erakutsiko dute ikastaro baten otsailaren 28an hasi eta martxoaren

2an, 7an eta 9an, astelehen eta eguaztenetan, 18:00etatik 20:00etara, Miguel Altuna. Ikastaroaren prezioa 15 euro da eta kasu horretan ere izena eman daiteke Bizikasin.

Ogitarteko eta sandwich goxoak egiteko ikastaroa

Otsailaren 8, 9, 15 eta 16rako, ogitarteko eta sandwich bariatua eta goxoak egiten ikasteko ikastaroa antolatu dute Gureak Lantaldeak eta Bizikasik.

10:00etatik 12:00etara izango da ikastaroa, Gureak Langunean, eta, interesa duten guztiei zuzenduta dagoen arren, lehentasuna izango dute Gureak taldeko kideek. Ikastaroa doan da eta izena emateko edo informazio gehiagorako hona jo behar da: Bizikasi (943 76 93 94 eta info@bizikasi.com).

Elikadurarekin lotutako beste ikastaro bat ere egongo da otsailen, Hain zuzen, elikagaien manipulazaiak karneta ateratzeko aukera egongo da otsailaren 7an eta 8an, 16:00etatik 19:00etara, Miguel Altuna.

Ikastaroaren prezioa 25 euro da, eta interesa duten guztiek eman ahal izango dute izena, nahiz eta bergararrek lehentasuna izango dute. Izena emateko azken eguna urtarrilaren 31 da, Bizikasin, eta parte-hartzaileak zozketa bidez erabakiko dira.



INIGO ZAITEGI

Isabel Sanchezek jaso du saria

Isabel Sanchezek eskuratu du Bergara Kirol Elkarteak Gabonetan zozketatutako saskia. 10.048 izan da saritutako zenbakia. Gainerako zenbaki sarituak honako hauek izan dira: 24.181 (hotel baten egonaldia) eta 6.661 (hainbat produkturen sorta). Bergara Kirol Elkarteak kideek aurreratu dutenez, sariak jasotzeko epea urtarrilaren 31ra arte dago zabalik.

OHARRAK

ASKOTARIKO IKASTAROAK MIGUEL ALTUNAN

Langile, autonomo, funtzionario eta langabeendako ikastaroak emango dituzte datozen hilabeteetan Miguel Altuna (%100 diruz lagunduta). Hiru alorrekin lotura duten ikastaroak dira: mekanika, elektrizitatea eta administrarritza eta informatika. Informazio gehiago eta izenematea Miguel Altuna eta 943 76 70 49 zenbakian.

1956AN JAIOTAKOEN AFARIA EGINGO DUTE

Hilaren 29an egingo dute, Zabalán. 20:00etarako Fraiskozurín egin dute hitzordua txikiteorako. 21:30ean abiatuko da urbanoa Fraiskozuritik. Dantzaldia ere egongo da. Izenematea Zabalán (943 76 42 57), hilaren 25a baino lehen.

ZIKLISMO TALDEA LIZENTZIEKIN HASI DA

Bergarako Txirrindulari Elkarteak urteroko baimenak tramitatzeko epea zabaldu du, hilaren 31ra arte. I2 eta Igartua dendetan bete daitezke.

MARIAREN LAGUNDIKO ZENBAKI SARITUA

Holandako eskola batekin elkartrukea egiteko Mariaren Lagundia ikastolak egindako zozketako zenbakia saritua hau da: 481. Saria jasotzeko (bi lagunendako afaria Zumelaga jate-txean) ikastolara joan behar da eta horretarako 15 eguneko epea dago.

BEHORRA ETA MOXALA DITU SALTZEKO UDALAK

Udalak behor bat eta haren moxala ditu saltzeko. Interesa duten herritarrek baldintzak eskura dituzte idazkaritzan eta Udaleko webgunean, www.bergara.net helbidean. Eskaintzak aurkezteko epea 2011ko urtarrilaren 28ko 13:00etan bukatuko da.

REALZALEAK ELKARTEKO KAMISETAK HARTZEKO

Realzaleak elkartetik jakinarazi nahi diete bazkideei elkar-tearen kamisetak dagoeneko jaso daitezkeela Matxiategi elektrizitate-dendan. Kamisetaren prezioa: 10 euro.

Emakumeendako autoestimu tailerra antolatu dute

Emakumeendako autoestimu tailerra antolatu du Udaleko Ongizate Zerbitzuak. Otsailaren 1ean hasi eta maiatzaren 31ra arte izango da, martitzenetan, 17:30etik 19:30era, kultura etxean. Izenematea gaurtik hilaren 28ra arte da, Udaleko Ongizate Zerbitzuan. Pepa Bojo psikologoak emango du.

Etorkinendako euskara ikastaroak antolatu dituzte

Udal Euskaltegiak Udaleko Euskara eta Ongizate zerbitzuekin elkarlanean antolatu du. 60 orduko harrerara ikastaroa izango da eta otsailen hasiko da. Prezioa 10 euro da eta %85eko asistentzia dutenei bueltatu egingo zaie matrikulan ordaindutakoa. Izenematea urtarrilaren 31 baino lehen da, Udal Euskaltegian.

Infernukua taberna historikoa maiatzerako atzera zabalik

Jabi Larrañaga zenaren heriotzatik, 2003. urtetik, itxita egon da Masterrekako taberna ezaguna

EDU MENDIBIL | BERGARA

Krisi garai honetan ixten dituzten denda eta komertzioak dira zoritxarreko albiste. Baina albiste pozgarri bat ere iritsi zaigu urte berriarekin batera: Infernukua taberna berritzeko lanetan hasi dira Gabonen ostean eta maiatzerako berriro zabalik izango da. Alex Gonzalezek, Jabi Larrañaga zenaren ilobak, hartuko du negozioaren ardura. Igeltseroek dihardute egunotan lanean. Barrako mostradoreak paretari itsatsita jarraitzen du oraindik eta baso bat edo beste eta kartak ikusten dira han. Beste guztia bertan behera bota dute. Edozein modutan, Alex Gonzalezek esan digunez, lehengo egiturari utsiko diote. Aldaketa bakarra zera izango da: komunak lekuz aldatuko dituzte araudi berrira egokitu ahal izateko eta sarrera nagusia Masterreka aldeetik izango du, elbarrituendako ere egokitua; hala ere, Bideberriko sarrera mantendu egingo dute. Barra lehengo berdina izango da: Gineatik ekarritako *palo rojo* deritzon egurrekin egindakoa da, 1925. urte inguruan, eta ondoren Jabi Larrañagak taberna irekitzerakoan JLB (Jabi Larrañaga Barrena) hizkiak gehitu zizkioten. Jabi ospetsuaren

garaian bezala, pintxoak, kazolatxoak eta edariak izango dira tabernaren ikurrak. Giroa ere ez da faltako, jarraitzaile ugari dituen taberna baita.

Lau belaunaldi

Matilde Alkarainek ireki zuen Infernukua taberna, 1890. urtean. Orduan jabearen izena zuen, Infernukua izena gerokoa baita. Herriak emandako izena da eta goiko trenbideko bezeroak, mikelteen galtza gorriak eta tabernako sotoan pattarra eta bestelakoak saltzen zituen gizona nahasten dira izenaren jatorrian;



Infernukua taberna 2003ko irailetik egon da itxita. | ARTXIBOA



Alex Gonzalez Larrañaga, Infernukua tabernako sarrera ondoan. | E.M.


Alex Gonzalezek dioskunez, Purita [Barrena] amamari halaxe entzun izan dio. Antonio Urzelaik *Bergara* liburuan jasotzen duenez, bestalde, Infernukua izena jarri zioten lehendik beste taberna bat zegoelako Zeruko izenarekin.

Matilde Alkarainek eta haren gizonak, Agapito Arregik, tabernaz gain, pentsioa eta zalgurdi zerbitzua zeuzkaten XX. mendearen hasieran. Arregik Gasteizerako joan-etorria egiten zuen garai hartan. 1920ko hamarka-

datik aurrera zalgurdi zerbitzua gainbeheran etorri zen, Gasteizerako trenbidea jarri zutenean.

Espainiako Gerran, 1938an, Tomas Zangitu eta Rita Aperribai senar-emazteek hartu zuten lokala, taberna eta estankoa jarritz. Masterrekako eraikinean jaio ziren haien zortzi seme-alabak eta 1969ra arte izan zuten taberna. Gaur egun Irizar kalean duten lokalean zabaldu zuten Zangitu estankoa 1967 urte inguruan eta tabernak zertxobait gehiago iraun zuen zabalik.

Jabi Larrañagak Matilde Alkarain birramonaren negozioari eutsi zion berriz 1980ko hamarkadan. 1982ko San Martin jaien bezperatan, irailaren 15ean, inauguratu zuten eta, bitxia bada ere, Pol-Pol taberna ere egun berean zabaldu zuten. Biak ala biak erreferenteak izan dira belaunaldi askorendako. Pol-Pol joan den uztailaren 31n itxi zuten, 28 urteko ibilbidearen ostean; Infernukua tabernak, berriz, 2003ko irailaren 23an itxi zituen atek, Jabiren heriotzarekin batera. Maiatza aldera berriro irekiko ditu. Azken urteotako bezero asko eta asko egun hori heltzeko gogoz daude.



Tabernako barra mantenduko dute. Duela 85 urte ingurukoa da. | ALEX GONZALEZ

Gernikako Akordioaren berri eman zieten herriko talde eragileei eguaztenean

Ezker abertzaleak, Aralarrek eta Eusko Alkartasunak egin zuten deialdia



Argazkian, joan den eguaztenean Miguel Altunako batzarrean batutako herritarrak. | TXOMIN MADINA

E.M. | BERGARA

Gernikako Akordioaren edukia zabaltzeko helburuarekin, batzarra egin zuten aurreko eguazten iluntzean Miguel Altuna institutuko areto nagusian; 25 lagun inguruk parte hartu zuten, deialdiari erantzunez.

Joan den urtarrilaren 8ko esku-orri banaketaren ondoren, orain akordioaren berri gizarte eragileei ematen ari dira hainbat herritan. Bergaran, esan bezala, eguaztenean egin zuten, eta Arrasaten oraingo astean egingo dute.

Gernikako Akordioaren edukien berri gizarte eragileei emateko asmo horretan, Bergarako hezkuntza, kirol eta kultura arloetako ordezkariak batu ziren Miguel Altunako aretoan. Jose Ignacio Madariagak, Iñigo Arregik eta Rafa Sanchezek eman zituzten azalpenak, Eusko Alkartasuna, ezker abertzalea eta Aralar ordezkatzuz, hurrenez hurren. Azalpenen ostean eragileen atxikimendua jaso zuten, eta sinadura eman zutenek konpromisioa hartu zuten akordioa-

ren edukia nork bere esparruan zabaltzeko. Akordioak indarrik gabeko eta egoera politiko normalizatu baterako pausuk egiteko eskatzen die ETari eta gobernuari, elkarrizketa eta negoziatio garai bat irekitzeko gero, *Mitchell* printzipioetan oinarrituta, besteak beste.

Eguen iluntzean, beste batzar bat egin zuten; kasu horretan, herriko plazan eta askotariko herritarrekin. Zapatuko manifestazioaren deitzaileek prestatutako komunikatua irakurri zuten sinatzaileek eta harekin bat egiteko deia egin zioten plazan elkartutako taldeari. Manifestazioan parte hartu gura zutenentzako autobusa ateratzeko zen Bergararik zapatu arratsaldean, Debagoieneko beste herri batzuetatik moduan.

Donostiako ekitaldia atzeratuta Martitzen goizaldeko atxiloteten ostean, atzeratu egin dute Donostian egiteko zuten ekitaldi nazionala eta, haren ordezkari, Iruñeko manifestazioa deitu zuten, atxilotetak salatzen.

Asobal ligako eskubaloia partidua zapatuan

M.B. | OÑATI

Aloña Mendik antolatuta, Arratek eta Cuatro Rayas Valladolidek Asobal mailako partidua jokatu dute zapatuan, 18:30ean, Zubikoan. Punta-puntako eskubaloia eta jokalaria ikusteko aukera izango dute zaleek; besteak beste, Bidasoa, Portland eta Bartzelona taldeetako atezain izandako Tomas Svenson eta Arrateko atezain Igor Moioia oñatiarra.

Asobal liga etenda dago orain, munduko txapelketa dela-eta. Hori horrela, bi taldeek entrenamendu moduan erabiko dute hilaren 29ko partidua.

Bestalde, Arrateko entrenatzaile Julian Ruizek hitzaldia egingo du unibertsitatean 11:00etan. Eskubaloia bilakaeraz egingo du berba, eta jokalaria izandako urteak gogora ekarriko ditu.

Ikusi Makusikoen emanaldia Santa Anan hilaren 29an

Ikusi Makusi erretiratuen antzerki taldeak beste emanaldi bat egingo du zapatuan, hilaren 29an, Santa Ana antzokian, 22:00etan. *¿Problemas de pareja? La solución aquí* antzezlan egingo dute. Bikote harremantetan sortu ohi diren krisi egoerak aztertuko dituzte. Sarreak aurrez erosi behar dira Pake Leku elkartearen.

Traste zaharren bilketa hil bakoitzeko azken egunean

Etxeko traste zaharrak hileko azken egunetan batzen dituzte. Horiek atera gura dituen herritarrek 943 71 19 38 telefonora deitu beharko du alde aurretik abisua emateko, eta trasteak non utzi behar dituen esango diote. Trasteak bilketaren egun berean atera beharko dituzte, 20:00etatik 22:00etara.

Argentinarako materiala batzen dihadute Ulman

Ulma taldeak Argentinarako materiala batzen dihardu. Deialdia egin zuen langile eta bazkideen artean. Garagaltzako bulegoetan utzi daiteke materiala hilaren 31 baino lehen. Umeendako arropak, eskolarako materiala, oinetakoak, jostailuak eta beste utzi daitezke. Bilketa bukatzean, Hermansoloña taldeak kudeatuko du materiala.

Etorkinak euskarara hurbiltzeko ikastaroa egingo dute otsailetik

- ▶ Euskaltegikoek ekainaren 13ra arte 60 orduko ikastaroa egingo dute
- ▶ Izenematea zabalik dago eskolak hasi aurreko egunera arte

MIREIA BIKUÑA | OÑATI

Bedita Larrakoetxea Udal Euskaltegiak etorkinendako euskarara ikastaroa antolatu du, iaz egindako moduan. Aisa, etorkinak euskarara ikasten lelopean, Oñatiko etorkinengana heldu gura dute.

Euskarara ikastaroa 60 ordukoa izango da eta otsailaren 10ean hasiko dute. Oraingoan, izenemate epea zabalik dago. Interesatuak ikastaroa hasten den egunera

arte eman dezakete izena. Hiru bide dituzte: 943 78 24 96 telefonon; euskaltegia@oinati.net helbidean; eta bulegoan bertan, 09:00etatik 13:00etara eta 14:30etik 18:00etara. Bestelako informazioa gura duenak aurretik aipatutako bideak erabil ditzake.

Ekainaren 13ra arte

Izena ematerakoan ordainketa egin beharko da. Ikastaroaren prezioa 22,50 euro da: 10 euro

matrikulagatik eta 12,50 ikas-materialagatik. Euskaltegikoek 60 orduko ikastaroa egin gura dute: otsailaren 10etik ekainaren 13ra. Izenematea bukatzean, ikasle kopurua ikusi eta taldeak antolatuko dituzte. Orduetgia eta eskola egunak ere zehaztu barik dituzte. Hori ek ikasleekin adostuko dituzte.

Ikastaroaren helburua da etorkinak euskarara hurbiltzea. Etorkin askok urteak darama-

tzate Oñatin eta beharrezkoa zaie euskarara ezagutzea: euren seme-alabei etxeko lanetan laguntzeko, lagunekin berba egiteko, erosketak egiteko... Gutxieneko maila lortzeko aukera izango dute. Ikastaroa teoria landuz, euskararen oinarriko ereduak landuz hasiko dute. Aurrerago praktikak egiten hasiko dira.

Euskaltegikoek dei berezia egiten diete etorkinei ikastaroan parte har dezaten.

Baserritarrek laguntza eska dezakete postua ipintzeagatik

Merkatu plazan dauden zapatu bakoitzarengatik 50 euro jasoko dituzte



Baserritarra frutak saltzen merkatu plazan. | M.B.

M.B. | OÑATI

Merkatu plazako azoka indartzeko eta lehen sektorea bultzatzeko eta laguntzeko helburuarekin baserritarrei dirulaguntzak emateko ordenantza onartu zuen iaz Udalak. Hori horrela, baserritarrek 2011rako dirulaguntza jasotzeko eskaera egin dezakete Nekazaritza Saileko bulegoan. Ondoren, hiru hilean behin, hau da, apirilean, uztailan, urrian eta 2012ko urtarrilean dirua jasoko dute. Horretarako, zapatuetan udal ordezkariak sinatutako dieten agiria entregatu beharko dute. Merkatu plazan postua jarri duten zapatu bakoitzeko 50 euro jasoko dituzte.

Baldintzak

Dirulaguntza jaso gura dutenek bi baldintza bete beharko dituzte: alde batetik, eskaera egin baino lehen Oñatin erroldatua egon beharko dute eta nekazaritza-ustiatza Oñatin inskribatua izan beharko dute.

Baserritarrek, berriz, fruta eta barazkietan, garaian garaiko hiru produktu saldu beharko dituzte gutxienez. Bestelako produktuetan (gazta, ogia, ezitia...) ez dago gutxienezkorik.

OHARRAK

BASERRIKO PLASTIKOAK

Baserrietako plastikoen lehen bilketa bihar egingo dute. Oñatin lau lekutan utzi daitezke plastikoa: Zañartun, Zuazola inguruan; Murgialdian, Asentzio ermita ondoan; Olabarrietako autobus geltokian; eta ETEO atzealdean. Hurrengo bilketak otsailaren 22an eta martxoaren 22an egingo dituzte.

EKITALDIAK IKASTOLAN

Ikastolan haur txikiekin abesten dituzten kantuak eta koreografiak erakutsiko dizkiete gurasoei hilaren 26an. Bestalde, hilaren 31n

batzar informatiboa egingo dute eta ikastolaren proiektu pedagogikoa eta funtzionamendua azalduko diete; irailean eskolan hasiko diren umeen gurasoendako batzarra da.

ASIS SAREA

Asis sareak otoitzaldia egingo du hilaren 27an, 19:30ean, Bidaurretan. Fedearen gainean egingo dute berba frantziskotarren espiritualtasuna ardatz hartuta.

ATE IREKIAK LUDOTEKAN

Txaloka ludotekak hainbat berrikuntza abian jarriko ditu laster;

besteak beste, jostailu mailegu zerbitzua eta *Gurasoekin jolasten* egitasmoa. Horiek erakusteko ate irekiak egingo dituzte hilaren 24an eta 26an (16:45-19:45).

TXIKI TXOKON MATRIKULA

Martxoan eskolan hasi gura duten 2009an eta 2010ean jaiotako umeen izenematea zabalik dute Txiki Txokon. Izenematea hilaren 28ra arte, eskolako bulegoan.

IKASTAROAK KZGUNEAN

Urtarrileko azken egunetan askotariko ikastaroak egingo dituzte KZgunean. Besteak beste, *Oina-*

rrizko internet+E-administrazioa, Sare sozialak, Google Maps eta Ebay. Interesatuak 943 08 16 34 telefonon eman dezakete izena edo tutor.onati@kazgunea.net helbidean.

ARATUSTEETAKO ENTSEGUAK

Oñatz dantza taldeak hasi ditu Aratusteetarako entseguak. Eguaztenetan (20:00) eta zapatuetan (12:00) elkartzeko dira Errekaldeko lokalean. Martxoaren 5ean kalera aterako duten ikuskizuna prestatzen dihardute hainbat herritarrekin.



Adela Elexalde ikastaroa iragartzeko kartelaren ondoan, Aramaioko plazan. | JOKIN BEREZIARTUA

ARAMAIO

Adela Elexalde | Lagun Artea dantza taldeko kidea

"Kalean, lagun giroan, dantzan egiteko antolatu dugu tailerra"

Lagun Artea taldeak euskal dantzen ikastaroa antolatu du bigarren; izena eman gura duenak urtarrilaren 28an gimnasioan du hitzordua, 18.00etan

JOKIN BEREZIARTUA | ARAMAIO
Lagun Artea dantza taldeak euskal dantzen ikastaroa antolatu du bigarren eta ikastaro hori posible egin duen errudunetako bat da Adela Elexalde (Aramaiio, 1964). Ikastaroa antolatzearen zergatiaz eta dantza taldeaz egin dugu berba Elexalderekin.

Bigarren antolatu duzue dantza ikastaroa. Zergatik?

Jendeak eskatu digulako antolatu dugu berriro. Lehenengoz antolatu genuenean ere herritarrek eskatzen zutelako egin genuen. Erromerietan, jaietan eta parranda giroan dantzan egiten jakitea gura zuten askok. Kalean, lagun giroan, dantzan egiteko antolatu genuen ikastaroa. Orain ere, ildo horretan joango dira saioak.

Lehen tailerlean zenbat herritarra parte hartu zuten?

Hasieran 30 bat lagun elkartu eta kopurua gutxitzen joan bazen ere, 20 lagun inguru maiztasun finkoaz

aritu ziren. Gehienak emakumezkoak; iaz lau gizonen izan genituen, baina lesioak eta bestelakoak direla medio, ez zuen batek ere ikastaroa amaitu...

"Iaz lau gizonen izan genituen, baina batek ere ez zuen ikastaroa amaitu..."

1956a ezker Aramaiio dantzan jarriz

55 urte beteko ditu aurtengoa Lagun Artea dantza taldeak. Urte urte kide kopuru ezberdina dute eta ikastolako gimnasioa da egun euren egoitza: bertan emango dute egubakoitzean hasiko den ikastaroa. Udalaren dirulaguntza jasotzen du taldeak aurrera egiteko, baina halako ikastaroak ere ditu iturri dira –hamar euro jarri beharko du bakoitzak–, beti ere taldearen bizirautea helburu hartuta.

Zein dantza mota irakatsiko duzue? Eta zein adinei zuzenduta?

Euskal dantza ohikoenak izango dira: arin-arina, fandangoa, zazpi-jausi, larrindantza. Iaz zortzi dantza ikasi genituen. Helduei dago zuzenduta bereziki, haurrekin aparte aritzen gara-eta.

Zer egin behar da izena emateko?

Urtarrilaren 28an 18:00etan gimnasioa agertzearekin nahikoa izango da. Egun horretan hasi eta ekainera arte izango da ikastaroa, hasiera baten.

ELGETA

'Herrixa dantzan' sortu zela urtebete da; balorazioa positiboa da

Domekan, hilak 30, egingo dute hurrengo dantza saioa: 19:00etan hasiko da, Espaloian

LARRAITZ ZEBERIO | ELGETA

Hileko azken domeketan egiten den publiko guztiari zabaldu-tako Elgetako dantza saio irekia da *Herrixa dantzan*. Irabazi asmorik gabekoa eta herri ekimenetik sortua. Iaz, urtarrilean, jaio zen eta ordutik hona egingo dako ibilbidearekin pozik daude bultzatzaileak. "Hasierako aurreikuspen guztiak bete dira", esan du saioak gidatzen dituen Patxi Monterok. "Elgetako eta inguruko herrietako dantzazaleendako bilgune puntu bihurtu da, eta ezaguna egiten hasia da. Ehun lagunetik gora batu izan gara, adin eta herri askotarikoak. Nire ustez hori oso polita da; izan ere, balio handia ematen diogu dantzaren gaine-

tik sortzen den giro eta elkar harreman horri". Dantzan egitera bakarrik ez, jende asko ikustera etorri ohi da. "Helburua ondo pasatzea da eta ikustera etortzen direnek ere giroa jartzen dute, parte hartzen dute", azaldu du Monterok. "Ekimenak urtebete egin du eta aurrera jarraitzeko asmoarekin gaude", esan du. Ideia berria pentsatzen ari direla ere aurreratatu du.

Dantza ikastaroa

Dantzan ikasteko, berriz, dantza tradizionalen ikastaroak aurrera egin du. Eguenean egin zuten lehenengo saioa eta hamar lagun inguru elkartu ziren. Hurrengo saioa egunean egingo dute 19:30etik 20:30era.



Herrixa dantzan ekimeneko saio bat. | L.Z.

LEINTZ GATZAGA

Zundaketek diotena jakiteko bi urte behar dira

Orain dela urtebete sartu zituzten hodiak herriko bost tokitan, eta lehenengo datuak jaso

MIRARI ALTUBE | LEINTZ GATZAGA

Ia urtebete pasatu da zundaketa lanak egin zituztenetik Gatzagan. Herriko bost tokitan sartu zituzten hodiak 30 bat metrora, eta ordutik hona hiru hilabetean behin pasatzen dira datuak jasotzera. Datuok diotena jakiteko goiz da; izan ere, gutxienez bi urte beharko direla ondorioak ateratzeko esan diete adituek udal ordezkariak.

Arau subsidiarioak

Zundaketa horien helburua da herria mugitu egiten den edo ez jakitea. Udal ordezkariak susmo hori daukate, eta Aldundiari jakinarazi ostean aztertzea erabaki zuen hark. Azterketa horren emaitzak datorren urtean jakingo dituzte, eta horiek diotenaren arabera jokatu beharko dute gero: "Ikusi egin beharko da zer

dioten, eta azterketa hori nahikoa izango den edo ez", dio Eusebio Villar alkateak.

Azterketa horrek arau subsidiarioekin du zerikusia. Izan ere, arauen berrikusketa egin beharrean daude Gatzagan, 1986a ezkerro begiratu barik daudelako, baina herriaren mugimendu horrek dena baldintzatzen duela dio alkateak: "Etxeak egitea, esaterako". Arauen berrikusketari heltzeko, gainera, aurre-ikerketak geologikoa egin beharko litzatekeela diote: "Urak nondik pasatzen diren iker-tu, lurak aztertu... Horrek gastu handia dauka, 50 mila euro inguru, eta Udalak ez du dirurik".

Hortaz, Gatzagak dauzkan erronken artean egon arren, arau subsidiarioen berrikusketari urte batzuetan ezingo diotela heldu iragarri du Villarren.

ANTZUOLA

Ordenagailu eramangarriak behar ditu Anelkarrek Senegalerako

Liburutegia jartzeko proiektua du Anelkarrek Senegalgo Diembering herrian

USOA AGIRRE | ANTZUOLA

Antzuolako Kristina Bakaikoa eta Maite Telleria Senegalen izan dira hiru hilabetez. Liburutegia egiteko proiektua dute Diembering herriko Asseb kanpamentuan. Gazte asko bizi dira bertan, eta, irakurtzeko materialaz gain, Internet ere jarri nahi dute liburutegi horretan.

Senegalen egin duten azken egonaldian tramiteak egin dituzte liburutegia jartzeko eta lokala ere lortu dute. Mundumiran jasotako diruarekin konponketak egin eta prest izango da laster liburutegia. Behin liburutegia martxan jarrita, bertako bati erakutsiko diote funtzionamendua eta hark kudeatuko du.

Irakurgaiak eta ordenagailuak

Liburutegirako, baina, materiala behar dute, eta batzen ibili dira egunotan Antzuolako eskolarekin eta Aiherrako eskolarekin elkarlanean: testu-liburuak, hiztegiak eta koadernoak. Interntera konektatzeko, baina, ordenagailuak behar dituzte, eta, oraingoz, mahai gaineko bakarra lortu dute. Bakaikoak azaldu digunez, bi ordenagailu eramangarri gehiago behar dituzte; norbaitek baldin badu, jar dadila harremanetan Izar liburu-dendako Kontxirekin.

Otsailean Bartzelonatik irtengo den karabana solidarioan joango da batutako materiala.



IRITSI DA GOIENA GIDA 2011

Laster jasoko duzue herriko denda eta enpresen telefonoen gida.

Gida osatuena, erabilgarriena eta berriena.

Eta gogoratu: Goiena Gida <http://goiena.net/gida> helbidean ere badaukazu.

KIROLA

DKS SARIAK

Egindako lanaren saria jaso dute kirolariek

Hirugarren urtez jarraian, Debagoieneko kirolari onenak saritu dituzte; Aramaion egin dute ekitaldia oraingoan, kultura etxean



Ekitaldi amaieran, sarituak udal ordezkariekin eta ekitaldiko babesleekin. Artemanek koordinatu du ekitaldia eta babesleak izan dira: La Caixa, Kanpanzar Kobate eta MU. | JOSETXO ARANTZABAL



Ainhoa Sanchez eta Xabier Urtzelai aurkezleak. | JA.



UDA futbol saileko ordezkariak. | JA.



Aramaioko kultur etxea jendez gainezka. | JA.

ARANTZAZU EZKIBEL | ARAMAIO

Asko dira Debagoiengan kirolari alde lan egiten dutenak: kirolariak, entrenatzaileak, antolatzaitzaileak, babesleak... Bada, horiek guztiek euren esker ona izan zuten egubakoitzean Aramaioko kultura etxean: 2010eko DKS sariak banatu zituzten.

Kirolari onenak

Xabier Urtzelai kirol kazetariak eta Ainhoa Sanchez aurkezleak gidatu zuten ekitaldia. Argi geratu zen Debagoieneko kirol taldeak eta kirolariak ondo ezagutzen dituztela; konplizitate handia erakutsi zuten sarituekin biek ala biek.

Kirolari onenen sariak ekitaldiaren azken partean banatu zituzten. Emakumezko kirolari onenaren saria Jone Elortza oñatiarrak eron zuen. Soka tiran munduko txapeldunordea izan zen Elortza; gainera, Oñatiko Udalak emandako saria ere jaso zuen. "Pozik" hartu zituen sariak oñatiarrak. Azaldu zuen bigarren mailan geratu izan den kirola dela soka tira, eta esker onez jasotzen direla horrelakoak. Elortza Gasteizen bizi izan zen: "Han hasi nintzen soka tiran. Gero, umeak tarteko, utzi egin nuen eta berriro hasi naiz gerora", azaldu zuen.

Gizonezkoetan, kirolari onenaren saria Alberto Iñurrategik jaso zuen. "Herriari esker hasi ginen mendian, eta eurei zor diegu", azaldu zuen. Sariak esker onekoak direla baina, aldi berean,

kontzientzia kargua ematen diotela esan zuen: "Nire adinean, gazteei lekua itxi beharrean nagoen errezeloa daukat", gaineratu zuen, barrez. Iñurrategik ez zuen aurreratu zeintzuk izango diren euren hurrengo erronkak.

Herritarren saria

Beñat Arnaiz aretxabaletarrak herritarren saria eskuratu zuen. 2010ean duatloietan egin duen lan bikainaren esker ona izan zen, duda barik. Arnaizek gustura hartu zuen errekonozimendua, eta gaineratu zuen aurten

garaipen bat lortzea izango dela helburua, hau da, "helmugan eskuak altxatzea". Garazi neskalaguna eta amona izan zituen gogoan Arnaizek.

2010ean ez ezik azkeneko urteetan egindako lan onaren esker ona jaso zuten Aloña Mendiko saskibaloijokalariek. Entrenamendua atzeratu, eta ekitaldian izan ziren jokalariek guztiak. Azken urtean 29 partidu jokatu dituzte Xabier Igartuaren mutilek, eta bi bakarrik galdu dituzte.

Udalen presentzia

Oñatiko, Aretxabaletako, Aramaio, Elgetako eta Leintz Gatzagako udalek antolatzen dituzte DKS sariak; hala, euren sariak ere banatzen dituzte.

Aramaioko Enrike Aspe omendu zuen, pilotaren alde egindako lanagatik; 2008ra arte entrenatzailea izan zen Aspe Aramaion. Aretxabaletak Bixente Etxeandia omendu zuen futbolaren alde egindako lanagatik. Aurkezleak egindako galderen aurrean, Etxeandiak esan zuen UDA ez duela ondo ikusten aurtengo denboraldian eta "asko sufrituko dutela". Ikusleen barreak eragin zituen Etxeandiak berba horiekin.

Ekitaldia girotzen Bea Asurmendi abeslaria egon zen. Aramaioarrak ahots izugarria duela erakutsi zuen; berak sortutako abestiarekin hasi zuen ekitaldia, amaitu, oster, Bob Dylanen *Blowin' in the Wind* abesti famatuarekin egin zuen.

Ziklismoa, Elgetan berriz

Elgetako Udalak Emilio Mandaluniz omendu zuen azkeneko urteetan txirrindulari lasterketak antolatzen egin duen lanagatik. Mandalunizek eta gainerakoek utzi egin dituzte antolaketa lanak; ondorioz, azkeneko urteetan ez da lasterketarik egon Elgetan.

Mandalunizek ekitaldian aurreratu zuen prest daudela, antolakuntza talde berri bat sortzen bada, lehenengo urteetan horiei laguntzeko. Hortaz, ziklismoa berriro ere Elgetara irits daiteke.

SASKIBALOA | Sustrai Aloña Mendik irabazi egin du etxean | 25



ENRIKE ASPE

Pilota entrenatzailea.
Aramaioko Udalaren saria.



EMILIO MANDALUNIZ

Antolatzaila.
Elgetako Udalak emandako saria.



BIXENTE ETXEANDIA

Futbol jokalaria ohia.
Aretxabaletako Udalaren saria.



XABIER IGARTUA

Saskibaloia entrenatzailea.
Debagoieneko talde aipagarriena.



RAFA ETXABE

Ford Mugarri.
Babesle onenaren saria.



BIXENTE PAGALDAI

Atleta.
Kirolari anonimoaren saria.



BEÑAT ARNAIZ

Atleta.
Herritarren saria.



ALBERTO GARAI

Kirol medikua.
Teknikari onenaren saria.



AITOR ZABALETA

Auto gidaria.
Kirol ibilbidearen saria.



ALBERTO IÑURRATEGI

Goi mendizalea.
Gizonezko kirolari onena.



JONE ELORTZA

Soka tiralaria.
Emakumezko kirolari onena eta Oñatiko Udalak emandako saria.

ESANAK

"Gustura nago, izan ere, sokatira beti atzean geratu izan den kirola da, eta saria eskertzen da"

JONE ELORTZA | SOKA TIRALARIA

"Herriari zor dizkiogu mendian ibiltzeko izan ditugun aukera guztiak. Eurei eskerrak"

ALBERTO IÑURRATEGI | MENDIZALEA

"Sariak poztasun handia eman dit baita entrenatzen jarraitzeko animuak ere"

BEÑAT ARNAIZ | ATLETA

"Aldizkarian irakurrita jakin nuen saria jaso behar nuela. Duda barik, gustura hartzen dira sariak"

AITOR ZABALETA | AUTO GIDARIA

"Partiduak jokatu egin behar dira; entrenamenduetan irabazten dira lehiak, ez sariekin"

XABIER IGARTUA | ENTRENATZAILEA

"Sari hau ez da nirea bakarrik, lagun askoren lanaren ondorioa da, bakarrik ez da ezer egiten-eta"

EMILIO MANDALUNIZ | ZIKLISMOA



Sustrai Aloña Mendi saskibaloia taldeak jaso du 2010eko talde aipagarrienaren saria. | JOSETXO ARANTZABAL

OHOREZKO ERREGIONALA

Sufritu egin zuten atzo Azkoagainen Ordizia 0-1 aurreratu zitzaienean

Palaciosen gola 77. minutuan iritsi zen eta, berdinketarekin, gaitz erdi!

EMAITZA

ALOÑA MENDI

1-1

ORDIZIA

FITXA TEKNIKOAK

Aloña Mendi: M. Aginagalde, E. Ruiz, I. Agirre, J. Igartua, I. Olalde, I. Zubia, J. Juaristi, R. Idigoras (A. Biain, 91. min.), A. Mendoza (X. Carpintero, 81. min.), M. Palacios (Gola, 77. min.) eta I. Arregi (X. Agirre, 71. min.).

Ordizia: A. Muxika, J. Benitez, I. Lakuntza, I. Molina (I. Esnaola, 85. min.), J. Alvarez, M. Urreta, S. Mendez, A. Otegi (Gola, 50. min.), I. Sevilla (M. Muriel, 77. min.), I. Etxeberria eta E. Avila (U. Garmendia, 56. min.).

Epaila: Atharratz Zabalondo.

LARRAITZ ZEBERIO | OÑATI

Sailkapeneko azken postuetatik irteteko garaipenak behar ditu Oñatiko taldeak. Atzoko Ordiziarren aurkako norgehiagoka irabazi beharreko partidu horietako bat zen, baina azkenean puntu bakarra lortu zuten txantxikuek. Sufritzea tokatu zitzaizen atzokoan ere Azkoagainen. Jokalariek, entrenatzaileak eta hotzari aurre eginez futbol zelaian elkartutako jarraitzaileek, denek sufritu zuten.

Lehenengo zati kaskarra egin ostean joko hobe erakutsi zuten etxekoek atsedenetik bueltan baina, 50. minutuan eta ustekabeko jokaldi batean, gola egin zuten Ordiziak. Orduan hasi zen Aloñakoen gurutzebidea.

Jokalariek oñatiarrendako kolpe handia izan zen aurkako gola. Burumakur sumatu genituen. Atezainak "intentsitate gehiago" txilio egiten zien jokalariei eta Aitor Orueta entrenatzailea, "mugimendu gehiago" oihukatzen entzun genuen.

Berdinketaren gola

Baina iritsi zen berdinketaren gola: 77. minutuan egin zuen Mikel Palacios. Hori bakarrik ez: hurrengo jokaldian bigarren gola egiteko puntuan egon zen Roberto Idigoras. Hala, eta garaipena eskuratzea oraindik ere posible zela ikusita, bestelako joko erakutsi zuten Aitor Orueta mutilek. Jokoaren zati handiena Ordiziako atearen area inguruan kokatu zen. Txantxikuek presio egiten jakin zuten eta nahiz eta gol aukera garbirik sortu ez, harmailetan ezuste bat baino gehiago izan zen.

"Jokalariek triste daude", zioen neurketa amaieran entrenatzaileak. "Ikusi dute irabazteko moduko partidua zela eta, zelaian dena eman ostean, ezin izan ditugu hain beharrezkoak ditugun puntuak lortu. Baina ziur nago animoz etorririko direla martitzeneko entrenamendura. Gogor ari gara

lanean eta lortuko dugu". Izan ere, egoera konplikatu du, momentuz, Aloñak. Aste bukarako jardunaldiaren ostean, sailkapeneko azken-hirugarren postuan dago.

Ondarroan jokatu beharko dute datorren asteko norgehiagoka Aloña Mendikoek. Hori ez ez da partidu erraza izango, baina Oruetak dioen moduan "emaitzak lortu edo ez, talde batek eduki behar duen lehenengo gauza irabazteko grina da". Ikusiko dugu egindako lanak bere fruituak ematen dituen.



Mikel Palaciosen gola 77. minutuan. | JOSETXO ARANTZABAL

AITOR ORUETA | ALOÑAKO ENTRENATZAILEA

"Asteko lana oso ona da, eta nik uste dut horrela aterako dugula hau aurrera"

Aitor Orueta entrenatzaile oñatiarrak argi du futbol talde batek, aurrera egin nahi badu, erakutsi behar duen lehenengo gauza irabazteko grina dela; hori, emaitzak lortu edo ez. Orueta esanetan, gidatzen duen jokalaritaldia bide onetik doa.

Puntuak behar ditu Aloñak eta gaurkoan bakarra poltsikoratu duzue.

Bai. Egia esan puntuak behar ditugu, baina azkenean galdu behintzat ez dugu egin. Uste dut, gainera, Azkoagaingo espiritua eta Aloña Mendiren kasta berreskuratu egin ditugula. Bigarren zatian egindako lana hartu behar dugu kontuan, nire ustez.



horrekin puntuak batzeko aukera asko izango ditugu. Maila hau oso gogorra da, denok oso parekatuta gaude eta konturatu behar gara gure esku dugula emaitzak lortzea.

Ordiziaren gola kolpe gogorra izan da taldearendako?

Bai. Klasifikazioan gaizki doan talde batendako horrelako golak kolpe handia izaten dira. Baina jokalariek erakutsitako jarrerarekin gelditzen naiz ni. Irabazteko grina erakutsi dute eta irabazteko ahalegina egin dute. Hori da behar duguna.

Kosta ala kosta puntuak batzea da orain Aloñaren helburua?

Lehenengo helburua da asteko lana ona izatea, eta nik uste dut bide onetik goazela. Asteko lana oso ona da eta, nire ustez, partiduetan ere erakusten dugu ez garela besteak baino gutxiago. Jokalariek oso ondo egiten dute lan eta pentsamendu



OHOREZKO ERREGIONALA

JOSETXO ARANTZABAL

Mondrak 1-0 irabazi dio Ordiziari

Garaipenarekin amaitu zen zapatuan Mojategiko norgehiagoka, eta behar zuen Mondrak, baina garaipen gazi-goza izan zen, izan ere, eskualde ospitaleko larrialdi zerbitzuetan amaitu zuen Iker Lazpiur jokalaririk ez zela. Norghegiagoka amaitzeko minutu gutxi falta zirela eta Mondra 1-0 markagailuan aurretik zela, Ordiziako jokalariek batek sudurrean jo zuen. "Horrelakoak ikusi beharra penagarria da", esan du entrenatzaileak. Gola, Oier Arregik egin zuen 75. minutuan.

OHOREZKO ERREGIONALA

Bergarak 0-1 irabazi dio Beriori; bederatzi jardunaldi egin dituzte galdu barik eta golik jaso gabe

Bergarako taldea oso martxa onean doa. Taulako seigarren postuan jarri da, Aretxabaletako taldeak besteko puntuaziorekin. "Oso ona izan da gure lehenengo ordu erdia", zioen Pedro Rico presidentek partidu amaieran. "Hiru bider jo dugu zutoia, eta azkenean gola iritsi da; Imanol Cabanillasek egin du. Defentsa lana ere ona izan da". Pozik, beraz, mahoneroak.

OHOREZKO ERREGIONALA

UDAK hiru puntu ekarri zituen zapatuan Zumaiatik Aitor Perezek bigarren zatian egindako golarekin

Jon Palaciosen ordez zelaian sartu eta gola egin zuen zapatuan Aitor Perezek. Bigarren zatian izan zen. Jokaldia Beñat Etxaberenaren izan zen, baina jaurtiketan kale egin zuen. Aldaratutako baloia jaso eta Perezek egin zuen tantoa. Amaitzeko ordu laurden falta zela, ordea, txartel gorriarekin kanporatu egin zuen Perez epaileak. Lanak izan arren, emaitzari eutsi zioten UDAkoek.

EMAKUMEZKOEN IGOERA FASEA

Mondrak 2-6 irabazi zuen atzo Hernanin eta Arizmendik 3-0 galdu zuen zapatuan Zarautzen

Jon Zuloagaren neskek Hernanin baino gehiago izan ziren atzo Zubipen. Emakumezkoen ligako igoera fasean dihardute eta borrokan ari dira taularen erdiko postuetan. Mondrakoek 2-6 irabazi zuten Hernanin.

Arizmendiko neskek bestelako emaitza ekarri zuten etxera. Igoera faseko lehenengo postuetan dago talde hori eta galdu egin zuen zapatuan mailako talde indartsuenaren aurka. Hala, debagoindarrei etxean 3-0 irabazita, lider jarraitzen du Zarautzek.

SASKIBALOIA

Sustrai Aloñak etxeko garaipenarekin liga irabazteko bidea berretsi du

- ▶ Hirugarren laurdenean defentsan zein erasoan fin ibili ziren Xabier Igartuaren mutilak
- ▶ Zapatuan irabazi ostean, bi puntuko diferentzia ateratzen dio hirugarren sailkatuari

EMAITZA

SUSTRAI ALOÑA MENDI

77-72

SEKY.ES

ANDER MONEDERO | OÑATI

Sustrai Aloña Mendik erraz menderatu zuen Seky.es talde gasteiztarra eta sailkapeneko bigarren postuan jarraitzen du.

Nahiz eta markagailuan oñatiarrak aurretik joan, lehenengo zatia orekatua izan zen. Hasieran, partiduak joan etorri asko izan zituen eta defentsan bi taldeak fin ibili ziren. Biek ala biek saskiratze gutxi egin zituzten, baina Aloña Mendik abantaila hartu zuen.

Bigarren laurden hasierak lehenengoa bukatu moduan jarraitu zuen baina, amaieran, oñatiarrek talde gasteiztarra estutu eta atsedendira lasai joateko abantaila lortu zuten.

Bigarren laurdenean markagailuan lortutako abantailak hirugarrenean jokatzeko konfiantza eman zion etxeko taldeari, eta hiruko lerrotik jaurtiketa asko egin zituzten Sustrai Aloña mutilek.

Fin ibili ziren hiruko saskiratzeetan eta horrek zabaldu egin zuen aurkariaren defentsa.

Azken laurden hasieran, hirugarrenean lortutako abantaila handitu egin zuten oñatiarrek eta markagailuak 12 puntuko



Sustrai Aloña Mendi taldeko Iban Lizarralde saskiratzea egiten. | JOSETXO ARANTZABAL

aldea erakusten zuen. Momentu horretan, Sustrai Aloñako jokalariei partidua ixteko presa sartu zitzairen eta partidu osoan egin ez zituzten akats larriak egin zituzten.

Oñatiko jokalariek talde jokoa alde batera utzi eta erasoan nor bere aldetik hasi ziren. Hori gutxi balitz, Jagoba Gamarrak min hartu zuen eta hori aprobetxatu

zuen Seky.es taldeak markagailuan aldea murrizteko.

Bi puntura jarri ziren gasteiztarrek eta Aloñako mutilek partiduan egindako lana galtzeko arriskua izan zuten.

Partidua orekatuen zegoen momentuan erreakzionatzea lortu zuten eta, berriz ere, markagailuan aldea atera zuten. Horrek talde gasteiztarra ondoratu zuen

eta norgehiagoka lasai bukatu zuen etxeko taldeak.

Hurrengo biak kanpoan

Zapatuko partidua irabaztea garrantzitsua zen, garaipenak arerio zuzen batekiko distantzia handitzea suposatzen zuelako eta hurrengo bi neurketak etxetik kanpo izango direlako. Datorren astean Lizarran jokatuko dute,

Promociones Legarziaren aurka eta, ondoren, derbya izango dute Arrasaten, MUren aurka.

Liga amaitzeko lau partidu geratzen dira eta oñatiarrek lehen postuan bukatzeko aukera dute. Horretarako, hurrengo hiru neurketetan, Easok irabazten duen partidu kopuru bera irabazi eta azken jardunaldian Donostian liderra menderatu behar du.

SASKIBALOIA

Easoren aurka galduta jaitsiera ekiditeko liga jokatu dute arrasatearrek

Euskal ligako partidu garrantzitsuena izan zuten atzo Iturripen: 70-71 galdu zuten MUko mutilek

ARANTZAZU EZKIBEL | ARRASATE

Hil ala biziko lehia zuten Ointxe elkarteeko gazteek atzo Donostiako Easo Basoaren aurka, "Euskal ligako partidu garrantzitsuena", euren esanetan. Lehia irabazi dutenak -kasu honetan, donostiarrak-igoera fasea jokatzeko ligaxkan sartu dira; eta galtzaileak -arrasatearrek-, jaitsiera ekiditeko fasean. Ander Aranbururen

mutilek ondo jokatu zuten, zazpi puntuko aldea ere izan zuten, baina azkeneko minutuetan ihes egin ziren partiduak. Hala, 70-71 galdu zuten arrasatearrek. Iturripen bete egin zen gazte mailako lehia ikusteko.

Euskadiko txapelketa

Ointxe saskibaloi elkarteeko talde nagusiak ere ezin izan zuten zapa-



Etxekoak jaurtiketa egiten. | J.A.

tuan UPV Alavaren aurka irabazi. Josu Larreategiren mutilek 59-62 galdu zuten. Hala ere, entrenatzaileak, "jokalarien kofiantza" nabarmendu zuen.

SASKIBALOIA

Eskoriatzako neskek esku hutsik bueltatu ziren Donostiatik

A.M. | ESKORIATZA

Hamahiru puntuko aldearekin bukatu zen Bera Bera Gros eta Eskoriatzaren arteko partidua (66-53).

Nahiz eta markagailuak bi taldeen arteko diferentzia handia erakutsi, partidu orekatua izan zen.

Lehenengo laurdenean, eskoriatzarrak galtzen hasi ziren; baina bigarren, buelta eman zioten partiduari eta parekatuta bukatzea lortu zuten.

Hirugarrenean bi taldeak ondo aritu ziren defentsan eta Eskoriatzak zenbait momentutan aurre hartu zion aurkariari.

Azken laurdena hirugarrena moduan hasi zen baina azken lau minutuetan galdu zuen partidua Eskoriatzako taldeak. 15 eta 2ko partziala egin zuten donostiarrak. Hiru puntuko bi saskiratze egin zituen Donostiako taldeak eta Eskoriatzako neskek ezin izan zuten ezer egin.

Aerio zuzen baten aurka

Bigarren itzuliko lehenengo partidua izan zen zapatukoa eta, galdu ostean, Bera Berak partidu bateko aldea ateratzen dio Eskoriatzakoari eta aberagea ere haren alde dago.



Ford Mugarri taldeko Masip gola egiten. | JOSETXO ARANTZABAL

ESKUBALOIA

Fisikoki gehiago izanda irabazi dio Arrasatek Usurbili

48-44 gailendu zitzaion Edu Orgazen taldea Usurbili zapatuan Musakolan jokaturako lehia

ARANTZAZU EZKIBEL | ARRASATE

Gol askoko lehia izan zen zapatuan Musakolan jokaturakoa (48-44); ondorioz, epaileek ere arazoak izan zituzten golak behar den bezala idazteko.

Lehenengo hamar minutuak nahiko parekatuak izan ziren (5-5). Baina minutuak pasa aha-

la, etxeko taldea nagusitzen joan zen; batez ere, fisikoki izan ziren gehiago arrasatearrak. "Gure planteamendua izan da korrika asko egitea. Bagenekien hainbat jokalaririk lesionatuta dituztela; hortaz, aprobeixatu gura izan dugu fisikoki indartsuagoak izatea", azaldu zuen Edu Orgazek.

Eraso azkarrak egindako zulo politak aurkitu zituzten etxekoek gola egiteko. Atsedenera 23-20 aurretik iritsi ziren Orgazen mutilak.

Bigarren zatiko lehenengo partean aldea nabarmen handitu zuten etxekoek 36-29; baina, minutuak aurrera joan ahala, aldea gutxitu egin zen. Joko aldetik partidua ez zen ona izan; batez ere, sake azkarrarekin gola bilatzen denean burua ez delako behar den tokian izaten.

Edu Orgaz, baina, pozik zegoen emaitzarekin: "Gustura, bi puntu gehiago ditugulako", azaldu zuen lehia amaitzean.

ESKUBALOIA

Aloña Mendiko neskek galdu egin dute liderraren aurka

Euskadiko goren mailako taldeak ezin izan zuen Jarrilleras taldearen aurka punturik atera. 16-23 galdu zuten oñatiarrek zapatuan Zubikoan liderraren aurka. Bederatzi jardunaldiren ostean sailkapeneko erdialdean daude Aloña Mendiko neskek, zortzi punturik.

ZIKLISMOA

Velasco 24. tokian sailkatu da Australiako Tour Down Under-en

Azkeneko etapa -atzo, domeka- kontuan hartu gabe, Ivan Velasco arrasatearra sailkapen orokorreko 24. tokian sailkatu da Australiako itzulian. Cameron Meyer sailkapenean lehenengo postuan zegoen domekan, Velasco baino 46 segundo gutxiagorekin. Mar- kel Irizar 100.a zen.



ERRUGBIA

Arrasatek galdu egin du: 11-22

La Unica talde nafarraren aurka galdu zuten etxean arrasatearrek. Hasiera txukuna egin zuten, 6-5 irabazten joan ziren, baina huts asko egin zituzten eta ezin izan zuten markagailua alde mantendu. Igor Isasi entrenatzaileak taldearen jarrera "ona" izan zela uste du, baina zenbait kasutan "berba larregi" zutela ere bai. Gainera, "talde entrenamendu falta" handia dutela nabarmendu zuen.

FUTBOLA

ERREGIONAL OHOREZKO MAILA

EMAITZAK

Real Union-Anaitasuna	1-0
Mondra-Aurrera	1-0
Aloña Mendi-Ordizia	1-1
Hondarribia-Hernani	1-2
Trintxerpe-Pasaia	0-1
Roteta-Idiazabal	4-3
Zumaiako-Aretxabaleta	0-1
Oiartzun-Tolosa	1-1
Berio-Bergara	0-1

SAILKAPENA

TALDEA	P	J
1 Hernani	42	19
2 Pasaia	40	19
3 Anaitasuna	38	19
4 Real Union	37	19
5 Aretxabaleta	32	19
6 Bergara	32	19
7 Oiartzun	31	19
8 Aurrera	27	19
9 Tolosa	26	19
10 Trintxerpe	25	19
11 Mondra	25	19
12 Berio	24	19
13 Hondarribia	22	19
14 Idiazabal	18	19
15 Ordizia	17	19
16 Aloña Mendi	16	19
17 Roteta	12	19
18 Zumaiako	11	19

HURRENGO JARDUNALDIA

Real Union-Berio
Anaitasuna-Mondra
Aurrera-Aloña Mendi
Ordizia-Hondarribia
Hernani-Trintxerpe
Pasaia-Roteta
Idiazabal-Zumaiako
Aretxabaleta-Oiartzun
Tolosa-Bergara

ERREGIONAL PREFERENTEA

Mutriku-Antzuola	2-3
Aretxabaleta B-Getariako	2-1
Elgoibar-Mondra B	4-0

1. ERREGIONALA, IGOERA

Asoleus-Bergara B	1-3
-------------------	-----

1. ERREGIONALA, KOPA

Soraluze B-Aretxabaleta C	1-1
---------------------------	-----

OHOREZKO GAZTEAK - IGOERA

Aloña Mendi-Real Union	2-3
Mondra-Ordizia	1-2

LEHEN MAILAKO GAZTEAK - IGOERA

Tolosa B-Arizmendi	6-0
--------------------	-----

LEHEN MAILAKO GAZTEAK - KOPA

Arizmendi UDA B-Urola B	2-3
Aretxabaleta B-Eibartarrak	0-1

OHOREZKO KADETEAK - KOPA

Hondarribia-Bergara	0-5
Aretxabaleta Arizmendi-Astigarraga	2-0

EMAKUMEZKOAK

Hernani-Mondra	2-6
Zarautz-Arizmendi	3-0

ESKUBALOIA

EUSKADIKO TXAPELKETA

Ford Mugarri A.-Usurbil	48-44
Portugalete-Soraluze Bergara	30-29

EUSKADIKO TXAPELKETA

Aloña Mendi-Jarrilleras	16-23
-------------------------	-------

BIGARREN TERRITORIALA

Groseko-Izarraitz Aloña Mendi	21-30
-------------------------------	-------

GAZTEAK, GIZONEZKOAK

Tolosa- Aloña Mendi	33-28
---------------------	-------

GAZTEAK, EMAKUMEZKOAK

Aloña Mendi-Arrate	24-15
--------------------	-------

KADETEAK, EMAKUMEZKOAK

Aloña Mendi A-Ereintza	19-11
------------------------	-------

ARETO FUTBOLA

EUSKADIKO TXAPELKETA

Eskoriatza	Atsedena
------------	----------

GIPUZKOAKO BIGARREN M.

Denak Taberna-Aretxabaleta	5-5
----------------------------	-----

GIPUZKOAKO HIRUGARREN M.

Ceramicas Nogales-Aloña Mendi	6-2
-------------------------------	-----

SASKIBALOIA

LEHEN MAILA NAZIONALA

Sustrai Aloña-Seky.es	77-72
MU-UPV Alava	59-62

SENIOR GIZONEZKOAK

MU-Alde Zaharra	56-54
-----------------	-------

SENIOR GIZONEZ., 2. MAILA

Teklan-Sustrai Aloña	62-55
----------------------	-------

SENIOR EMAKUMEZKOAK

Bera bera-Eskoriatza	66-53
----------------------	-------

GAZTE GIZONEZKOAK, PARTA.

Soraluze-Easo	79-58
Aloña Mendi-Sein	56-86
MU B-Take Tolosa	52-41

GAZTE EMAKUMEZKOAK, PART

Aloña Mendi	Atsedena
-------------	----------

KADETE GIZONEZ., PARTA.

MU B-Ordizia	38-48
Soraluze Bergara-BKL	65-30

KADETE GIZONEZ., ERRENDI.

MU A-Easo haitza	70-64
------------------	-------

KADETE EMAKUMEZ., PARTAID.

Ama Guadalupeko-Bergara	31-54
-------------------------	-------

ERRUGBIA

SENIOR EUSKADIKO TXAPEL.

Kanpanzar ART-La Union	11-22
------------------------	-------

GU RE KI RO LA

GOIENA TELEBISTA HARMAILATIK ASTELEHENERO, 20:45, 22:30



goiena™

FUTBOLA

Jon Madariaga | Futboleko epailea

"Azpiko kategorietan arbitratzea lehen mailan baino zailagoa da; erraztasun gutxiago ditugu"

- ▶ Aurreko urtean hasi zen epaile lanetan Jon Madariaga 17 urteko antzuolarra
- ▶ Asteburu bakoitzean bi partidu izaten ditu; Eibarren eta Aretxabaletan izan da oraingoan

EDU MENDIBIL | BERGARA

Jon Madariaga gazte antzuolarra (17 urte) bigarren denboraldia betetzen ari da futboleko epaile moduan. Iaz urtarrilean ekin zion, eta infantil, kadete, gazte eta erregional mailetakako partiduak zuzendu ditu orain arte. Asteburu bakoitzean bi partidu izaten ditu; zapatuan Eibartarrak-Ikasberri (erregional maila) eta domekan Aretxabaleta-Ilintxa (infantil mailako mutilak) partiduak zuzendu zituen, oraingoan. Epaile izan aurretik futboleko jardun zuen Madariagak, Eibarren, bost urtez, eta Urola taldean, ohorezko gazte mailan. Biriketako arazo bategatik utzi behar izan du. Dena dela, ez du baztertzeko hurrengo urtean berriro jokatzeko hastea. Bien bitartean, gustura dihardu epaile lanean.

Nolatan animatu zinen futboleko epaile izateko?

Betidanik gustatu izan zait futbola, baita arbitratzea ere. Etxean aitak animatu ninduen izena emateko eta joan den urteko urtarrilean hasi nintzen; sei orduko ikastaro bat egin genuen Zumarragan eta handik astebehera hasi nintzen. Legazpiko beste bi lagunekin batera egin nuen ikastaroa eta haiek ni baino gazteagoak ziren, 15 urte zekaten. Batez ere azpiko mailatan nabil, baina aurreko urtearen amaiera aldera erregional mailako lehenbiziko partiduak zuzendu nituen: Soraluze-Bergara, Mutrikuarrak-Anaitasuna eta Aretxabaleta-Eibartarrak.

Zeintzuk dira, zure ustez, arbitro on baten ezaugarriak?

Aurretik futboleko jokatu izana lagungarria da eta, horrez gain, arauak ondo ezagutzea, jokaldiak jarraitzen jakitea eta jokalariei kasu handirik ez egitea funtsezkoa da; hau da, askotan protestekin marea egiten zaituzte eta hobe da norberaren erabakiarekin aurrera jarraitu, norberak ikusitakoarengan konfiantza izatea.

Arauetan nobedaderik izan da aurtengo denboraldian?

Bai; jokalariek bat bat jokoz kanpoko posizioan badago eta baloia kontrario batek ukitu ondoren heltzen bazaio, eta kontrarioak nahi barik edo huts baten ondorioz ukitu badu baloia, jokoz kanpo adierazi behar dugu. Lehen ez zen horrela: kontrarioarengandik jasota bazen baloia, ez zitzaion aurrelariari jokoz kanporik adierazten.

Txartel asko ateratzen dituzu?



Jon Madariaga infantil mailako Aretxabaleta-Ilintxa partiduaren atarian, atzo Ibarren. | JOSETXO ARANTZABAL

Askorik ez... Nahiago dut lehenbizi jokalariei abisua eman, eta berriro protesta edo falta nabaria errepikatzen badute, orduan bai, orduan ateratzen diet txartela. Normalean, jokalariek eta entrenatzaileek errespetua daukate, nahiz eta batzuk berotzen diren batzuetan...

Mutilen eta nesken artean antzematen duzu diferentziarik?

Neskek gehiago protestatzen dutela esango nuke.

Jokalariei ibili zinenean, inoiz kalera bota izan zaituzte?

Txartel gorria behin atera zidaten, aurkari bati "¡Payaso!" esatearren. Arbitroak entzun eta kalera bota ninduen. Irainak eta horrelakoak ezin dira esan; txartel gorria atera behar da horiengatik.

Lehen mailan-eta nahiko zeresan ematen dute epaileek. Zure ustez, zer-nolako maila dago?

Orokorrean, ona. Lehen mailan gu baino erraztasun gehiago daukate: gu marrazain barik ibiltzen gara eta lehen mailan marrazainak, laugarren arbitroa, kontaktu gutxiagoko partiduak... Hor

ibiltzen diren batzuk gure mailan ikusi nahi nituzke, ea zer moduz ibiltzen diren ikusteko.

Epaileek gustukoak?

Mateo Lahoz eta Undiano Mallenco. Gaur egun, nire ustez, haiek dira lehen mailako onenak.

Eta zein iritzi daukazu Mourinhoren etengabeko kexen gainean?

Ez dut uste arrazoi askorik duenik kexatzeko... Gainera, Real Madrileko entrenatzailea kexatzen hastea nahiko barregarria da.

Talde asko izaten dira Real Madrid baino askoz ere kaltetuagoak ligan zehar eta haien protestek ez dute horrenbesteko oihartzunik izaten, gainera.

Azken munduko txapelketan, Hego Afrikan, polemika ugari egon zen hainbat jokaldi eztabaidagarritan telebista ez erabiltzeagatik, batez ere Alemania-Ingalaterra eta Argentina-Mexiko partiduak gertatutakoaren ondorioz. Telebistara jotzea baino ez zegoen jokaldiak argiteko.

"Aurretik futboleko jokatu izana lagungarria da arbitro izateko"

"Zorionez, liskar handirik ez dut izan orain arteko partiduak"

"Jokaldi eztabaidagarriak argitzeko telebista erabiltzearen aldekoa naiz"

"Etxean ama da gehien sufritzen duena arbitratzen nagoenean"

Bai, horrelakoetan telebista erabiltzearen aldekoa naiz. Azken baten, gauza asko dago jokoan horrelako partiduak eta arbitroaren huts batek azken emaitza baldintza dezake, zalantzarik ez. Hobe da teknologia erabiltzea, tenisean eta beste hainbat kirolatan egiten den moduan.

Zuri egokitu zaizu inoiz jendearen haserrea sufritzea?

Ez, liskar handirik ez dut izan, zorionez. Protesta gehien Mutrikuarrak-Anaitasuna partiduan jaso nituen, haien ustez etxeko taldearen kontra ari nintzelako. Baina arazorik ez. Toki batzuetan gehiago berotzen da jendea, besterik gabe.

Norekin joaten zara zuzendu behar dituzun partiduak?

Gurasoek laguntzen didate normalean. Ama da gehien sufritzen duena, aita ohituago dago. Baina ama bai, urduri jartzen da zaleek zerbait esaten badidate. Amama ez da etortzen, baina arbitro hasiko nintzela esan nionean, kontuz ibiltzeko agindu zidan, joko ote ninduten beldur zen...

Umea zaintzen duen helduaren jarrerak garrantzi handia du

Janire Jaio: "Haurrek uneoro derrigortzen gaituzte hausnarketara"

LARRAITZ ZEBERIO | ARRASATE
"0-7 urte bitarteko haurraren garapen osasuntsurako oinarriko ezaugarria da zaintzen duen helduaren jarrera", diosku *Guraso.com*

webguneko kolaboratzaile Janire Jaiok azken artikuluan. "Haurrak jasotzen duen kontaktu bakoitzak mundua nolakoa den eta bertan nola izan daitekeen

jakiteko balio dio. Lehenengo zazpi urteak oinarrikoak dira haurraren biografiaren eraikuntzan: bizitzako lehenengo hilabeteetan sustraiak errotzen dira; lehenengo urteetan, enborra; eta hortik aurrera, zuhaitza bere adarrekin eta hostoekin hornitzen da".

Jaioren esanetan, helduak haurraren bizi prozesuaren laguntzaileak gara, eta, erlazioa jarra egokietan oinarritzen bada, haurrari bere erritmoan hazteko gaitasuna bermatuko diogu. Hori dela eta, ezinbestekoa da inongo baldintzarik gabe laguntzea, maitasuna eta ziurtasuna eskaintzea, umearen garai bakoitza errespetatzea eta bere gaitasunetan sinetzea. Eta haurrek haur izateko aukera izan dezaten giro egokia eskaini behar da. Artikulu osoa *guraso.com* webgunean dago.



Oñatiko Errekalde Herri Eskolako umeak, zaintzan. | LEIRE KORTABARRIA

Alderantzizko presio leungarria; bularra eman aurretik gomendatutako teknika

Titi-burua batzuetan gogortu egiten da eta badaude norberak har ditzakeen teknikak



Umea titia hartzen. | MANUELLA

L.Z. | ARRASATE

Teknika erraza da, proposatzen dutenen esanetan; atzamarrekin presio egin behar da titi-aureolan. Hala, hanturak atzera egingo du apur bat eta umearendako errazagoa izango da esnea ateratzea. Eta jakinekua da bularra hustea zeinen onuragarria den. Komeni da masaje hori umeari bularra eman aurretik egitea eta ama buruz gora etzanda egotea. Adi, presio egiteak ez luke minik eragin behar! Masajea zenbat denboraz egin behar den gogortasunaren neurriak esango du. Bizpahiru minutu nahikoa izan daitezke zenbait emakumerendako. Beste batzuek 20 minutu behar izatea ere gerta daiteke. Presio leungarria egiteko hiru modu daude; azalpen guztiak irudiekin lagunduta *Bebesymas* webgunean aurkituko dituzue.

OHARRAK

LAURA GUTMAN BILBON


Otsailaren 24an hitzaldia egingo du Bilbon Laura Gutman familia terapeutak. *Gure haurtzaro islatuak* izenburupean hiru orduko saioa egingo du argentinarrak, 18:00etan hasita. Izena emateko epea otsailaren 10era arte dago zabalik. Informazio gehiago organizamos.org/lauragutman gunean. Prezioa: 60 euro.

TXALOKA LUDOTEKA

Oñatiko udal ludotekan ate irekien jardunaldia egingo dute gaur, astelehena, eta etzi, eguaztena. Bereziki 2007an eta 2008an jaiotako umeen gurasoei zuzendutako ekimena da. Gainera, berrikuntza interesgarriak proposatzen ditu: jostailuen maillegua aste bukaeretan eta *Gurasoekin jolasean*, besteak beste.

BODY TERMOKROMIKOAK

Merkatuan eskura daitezke dagoneko; umeak sukarra duenean bodyaren kolorea aldatu egiten da. Haurra 38 graduko tenperaturara iristen denean gertatzen da kolore aldaketa. Valentziako ehungintza enpresa batek ateratu du produktu berria Ehungintzako Institutu Teknologikoa den Aitex-ekin elkarlanean.



Rafael Cristobal, berriki argitaratutako liburuarekin. | L.Z.

Rafael Cristobal | Psikiatra

"Umea susmopean egon da beti eta zientziak erakutsi du ez dela egokia"

Heziketaren inguruan ikerketa enpirikoak aintzat hartzen dituen liburua kaleratu du

LARRAITZ ZEBERIO | ARRASATE

Lanpetuta ibili da azkenaldian Rafael Cristobal. Arrasateko kontsultako lanaz gain, bestelako zereginetan ere ibili da. Hemen dugu emaitza: *El niño en la mirada del conocimiento. Una pedagogía de la infancia* liburua. Elkar argitaletxeak banatuko du gurean.

Zer aurkituko dugu zure bigarren liburu horretan?

Dibulgazio liburua da, irakasleei, hezitzaileei eta interesa duten gurasoei zuzendua. Azken finean, kultura humanista duen edonor. Azken urteotan ikerketa enpiriko ugari egin dira haurraren garapenari eta heziketari buruz. Ezagutza zientifiko hori guztia batzea beharrezkoa zen, nire ustez.

Oinarri zientifikoa du, beraz, liburuak?

Bai. Zientzia duela 50 urte hasi zen gai honen inguruan ikerketa enpirikoak egiten eta ordu tik hona lan handia egin da, gehienbat mundu anglosaxoian. Liburuan teoria ezberdinak azaltzen ditut eta laburpentxoak ere eskaintzen ditut egoera ezberdinen aurrean nire ustez nola jokatzeko komeni den azalduz. Gida bat ere badela esango nuke.

Ikerketa zientifiko horiek ustekabeko emaitzak eman dituzte?

Umea susmopean egon da beti. Pentsa, Freud iritsi zen esatera haurra *polimorfo perbertsoa*

zela. Esan egin behar da hori gero! Gainera, heldu inperfektu moduan ikusi dugu umea luzaroan, eta, hala, helduen edukiak sartzen saiatu gara. Nork ez du entzun *La Letra con sangre entra?* Orain badakigu, zientziak erakutsi duelako, umearen adimena ez dela helduona modukoa eta denbora behar duela garatzen joateko. Horretarako, modu egokian tratatu behar dugu. Zientziak erakutsi du, halaber, umeak bizi dituen esperientzien bidez ikasten duela, eta imitazioz. Zuk zaindu ondo umea, ikusiko duzu nola imitatzen zaituen!

50 urte gutxi dira. Zientziak argitu du argitzeko zegoen guztia?

Ez, oraindik asko dago egiteko. Horregatik, zientziak landu ez dituen eremuetara heltzeko psikologia humanistaren teoriara jo dut, eta hori nahikoa ez bada, berriaz, mitoetara (Edipo, Narciso...).

Gurasoendako liburuak edo gida irakurterazagoak argitaratzea da nire asmoa. Euskaraz eta gaztelaniaz egingo ditugu.

Bai. Liburu mardula atera zait, baina benetan uste dut beharrezkoa zela jakintza hori guztia batzea. Hemen daude bilduta nire ibilbide guztian jasotakoak eta badira 35 urte proiektua buruan nuela. Aurreago gida erabilgarriagoak eta irakurterazagoak argitaratzea da nire asmoa. Euskaraz eta gaztelaniaz egingo ditugu.

KULTURA

Mantxola aita-alabek Goya sariaren zatitxo bat Oñatira ekar dezakete

- ▶ Maria Reyesek zuzendutako 'Una caja de botones' film laburrean parte hartu dute biek
- ▶ Otsailaren 13an egingo den Goya sarietarako film labur onenaren izendapena lortu du

ARANTZAZU EZKIBEL | OÑATI

Sara Mantxola eta Aitor Mantxola oñatiarrek Goya sarietarako izendapena lortu duen *Una caja de botones* film laburrean parte hartu dute. 11 urte besterik ez du Sarak eta dagoeneko egin ditu lehenengo pausoak zinemagintzan; hain zuzen, *Una caja de botones* film laburreko protagonista da. Aitorrek, oster, eskarmentu handia du zinemagintzan: argazki zuzendaria da.

"Pozik eta urduri" dago Sara

Casting-era joateko proposamena Sarak egin zion aitari. Aitorrek, harrituta, galdetu zion: "Baina zuk badakizu zer den *casting* bat?" Bada, alabaren burugogorkeriaren

aurrean, baimena eman zion *casting*-ean parte hartzeko, eta Sarak protagonista papera eskuratu zuen.

Goya sarietarako izendapenarekin gustura dago neskatoa, baina aitortu du "urduri" ere badagoela. Etxekoek eman zioten izendapenaren berri: "Etxera iritsi nintzanean 'Zorionak!' esan zidaten. Galdetu nuen: 'Zergatik?'. Eta erantzun zidaten Goyetara iritsi ginela". Saria irabaziko balute poztu egingo litzatekeela dio Sarak, baina ez irabazita ere, pozik dagoela dio, "izendatuta" egon direlako.

Otsailaren 13an Goya sarietan egongo diren ez dakite oraindik, gonbidapenen arabera izaten da eta hori.

Esperientziarekin gustura

Esperientzia polita izan dela dio te aitak eta alabak, nahiz eta hurrengorik izango den galdetuta erantzun zehatzik ez duten. Sarak dio "filmaren gaiaren arabera" izango dela.

Aitorrek alabarekin egoteko izan duen denbora nabarmendu du: "Egun osoa egiten nuen alabarekin: hotelean, grabatzen, afaltzen... alde txarra da hurrengo grabaziora noanean alaba ez dela han egongo!". Errepikatze moduko esperientzia izan da Aitorrendako, "alabak gura badu behintzat", zehaztu du.

Zazpi eguneko filmaketa

2009ko irailean filmatu zuten Maria Reyesen zuzendaritzapean *Una caja de botones*; Medina del Campón (Valladolid) eta Madri-



Sara Mantxola, Oñatiko plazako lorategian hartutako irudian. | A.E.

ESANAK

"Saria irabazi edo ez, pozik nago izendatuta gaudelako"

SARA MANTXOLA | AKTOREA

"Errepikatze moduko esperientzia izan da; gura badu, noski"

AITOR MANTXOLA | ARGAZKILARIA

len izan zen astebeteko filmaketa. Alabak (Sara Mantxolak) aitari (Antonio de la Torre) Erregetarako eskatutako oparia ezin egitea da istorioaren abiapuntua. Antonio de la Torre aktorea ez

zuen ezagutzen Sarak; orain dio "oso jatorra" dela eta asko lagundu diola grabazioan.

Film labur bat Goya sarietarako izendatuta egotea ondo egingo dako lanaren fruitutzat hartu du

Aitorrek, eta gaineratu du beste lehiaketa batzuetarako ateak ere zabaltzen dituela izendapenak.

Otsailaren 13an jakingo da, bada, Oñatira helduko den edo ez sariaren zatitxo bat.



Sara eta Aitor, lantaldearekin. | AITOR MANTXOLA



Aita eta alaba kamerarekin. | A.M.



Sara, Antonio de la Torre eta Maria Reyesekin. | A.M.

Ikusle ez iniziatuendako ere dantza garaikidea dosi egokian

Dantzaz konpainiak lau koreografia eskaini zituen ordubeteko saioan



Björk Duets koreografian maitasun harreman nota ezberdinak irudikatu zituzten. | JOSETXO ARANTZABAL

LARRAITZ ZEBERIO | ARRASATE

Zenbatek dakite dantza klasikoko oinarriko posizioak bost direla? Eta Dantzaz konpainia ballet ikasketak amaitu berriak dituzten dantzariendako plata-forma dela?

Gorputzaren lengoia, indarra, estetika eta espresibitatea argi erakutsi zizkiguten zapatuan Dantzaz konpainiako dantzari gazteek Arrasateko Amaian antzokian. 1.01 ikuskizuna eszenaratu zuten eta 60 bat lagun elkartu ziren dantza emanaldia ikustera. Amaitutakoan ikusleen ahotan entzundakoen arabera, bereziki laburra egin zitzaizen saioa antzerako emanaldiak ikusteko ohiturarik ez dutenei. "Ikusterraza" izan zela esaten entzun genion bat baino gehiagori.

Dantzari oso gazteak

Ordubeteko saioan lau koreografia aurkeztu zituzten Dantzaz konpainiako bederatzi dantzari: *Dis-Connected* (Sophie Antoine), *Ballet 101* eta *Björk Duets* (Eric Gauthier) eta *Torque* (Hilde Koch) koreografiak, hain zuzen ere.

Ballet konpainia berezia da Dantzaz. 2008. urtean sortu zuten Biarritzeko Balleta egitasmoaren inguruan lanean ari ziren hainbat lagunek. Europa osotik

etortzen diren dantzari gazteei profesionalizatorako bidean zubiak eraikitzea du helburu nagusi, eta bertan aritzen diren dantzariak gehienez 22 urte dituzte. Zapatuan Damien Bougas, Raphaël Canet, Anneleen Dedroog, Emmanuel Dobby, Nuria Giménez, Mireia González, Leonor Henriques, Giovanni Insaudo, Anna Jirmanová, Guillermo Millán eta Marine Sanchez izan ziren dantzariak. Guztiek dituzte amaitu berri dantza ikasketak eta mundu profesionalen tartetxo bat egiteko gogor ari dira lanean. "Salto horretan izen eta karre-ra handiko koreografoen eskutik beharrezkoak dituzten baliabideak eta gaitasunak ematea da konpainia honen xedea. Urtebete edo bi urte egiten dituzte gurekin", adierazi du Adriana Pous zuzendari artistikoak. "Esperientzia eszenikoa behar dute dantzari gazteek eta konpainia profesional moduan funtzionatzen ahalegintzen gara. Kontuan hartu behar dugu dantzari baten ibilbide profesionala oso laburra dela; 20 urte ingurukoa, gutxi gora behera".

Emanaldi ikusterraza

Elkarlanean aritu beharko duten bederatzi dantzariaren lehenengo topaketan, ballet klasikoko bost posizioei erreferentzia eginez, umorezko muntaia, giza harremanen alderdi ezberdinak eta inprobisazioan oinarritutako konposizioak ikusi genituen dantza bihurtuta.

Dantzaz konpainiak ekainean aurkeztuko du muntaia berria eta itzuliko da Debagoienara. Gurean, gutxitan izaten dugu ballet garaikideaz zuzenean gozatzeko aukera.

KRONIKA

Torresoroa dantzan Big Band-ekin

MAIDER ARREGI | ANTZUOLA

Plateruena antzokian grabatutako diskoa aurkeztu zuen Arrasateko Big Band taldeak. Funk, jazz eta blues doinu lasaiekin

hasi eta doinu latindarrekin berotu zuten giroa. "Big Band-erako prestatutako errepertorioa egiten dugu. Rocka ere hasi gara sartzen; swin estiloan hasi eta pixkanaka

taldea osatuz doa: gitarra elektrikoekin, doinu latindarrekin eta funkiarekin", azaldu digu Zigor Martinez zuzendariak. *The 8th avenue march* eta *Tall cotton*

abesti lasaiegoekin hasi eta, *Sing sing sing* moduko abesti dantza-garrietaraino salto egin zuten. Amaia Arriaran abeslariaren swin-ak Rita Hayworth aktorearen film bateraino eramán gintuen. *What is Hipp* abesti indartsuaz, Juan Sangrek eta Arriaranek aretoa dar dar jartzea lortu zuten. Torresoroa gainezka, jendea eskalerratan, zutik agurtu zituzten musikariak "beste bat, beste bat"

FITXA

TORRESOROA

ARRASATE MUSIKALEKO BIG BAND

Estiloa: Blues, funk, jazz, latinoa

Non: Antzuola

Eguna: Urtarrilak 21, barikua

Iraupena: Ordu eta 10 minutu

Ikusle kopurua: 130 lagun



Arrasate Musikaleko Big Band taldeari harrera beroa egin zioten antzuolarrek. | JOSETXO ARANTZABAL

oihukatuz. Torresoroa oso barruko aretoa da; sentsazioak bikoiztu egiten dira han. Musikariaren gertutasuna eta ikuslearekiko *feedback*-a nabariak ziren giroan. "Soinu aldetik oso ondo joan da eta ikuslea gertu izatea polita da. Guk jendea animatu zedin nahi genuen eta jendea gustura ikusi dugu". Taldekideak gazteak baina esperientziadunak dira: batzuk ikasleak dira, beste batzuk, aldiz, musika munduan dabilzanak eta profesionalak.

10 urte ospatzeko zuzenekoak

Leioako Big Band taldea izango dugu Arrasaten otsailean. Ondoren Amurriora joango dira arrasatearrak eta Amurriokoak Leioara truke gisa. Informazio gehiago: myspace.com/ambigband.



Jon Maia fin ibili zen bakarkako lanean. | JOSETXO ARANTZABAL

Info7 irratia entzungai dago FM-ko 100.2 frekuentzian

Igor Elortzak Jose Luis Elkorori eskaini zizkion bakarkako hiru bertsoek pilotalekua hunkitu zuten

MAIDER ARREGI | BERGARA

Pilotalekua beteta, bailara osotik etorritako 500 lagun inguruk gozatu zuten Lizaso, Colina, Iturriaga, Elortza, Mendiluze eta Maiaren bertsoekin. Antolatzaileak eta bertso eskolakoak pozik azaldu ziren, Info7 irratia alde urrats handia eman baitzuten. Saretik salto egin eta zuzenean entzun zen saioa FMko 100.2 fre-

kuentzian. Joseba Goikoetxeak denetariko gaiak jarri zituen oholtza gainean: tabakoaren aurkako legea, 27ko greba, AHTko obrak edota Info7 irratia.

Umorea nagusi

Lizasok bere umore fina erakutsi zuen, beste behin. Iturriagak mozorroa gaitzat hartuta, giro ezin hobea jarri zuen azken ila-

rako entzuleekin bat eginda. Ikuslea umoretsu, gogotsu eta bero zegoen. Berotasun hori bertsolari batek baino gehiagok eskertu zuen. Eta nola ez, tabakoaren legeak bat baino gehiago aztoratu zuen. Baina guztiek errespetatu zuten legea eta txantxa giroari eutsi zioten.

Elortzak, Jose Luis Elkorori bakarkako hiru bertso hunkigarri bota zizkion, jakinik saioa jarraitzen ari zela etxetik.

Zapatuan, hilaren 29an, Xarma Danbakako irabazleak eta Never Surrender eta Dirty Brothers talde arrasatearrek kontzertua eskainiko dute Bergarako gaztetxean, Info7 irratiari azken bultzada emateko.

'Katilukadak' txotxongilo ikuskizunak estreinaldi arrakastatsua izan du etxean

M.A. | BERGARA

Bi urteko lanaren ostean, Mikel Ibarzabal bergararrak eta Aitor Ormaetxea zornotzarrak jaso dute ereindako haziaren fruitua. Zabalotegiko txarteldegian "sarrerak agortuta" kartela eskegita, bat baino gehiago kanpoan gelditu zen *Katilukadak* ikuskizuna ikusteko gogoz. Taldeak gaztetxoendako txotxongilo emanaldi bat Zabalotegi moduko areto batean estreinatzen zuen lehen aldia izan zen. Katilu protagonistak areto heldu eta ume guztiak poltsikoratu zituen, bere umorearekin eta bertso saioekin.

Bost teknika ezberdin

Ipuin bakoitza teknika batekin egin dute: eskularruaren teknikaz, barila edo ziri teknikaz, itzalen teknikaz eta fluor kolore bidezko teknikaz –denetan modernoena–. Katilu protagonistaren esketzak, berriz, *Burraku* izeneko teknika japoniarraz egin dituzte. Azken honek bost mila urte baino gehiago ditu. "Gure ikuskizuna egiten bukatu nahi dugu, autonomoak izan gaitezen eta gure argiztatze propioa izan dezagun. Ondoren, ikuskizuna toki guztietara eraman nahiko genuke", kontatu digu Ibarzabalek.




Katilu protagonista sukaldean patata tortilla egiten. | MAIDER ARREGI

goienakluba

Abantailaz betetako kluba!

Opari ederrak zure esku!



Oparitu txartela

► Urtean 48 euro ordainduta askotariko abantailak izango dituzu.

Zozketa bereziak 2011n



Irabaz itzazu 350 €

- 2011rako oparien artean 350 euro zozketatuko ditugu.
- Otsailaren 28a baino lehen bazkide egiten direnen artean egingo dugu zozketa.




Home Cinema zuretako

- 2011n bazkide izaten jarraitzen dutenen fideltasuna sarituko dugu.
- Otsailaren 14an Home Cinema bat zozketatuko dugu bazkide izaten jarraitzeko erabakia hartzen dutenen artean.
- Ezaugarriak dira: Panasonic SC-PT350W DVD Home Theater Sound system.

Tel.: 943 25 05 05 | e-posta: kluba@goiena.com | 2011 urteko bazkidetza: 48 euro.

www.goienakluba.com



EGIN TXOTX! sagardotegietan



Arratzain

Arratzain Zahar baserria
Arratzain auzoa
USURBIL / 943 36 66 63

www.agroturismoarratzain.com / info@agroturismoarratzain.com

Eskaintza

- Sagardotegia, nekazaritza turismoa eta jatetxea.
- Urte osoan irekita.
- Lekua: 120 lagun, eserita edo zutik.
- Sagardo botilen salmenta.
- **“Tolare” sagardotegia**



Beristain

Iturriotz baserria IKAZTEGIETA
607 36 57 43
bergistainsagardotegia@gmail.com
www.begirstainsagardotegia.com

Eskaintza

- Urtariletik ekaina bukaera arte zabalik, sagardoa txotxetik. Zuzeneko botila sagardo salmenta urte guztian. Etxez-etxeko banaketa.
- Sagardotegiko menua. Arkumea burduntzian enkarguz. Afariak asteartetik zapatara, bazkariak eguenetik igandera
- Webgunean sagardotegira bazkidetzeko aukera.
- **“Tolare” sagardotegia**



Iparragirre

Iparragirre baserria / HERNANI
943 55 03 28
www.iparragirre.com

Eskaintza

- Eguaztenetik zapatara gauetz; zapatu eta domeka eguerditan zabalik ere. Beste egunetan kontsultatu.
- Zutik edo eserita.
- Asteburuetan garraio publikoa sagardotegiraino.
- Zuzeneko botila sagardo salmenta urte guztian. “Zabadiz” banatzaile ofiziala.
- **“Tolare” sagardotegia**



Iturrieta

Arraga auzoa / ARAMAIO
945 44 53 85 / 685 72 15 93
iturrietasagardotegia.blogspot.com

Eskaintza

- Egubakoitzetik domekara irekita. Erreserbatuz gero beste egunetan ere bai.
- 80 lagunendako lekua, eserita edo zutik.
- Sagardotegiko menua.
- Bertako sagardoa.



Larre-Gain

Larre-gain sagardotegia
HERNANI
943 55 58 46 / 616 28 78 67

Eskaintza

- Janaria sagardotegiak jartzen du.
- Bakailoa saltsan, aurrez deituta.
- Asteegunetan, gauetan bakarrik zabalik. Egubakoitzetan eta zapatuetan egun osoa zabalik. Domeketan, eguerdira arte zabalik. Astelehenetan, itxita.
- **“Tolare” sagardotegia**



Oiharte

Irukate-gain auzoa (Mutiloa bidea)
ZERAIN
943 50 10 13 / 686 29 91 58
www.oiharte.com

Eskaintza

- 120 lagunendako lekua, zutik edo eserita.
- Martitzenetik zapatara gauetz. Egubakoitz, zapatu eta domeka eguerditan zabalik.
- Sagardoa botilan salgai.
- Sagardotegiaz gain nekazaritza turismoa.
- **Urtarrilaren 28an irekiera: Lizaso, Zubeldia eta trikitilariekin.**



Rezola

Santio Zeharra ASTIGARRAGA
608 14 33 32
rezolasagardotegia@gmail.com / www.rezolasagardotegia.com

Eskaintza

- Astigarraga erdigunetik 100 metrotara.
- Urte osoan txotxetik zabalik.
- Zutik edo eserita.
- Berezitasunak: arkumea eta txerrikumea burduntzian (enkarguz).
- Igande arratsaldetan eta astelehen eguerditan itxita.
- **“Tolare” sagardotegia**



Unzueta

Zabola z/g
ARAMAIO
945 44 50 95

Eskaintza

- Sagardoa txotxetik urte osoan.
- Sagardotegiko menua: 29 €
- Berezitasuna: txuleta.
- 70 lagunendako tokia.
- Parking eta terraza.



Zabala

Garagartza baserria / ADUNA
(Andoain eta Billabona artean)
943 69 07 74

Eskaintza

- Urtariletik maiatz hasiera arte zabalik.
- Egubakoitz, zapatu eta domeka eguerditan enkarguz.
- Bertako janaria.
- Gipuzkoako Foru Aldundiak antolatutako Sagardo Lehiaketetan, 2002an finalistak eta 2004an, 2006an eta 2010ean irabazleak.
- Botilak salgai urte osoan.
- **“Tolare” sagardotegia**

GURE MUSIKA TALDEAK

UNE



Une taldeko kideak, hirugarren lana aurkezteko atera zuten estudioko argazkian. | JESSICA DEL CAMPO

"Abesti zaharren berregite lanak hausnarketa egiteko balio izan digu"

- ▶ Birmoldatutako zazpi abestik eta berriak diren hiruk osatzen dute lana
- ▶ Hurrengo zuzenekoak: Bergaran, barikuan; eta Larrabetzun, zapatuan

MAIDER ARREGI | ARRASATE

Bi lan *rockero* eta *metaleroen* ostean, arima biluztu eta lan berria aurkeztu digute Une taldeko mutilek: *Akustikoak eta bestelako unek*. Rober (gitarra) Karmelo (baxua), Ruben (gitarra) Xabier (bateria), Aitor (ahotsa), Charles (saxoa) eta Anderrek (teklatura) osatzen dute taldea.

Akustikoan bueltatu zarete jendaurrera; zergatik?

Hirugarren lana espeziala izatea nahi genuen. *Hegalik gabe hegan* akustiko inprobisatu baten aurkeztu genuen eta guretzako erron-

ka izan zen. Akustikoan egin nahi genuela hirugarren lana argi geneukan. Aurreko diskoetako kantuei omenaldia egin nahi izan diegu. Abestien berregitea hausnarketarako bidea izan da guretzako. Disko honekin ikasi egin dugu.

Hasierako ideia erraza lan neketsu bilakatu da, ezta?

Teorian sinplea izan zitekeenak nortasuna izatea gura genuen. Hala, ñabardura asko izan behar zuen. Instrumentu asko sartu nahi genituen. Kantu akustikoak eta erdi akustikoak daude.

Abestien jatorria bilatu nahi izan duzue disko akustiko honekin.

Aurreko diskoetako zazpi kantu eta berriak diren hiru kantu jasotzen ditu lanak. Oreak bilatu nahi genuen. Aurretik egindako abestiak eguneratu eta berriekin freskotasuna eman diogu diskoari. Konturatu gara berregindako abestiak abesti berri bilakatu ditugula. Ez dira bertsio soilean gelditu. Kontzertutik kontzertura abestiek eboluzioa izaten dute eta aldatzen joan dira. Kontzertu dinamikoak egitea gustuko dugu eta, hain justu, zuzenean kantu

berriren bat sartzen saiatzen gara zuzenekoetan jendaurrean jolas egiteko.

Arlo tekniko asko zaintzen duzue.

Beti dago hobetzeko, baina akustiko aldetik Rober eta Rubenek lan handia egin dute; baita bateriak eta baxuak ere! Saxoa eta teklatura kanpotik etorri dira eta akustikoan primeran moldatu dira. Kalitatezko musikariak badituzu, kalitatezko musika egiten duzu. Saxofoiarekin Charles Cooper artista hutsa da. Jazzaren eta hip-hoparen mundutik dator eta inprobisatzeko bide ematen digu. Laukote izatetik zazpi izatera pasa gara.

Ze harrera izan du jendaurrean?

Durangoko Azoka dugu erreferentzia eta gustura sentitu genuen jendea. Unek 6 urtean rock-metal doinuak eskaini dizkie jarraitzaileei eta ez genekien nola hartuko zuten bestelako estilo akustikoa. Erantzun ezin hobea jaso dugu eta indarra ematen digu aurrera egiteko. Konplizitatea ikusi dugu eta pozik gaude; etorriko dira beste une batzuk.

Nolako diskoa etorriko da?

Zeinek daki! Abesti batzuk badi-tugu eginda. Ukitu akustikoa eta hasierako Uneren esentzia izango du laugarren lanak.

Zer daukazue esku artean?

Akustikoa ondo moldatzen den aretoetan jo nahi dugu. Hilaren 28an Bergarako Tartufon eta 29an Larrabetzun izango gara. Informazio guztia www.unekin.com webgunean.

ZERTZELADA



AKUSTIKOAK ETA BESTELAKO UNEAK

Estiloa: Pop-rocka...

Egilea: UNE.

Argitaletxea: Baga-Biga.

Iraupena: 32,7 minutu.

Giroa landuta, mimo eta zehaztasunarekin

atzen taldea desegin zutenetik, Aitor Uriartek metala eta popa, intentsitatea eta melodia, biak uzartu ditu, emaitza oso onak lortuta; lehenengo Sen taldearekin eta gerora UNErekin. UNEren hirugarren disko honetan, baina, bestelako jauzia egin dute; eta kantu zahar batzuk eta beste batzuk, argitaragabeak, modu akustikoan biluztu dituzte. Mimo eta ñabardura handiz interpretatu dituzte kantuak, eta, gitarren lan handiaz gainera, nabarmentzekoak dira teklaturek eta saxoak gehitu dituzten giro xume baina barnerakoiak. Bestalde, hitzetan adinarekin edo atzera-aurrera begiratzearekin lotutako hausnarketa sakona dago, heldua.

IKER BARANDIARAN

1. ETXEBIZITZAK

101. SALDU

Aramaio. Aukera paregabea. 2001eko etxebizitza salgai. 70 m². Garaje itxia. Ganbara. Zuzenean bizitzera sartzeko moduan. Aita gabirel kalean. 177.300 euro. 656-73 13 21

Aramaio. Familia bakarrekoe etxea salgai 8.000 metro koadroko lursailarekin. Prezio murriztua. 636 94 81 31

Bergara. Martzial Agirrekalean 105 metro koadroko etxebizitza salgai. Laugarren solairuan. Sukaldea, egongela, lau logela eta bi bainugela. 30 metroko garajea eta 11 metroko ganbareekin. 608 15 45 25

Durango. Alde zaharra. 71 m². Kanpoaldea begira. Altzariz hornituta. 2 logela. Egongela. Sukaldea. Komun bat. Guztiz berriztuta. Kanpotik (2006): fatxada, atalondoa, eskailera eta teilatua. Barrutik (2007): parketa (elondoa), sukaldea (fagor elektrotresnak eta junkers galdera), gresa, berokuntza (gas naturala), kristal bikoitzeko leihoak, ate blindatua. Berehala bizitzera joateko aukera. 215.000 euro. Interesatuok deitu zerbaki honetara: 607-71 53 53

Durango. Atiko zoragarria salgai durangoko alde zaharrean. Duela urte eta erdi erabat berriztuta. Erabat jantzia. 2 logela, egongela, sukaldea eta komuna. Kapritxosoa. Etorri ikustera! 659-42 58 90

Eskoriatza. 47 m²-ko apartamentua salgai. Logela bat. Sukaldea jantzia. Garajearekin. Hiru urteko eraikuntza. 21.000etatik aurrera deitu, mesedez. 650-95 56 44

Oñati. 60 m²ko etxebizitza salgai San Lorentzen. Bi logela, komun bat eta sukalde-egongela. Jantzia eta berriua. 192.000 euro. Deitu 20:00ak eta 22:00ak artean, mesedez. 699-78 47 49

Oñati. Erdialdean 110 metro koadroko duplexa salgai. Sukaldea, egongela, lau logela, bi bainugela eta garbigela-trastelakua. Uso egoera onean dago. Garajea aukeran. Harremanetarako idatziz mezuazubia@yahoo.com helbidera edo deitu telefono zerbaki honetara: 659 53 87 62

Oñati. Kalebarrian 71 m²ko etxebizitza salgai. Bi logela, sukaldea, egongela eta komuna guztiz hornitua. Patio erabilgarria, ganbara eta garaje itxia. Prezio ona. Interesatuok deitu zerbaki honetara: 665-71 77 98

103. ERRENTAN EMAN

Arrasate. Hiru logelako etxebizitza ematen da errentan altamiran, Jose Luis inarra kalean. Interesatuok deitu zerbaki honetara: 639-96 01 21

Debagoiena. Etxebizitza bi ematen dira errentan. Bata aramaion eta bestea arrasaten. Interesatuok deitu zerbaki honetara: 647-22 09 38

Elorrio. 50 m²-ko atiko berria alokagai Elorrian. Logela, komuna eta sukalde-egongela. Igo-gailua ere badu eta prest dago bizitzera sartzeko... Oso polita. Interesatuok deitu zerbaki honetara: 606-04 38 35

Etxarri-aranatz. 90 m²ko pisu bat alokatzen da Etxarri Aranatz. Berogailuarekin eta bizitzera sartzeko prest. Oso polita. Prezio interesgarria. Interesatuok deitu zerbaki honetara: 689-15 14 06.

Oñati. San Lorentzen etxebizitza ematen da errentan. Hiru logela, bi bainugela, egongela eta sukaldea. 650-56 62 06

Tolosa. Jaka erdigunean, altzariz guztiz hornituko apartamentua salgai. Garaje eta trasteroekin. Interesatuok, deitu 667-49 25 57 telefono zenbakira.

104. ERRENTAN HARTU

Arrasate. Etxebizitza errentan hartu nahi dut Arrasaten, gehiezin 550 euro ordainduta. Interesa duzenok deitu telefono honetara 667 84 47 94 eta Nabizengatik galdetu

Bergaran. Etxebizitza errentan hartuko nuke. 2 edo 3 logelarekin. Interesa duzenok deitu telefono zenbaki honetara: 677 77 22 31

105. ETXEA OSATU

Aretxabaleta. Logela ematen da errentan sukaldea eta egongela erabiltzeko eskubidearekin. Interesatuok deitu zerbaki honetara: 695 72 79 55

Arrasate. Logela ematen da errentan, sukaldea eta egongela erabiltzeko eskubidearekin. Interesatuok deitu zerbaki honetara: 666-68 00 04

Arrasate. Etxea osatzeko gela bat edo bi ditugu errentan. 630-71 35 83

Arrasate. Pertsona bat behar dugu Erguin aldean etxebizitza osatzeko. Ignacio. Interesatuok deitu zerbaki honetara: 670-59 73 62

Arrasate. Logela ematen da errentan arguin auzoan. Hilean 280 euro, gastuak barne. Interesatuok deitu zerbaki honetara: 648-19 10 38

Bergara. Logela ematen da errentan, sukaldea erabiltzeko eskubidearekin. Deitu 650-62 12 94/943-08 22 60 telefono zenbakietara.

Bergara. Etxebizitza osatzeko pertsona behar da, sukaldea erabiltzeko eskubidearekin. Bolun. Interesatuok deitu zerbaki honetara: 670-85 86 68

Bergara. Bi logela ematen dira errentan bolun, prezio onean. Interesatuok deitu zerbaki honetara: 645-67 79 75

Bergara. Ozaetan, etxea osatu nahi nuke. 606-63 19 91

Donostia. Donostiako amara auzoan, topo eta autobus geltokiararte, gelabat alokatzen dute neska euskaldun batentzat, etxe partekatuta batean. Berdin ikasle edo langile. 619-77-28-02 edo utzi mezua honako telefono honetan: 943-65 16 92.

Muxika. Muxika. Gela handi bat errentan ematen dut armarioduna, txalet adosatu batean. Lorategi eta aparkaleku propioak ditu. Interneteko eta kableko teledistribuzioa dauka. Gasoleo kalefakzioa etxe osoan. Sukaldea (guztiz hornitua) eta egongela-jangela (telebistaduna) erabiltzeko eskubidearekin. Zonaalde lasaia eta ondo komunikatua. Gernikatik hiru km-ra eta gernikarako eta mungiarako autobus geltokitik 50 m-ra dago. 280 euro gastuak barne telefonoa 685-73 27 90

Oñati. Etxebizitza osatzeko pertsona bat edo bi behar dira. Interesatuok deitu 18:00etatik aurrera deitu: 653-74 87 51.

2. GARAJEAK

203. ERRENTAN EMAN

Etxarri-Aranatz. Garaje partzela alokatzen da Etxarri-Aranatz plaza aldean. Deitu 652-26 28 18 telefonora.

ZURE IRAGARKIAK

IRAGARKIA JARTZEKO BIDEAK:

943 25 05 05 | sailkatuak@goiena.com | www.goiena.net/sailkatuak

Egueneko 16:00ak arte jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.

Ordu horretatik aurrera ez da onartuko aldaketarik eta ezta iragarkia bertan behera uzterik ere.

GOIENAK ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

ORDAINTZEKO ATALAK DIRA:

- Etxebizitza Saldu/Errentan. Lokala Saldu/Errentan. Garajea Saldu/Errentan. Motorra Saldu/Errentan.

Egubakoitzean + Astelehenean: 21 € (BEZ barne).

Astebete baino gehiagoz argitaratu nahi izanez gero, prezio bereziak aplikatuko dira.

- Profesionalen moduluak.

Modulu bakarria egubakoitzean EDO astelehenean: 21 € (+BEZ).

Egubakoitzean + Astelehenean: 28 € (+BEZ).

1. ETXEBIZITZAK

101. Saldu
102. Erosi
103. Errentan eman
104. Errentan hartu
105. Etxeak osatu
106. Bestelakoak

2. GARAJEAK

201. Saldu
202. Erosi
203. Errentan eman
204. Errentan hartu
205. Bestelakoak

3. LOKALAK

301. Saldu
302. Erosi
303. Errentan eman
304. Errentan hartu
305. Bestelakoak

4. LANA

401. Eskaintzak
402. Eskerak
403. Bestelakoak

5. IRAKASKUNTZA

501. Jaso
502. Eman
503. Bestelakoak

6. MOTORRA

601. Saldu
602. Erosi
603. Alokatu
603. Konpondu
604. Bestelakoak

7. ANIMALIAK

701. Saldu
702. Erosi
703. Eman
704. Bestelakoak

8. DENETARIK

801. Saldu
802. Erosi
803. Eman
804. Hartu
805. Irakatu
806. Galdu
807. Aurkitu
808. Bestelakoak

9. HARREMANAK

901. Agurrak
902. Harremanak
903. Deiak
904. Bestelakoak

10. RELAX

Debagoienetik kanpoko iragarkiak, web gune honi esker eman dizkizugu: **iragarkilaburrak.com**

3. LOKALAK

303. ERRENTAN EMAN

Iurreta. Pabiloia alokagai arriaundio industrialdean. 150 m² beheko solairua. 120 m² goiko solairua. Interesatuok deitu 657-79 45 52 telefono zenbakira.

Lazkao. Lazkaon karabana gordetzeko lekua alokatzen da. Interesatuok deitu 629-24 70 30 telefono zenbakira.

4. LANA

401. ESKAINTZAK

Oñati. Emakume edo neska behar da arratsalde hiru ume euskaldun zaintzeko. Deitu lanegunetan 13:00etatik 16:00etara edo 20:00etatik aurrera. 665 71 22 15

Debagoiena. Emakume euskaldun bat behar da emakume heldu bat zaindu eta etxeko lanak egiteko. 696-46 03 85

BERGARA

Esperientziadun zerbizaria behar da tabernan.
695 78 85 55

402. ESKAERAK

Aizarnazabal. Adiskide bertso eskolako kideok ametsen fabri-

OÑATI

Irakaslea behar da akademian.
12-13 ordu astean arratsalde.
gaintuak@gmail.com

kaÈ izeneko ipuin antzeztua daukagu martxan. Antzerki hau 4-12 urte bitarteko haur eta

JENDEA BEHAR DA

Gurekin lan egiteko jendea behar dugu. Estetizistak, makillatzaileak, fisioterapeutak, osteopatak, nutrizionistak eta abar.
686 67 34 66

gaztetxoei zuzendua dago eta areto txiki eta ertainetan egiten ari gara. 50 minutuko iraupena du eta bertsoa, umorea, suspensea eta magia ditu oinarri. Mikel: 645-71 85 78

Arrasate. Emakume euskalduna gertu orduka plantxa zein garbiketa lanak egiteko edo ume eta nagusiak zaintzeko. 699-54 17 27

Arrasate. Bergara edo Arrasate. Mutila gertu sukalde laguntzaile, zerbizari, garbiketan edo nagusiak zaintzen jarduteko. Esperientziaduna eta legezko paperekin. 634-84 41 94

Arrasate. Bergara edo Arrasate. Neska gertu orduka lan egiteko sukalde laguntzaile edo garbiketa lanetan. Nagusiak zaintzen ere bai, etxean bizi izateko aukerarekin. Esperientziaduna. Legezko paperekin daukat. 659-37 41 95

Anoeta. Emakume euskaldun bat naiz, eta arratsalde tolosaldean lan egiteko prest nago. Edozein lan mota egiteko prest nago. Harremanetan jartzeko: 626-71 48 07.

Azpeitia. 20 urteko neska euskalduna, haurrekin lanean esperientziaduna bai begirale moduan, zaintzaile moduan... Arratsalde haurrak zaintzeko prest egongo nintzateke. Interesatuok deitu zerbaki honetara: 606-42 64 14

Bergara. Orduka lan egingo nuke. Geriatria titulua daukat. Esperientziaduna. Deitu 650-62 12 94 /943-08 22 60 telefono zenbakietara.

Bergara. Neska bergararra gertu etxeko lanak egiteko. Interesatuok deitu zerbaki honetara: 943-76 28 12

Debagoiena. Emakumea gertu ile-apaindegian lan egiteko edo garbiketa zein nagusien zainketarako. Interesatuok deitu zerbaki honetara: 619-23 37 30

Debagoiena. Gizona gertu edozein lan egiteko. Interesatuok deitu zerbaki honetara: 646-27 70 46

Debagoiena. Gizona gertu eraikuntzan jarduteko (erakuntza ofiziala naiz) edota garbiketa lanetarako. Interesatuok deitu zerbaki honetara: 639-41 68 38

Debagoiena. Mutila gertu gabonetan edozein lanetan jarduteko. Interesatuok deitu zerbaki honetara: 654-98 69 14

Debagoiena. Neska gaztea gertu lan hauetarako: zerbizari (hiru urte eta erdiko esperientzia), garbiketa lanak (etxeak, atariak eta abar) eta ume zaintzaile. Interesatuok deitu zerbaki honetara: 664-37 49 85

Debagoiena. Neska gaztea, lanerako gogo handiz, gertu etxeko lanak egin, ume edo nagusiak zaindu edota beste-lako lanetan jarduteko. Ana maria. Deitu 943-79 90 21 edo 620-83 59 50 telefono zenbakietara.

Debagoiena. Emakumea gertu lan egiteko, garbiketa lanetan, sukalde laguntzaile moduan edo pertsona nagusiak zaintzeko. 645-67 82 24 edo 943-08 11 07.

Debagoiena. Emakume arduratsua gertu ume eta nagusiak zaindu edo orduka garbiketarako egiteko. Interesatuok deitu zerbaki hauetara. Finkora arratsalde edo gauze deitu, mesedez. Deitu 943 71 53 74 edo 695 73 87 95 telefono zenbakietara.

Debagoiena. Garbiketa lanak zein pertsona nagusien zainketa lanak egiteko gertu nago. Posible balitz bergaran, baina auto propioa daukat bailara osoan mugitzeko. Gilberto da nire izena. 654-24 13 27

Debagoiena. Gazte arduratsua, paperekin eta gidatzeko baimenarekin lan egingo luke. Interesatuok deitu zerbaki honetara: 677-77 22 31

Debagoiena. Soldatzaile, margolari, mekanikari edo mendietan lan egiteko gertu. Deitu 645-67 82 24 edo 943-08 11 07 telefono zenbakietara

Debagoiena. Emakumea gertu garbiketa lanak egiteko, umeak zaintzeko edo nagusiekin paseatzeko, 13:30etik 19:30era. Interesatuok deitu zerbaki honetara: 677-81 10 00

Debagoiena. 27 urteko mutil gaztea nahiz eta lana bila nabil, edozein motatakoa, sukaldean eta obretan zein margotzen esperientzia handia daukat, baita hortuetan ere. Pare bat ordu badira ere behar bainago. Deitu 689-68 56 81 edo 606-74 42 37 telefono zenbakietara.

Debagoiena. Mutil gaztea gertu auto-edo kamoi-gidari, eta mekanikari lanak egiteko. Beste edozein lan egiteko ere gertu. (Juan) 671-15 97 13

Debagoiena. Neska edozein lan egiteko prest. Interesatuok deitu zerbaki honetara: 600-81 99 34

Durango. Asteburuetarako lan bila nabil durangon edo bilbon. Erreferentzia onak. Interesatuok deitu zerbaki honetara: 699-77 57 21.

Durango. Ileapaintzailea durango eta inguruetan lan egiteko prest. Interesatuok deitu zerbaki honetara: 600-66 64 17

Durango. Masajak etxeko, durangaldean. Etxetik mugitu gabe zure gustuko hantekako igurtziak (hantekako erreflexologia), masaje lasaigarriak zein terapeutikoak emandogizkizut. Sesioa: 10 euro (40 min gutxi gorabehera). Sesio berezia (buru eta aurpegiko masajetxoak barne): 15 euro (ordu bete gutxi gorabehera). Luis mari. 606-26 62 44. Mesedez, aurretiaz deitu (egun bat lehenago, gutxienez)

Durango. Asteburuetarako lan bila nabil, tabernan lan egiteko edo beste edozein lanerako. Kotxea daukat. Interesatuok deitu zerbaki honetara: 656-75 08 08

Zarautz. Gizon euskalduna naiz, lan egiteko prest nago, edozein lanetarako. Interesatuok deitu zerbaki honetara: 658-73 08 08

Zarautz. Gizon euskalduna naiz, lan egiteko prest nago, edozein lanetarako. Interesatuok deitu zerbaki honetara: 658-73 08 08

KAROSTI INMOBILIARIA

Ibargarai 3 • BERGARA
Tel. / Faxa: 943 76 97 97
www.inmokorosti.com

ETXEBIZITZAK SALGAI

Bergara:

- Masterreka 92 m². 237.399
- Masterreka. 88 m². Igo-gailuarekin.
- Artekale 40 m². Berritua.
- Irizar pasealekua 70 m². Igo-gailuarekin.
- Zabalotegi 60m². Oso ondo
- Mekolalde 110 m². 90.000
- Osintxu. 84 m². Igo-gailuarekin. 153.258
- Ibargarai 54 m². Garajearekin.
- Lorentxoko 73 m². Eraikitako.
- Burdinarte 53 m². Prezio ona.
- Matxiategi 65 m². Igo-gailuarekin.
- Ibarra 47 m². 146.888
- Bolu 96 m². Garajearekin.
- Simon Arrieta 70 m². Prezio ona.
- Zabalotegi 54 m². 154.761
- Aranerreka 80 m². 189.319
- San Lorentzo 68 m². Berritua.
- Herri Lagunak 52 m². Prezio ona.
- **Etxebizitza berrien eraikuntza Martokan, Maduran, San Pedron, Zubiaurren eta Bidekurutzetan.**
- Artekale. Logela bat. Berritua.
- GARAJEAK SALGAI Ozaetan. Aukera ona.

Antzuola:

- Buzintzuri, Sagasti, Antigua, Zurrategi, Beheko auzoa, Ibarre auzoa, San Josepe, Aiera eta Errekalde. Etxe onak.
- Herriko plaza 95 m². Oso etxe ona.

Elgeta:

- **AUKERA.** Etxebizitza adosatuak salgai Elgetan. Lehen mailako materialekin. Eraikuntza bukatua.
- **PREZIO EZIN HOBEAK:** 249.210 tik hasita.
- **Eraikuntza berriak Torrealdean. 186.805 €tik aurrera.**

Soraluze:

- Sagar Erreka, Rabal, Atxuri eta Rekalde. Etxe onak.

Deba Garaia Inmobiliaria

Telefona Aranzadi 2
T: 943 76 21 80 F: 943 76 06 37

ETXEBIZITZAK SALGAI

BERGARA

- Arizuri, 97 m², garajearekin.
- Aranerreka, 80 m², oso ondo. Prezio ona.
- Matxiategi, 72 m², eguzkitsua. Prezio ona.
- Zabalotegi, 54 m², eguzkitsua, oso ondo.
- Bolu, 103 m², oso eguzkitsua.
- Burdinarte, 104 m², oso ondo.
- Ibargarai, apartamentua, 40 m², berria, garajea aukeran.
- Justo Garate, 80 m², oso ondo.
- Herrilagunak, 60 m².
- Martoko, 87 m², ondo, garajearekin.
- San Pedro, 88 m², ondo.
- Ibargarai, 80 m² oso ondo eta eguzkitsua.
- Koldo Eleizalde, 87 m² oso ondo.
- Zabalotegi 80 m², eguzkitsua, berritua.
- Eloorregi 70 m², terrazarekin, eguzkitsua, oso ondo.
- Toki Eder plaza, 98 m², oso ondo.
- Simon Arrieta, 57 m², terrazarekin.
- Artekale, berritua. Prezio onean.
- Zubieta, 125 m², terraza eta ortuarekin.
- Zabalotegi, 50 m², berritua. Oso eguzkitsua.
- Iparagurre, 190 m².
- San Antonio, 65 m², eguzkitsua.
- Masterreka, 46 m², eraikuntza berria.
- Etxebizitza berrien eraikuntza Maduran, San Pedron, Masterrekan, Zubiaurren, Bidekurutzetan, Zubietan, Martokan eta San Lorentzen.
- San Lorentzen aukera ona.
- Basarte. 69 m². Oso ondo.
- Toki Eder plaza, 54 m². Apartamentua. Oso ondo.
- Artekale, 48 m². Apartamentua. Oso ondo.
- Arizuri, 90 m². Terrazarekin. Oso ondo.

SORALUZE

- Baltegieta, 83 m², berria.
- Sagarerreka, 58 m², aukera ona.

ANTZUOLA

- Sagasti auzoa. Duplexa garajearekin. Oso ondo.
- Sagasti auzoa. Garajearekin. Oso ondo.

5. IRAKASKUNTZA

501. JASO

Arrasate. Gitarra eskolajaso-ko nituzke arrasaten. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 657-717482

502. EMAN

Arrasate. Neska euskalduna, ekonomian lizentziaduna, eskola partikularrek emateko gertu. 679-977646

Arrasate. Neska gazte euskalduna lehen hezkuntzako ikasleei ikasketetan laguntza emateko prest. 616-327308

Arrasate. Eskola partikularrek ematen dira. Goimailako ingeniari industriala. Matematika, fisika, kimika, teknologia, marrazketa... Maila guztiak, unibertsitatea barne. 630-713583

Azpeitia. Laguntza behar duten ikasle edo gurasoek dei dezate-la 615-793770 telefonora.

Azpeitia. EGA-ko azterketarako zein beste hizkuntza eskakizunetako azterketetarako jendea prestatzen dut. Euskararen irakuntzan esperientzia dut. Euskaltegiko irakaslea naiz. Gipuzkoan barrena mugitzeko prest nagoa. 4.H.E. daukat. 645-718578

Bergara. Goizez etxera joanda ingeleseko eskolak ematen ditut. Gurasoei zuzendutako eskolak, ohiko maila lortzeko. Pazientzia handia daukat. 679-740061

Bergara. Ingeleseko eskola partikularrek ematen ditut. Maila guztiak. Azterketak gertatzeko ere bai. Interesatuok deitu: 618-913289

Berriz. 2. Batxilergoko ikasle bat, laguntza eskolajaso emateko prest (ingelese, matematika...). Bakarka zein taldeka. Ingeleseko titulua eta atzerriko esperientzia daukat. Deitu konpromisorik gabe: 676-871929.

Debagoiena. Eskola partikularrek. Lehen hezkuntzako irakaslea eskola partikularrek emateko prest. Rakel. 665-703783

Donostia. Klase partikularrek lehen hezkuntza eta dbhko ikasleentzat. Esperientzia handiko irakaslea, heziketa berezian diplomaduna eta gizarte eta kultur antropologian lizentziaduna. Behar izanez gero, jarri nirekin harremanetan: 628-041526.

Durango. 4. mailako telekomunikazio Ingenieritzako ikasle euskalduna Batxilergoko eta DBHko klaseak Durangon emateko prest. Espezialitatea matematika klaseetan. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 635-746176

Gitarra eskola partikularrek Durangon. Gitarra eskola partikularrek durangon. Elektrikoa, akustikoa, rocka, bluesa, jazz, funka eta abar. Eskalak, akordeak, eritmoa, teknikak, inprobisazioa, irakurketa... Interesatuok deitu zenbaki honetara: 650-172285

Gasteiz. Ingeleseko aparteko eskolak gasteizko alde zaharrean edo etxean. Zientzietan eta itzulpen gintzan lizentziaduna naiz; dbh-ko, batxilergoko, lanbide heziketako eta eredu hirueleduneko mailak ematen ditut. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 650-807672.

Villabona. Ingeleseko klaseak ematen dira Gipuzkoa mailan. Taldeka edo bakarka. Maila ezberdinak. Irakasle tituluduna. 664-160268 continental56@hotmail.com

Zarautz. Euskarako edozein hizkuntza eskakizun (EGA eta 4. H. E. Barne) atera nahi duen orori eskola partikularrek emateko prest. Gipuzkoa osoan. Euskaltegiko irakaslea naiz, eta 4. H. E. daukat. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 645-718578

Zarautz. Lehen eta bigarren hezkuntzako ikasleei klase partikularrek emateko prest, edozein arlo. Gipuzkoa osoan airtzeko prest. Irakasle moduan esperientzia. Euskaltegiko irakaslea. Irakasle titulua eta euskarako laugarren hizkuntza eskakizuna. 645-718578.

6. MOTORRA

601. SALDU

Opel Vectra GTS 2.2 DTI 16V autoa salgai. 2004koa. 107.000km. IAT 2012ra arte pasatuta. 6.400 euro. Xabier. 647515254

Renault Laguna. Grand Tour 1.9DCI. 130 ZP. 2007koa. 88.000km. Extra guztiak. Egoera oso onean. 10.800 €. 652723583.

Vw multivan 2500 tdi salgai. Vw multivan 2500 tdi salgai 15000 euro negoziagarriak. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 647-919356

Vw transporter 2.5 tdi. Motor mekanika ona eta duela gutxi eguneratua; distribuzio korreak, enbrage kit, rotulak, gurrpil berriak etab tailerreko lanen eta piezen faktorekin. Turismo ibilgailu gisa, urteko ibilgailu azterketa egiten zaio. Ekipamendua: atzoke eserleku ohea egiten da eta banakako eserleku bat hozkailuarekin eta kopilotuarena giraz bueltatzen dena, bigarren bateria, mahaia, leiho tintatuak kortinekin, txirriak eramateko carry bike euskarria ia berria etab. Aukera ona aisialdirako zein lanerako. 649-983490.

Yamaha jog scooter bat salgai. Yamaha jog motorra salgai. 2.000km. lata pasatuta. Ezer aldatu barik, dena originala. Beti egon da garajeen. Idatzi mezu bat stratokaster@gmail.com helbidera edo deitu 650-172285 telefonora.

802. EROSI

Bigarren eskuko autoa erosiko nuke. Bigarren eskuko kotxe txiki bat bilatzen ari naiz. 606-760412.

7. ANIMALIAK

701. SALGAI

Astoa salgai. Urte biko asto arra, etxean jaio eta hazitakoa. Txipajarrita. 656-772994

Biindioilarekologiko salgai. Bi indioilar ekologiko salgai. 18-20 kiloak. 200 euro. 669-416946

Zaldi arabiarra eta moxal emea salgai. Zaldi arabiarra eta moxal emea salgai, euren dokumentazioarekin. Interesatuok, deitu zenbaki honetara: 675-708574

703. EMAN

Artzain-txakurra 4 urte dituen artzain-txakurra oparitzen da, ezin dugulako zaindu. 615-732289

Cocker zuri-beltza. Cocker zuri-beltza ematen da Arrasaten. 5 urtekoa. Emea. Ondo hezitakoa. Oso polita. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 637-726673

Hamsterkume errusiarrak opari. Hamsterkume errusiarrak opari. Etxean jaioak, 2 hilabete basterik ez. Oso ondo zainduta. Interesatuok deitu 943-790952 edo 600-770556 telefono zenbakietara.

Katuak Gasteiztik. Katu abandonatuak kale gorritik atera, zaindu eta pertsona arduratsuei bakarrik ematen dizkiegu. Benetan maitagarriak eta ondo hezitua; bizitza ezituko dizute, dudu barik. Gasteizen gaude, baina beste lekuetara ere eramaten ditugu. Gure jarduerazagutzeko sartu www.esperanzafelina.com webgunean edo deitu: 650-807672.

Txakur oso polita ematen da opari. 11 hilabeteko txakur meztizoa da. Setter gorputzarekin baina golden retrieverren kolorearekin. Oso polita eta maitagarria. Oso obediente. Oparitzen da ezin dugulako eduki eta pena handiz oparitu behar dugu. Bakarik ondo zain dezakeen pertsona bati emango diogu. Umeekin egon da beti. 679-232793

704. BESTELAKOAK

Katua Aramaion. Katu eme txuria galdu da. ikusi edo aurkitu baduzu mesedez deitu telefono hauetara. Eskerrik asko. 699407335 edo 669153658

Katua galdu. Katu zuri-beltza galdu zen zapatuan, urtarilaren 15ean, Arrasaten. Begi horiak dauka. Aurkitu edo ikusi baduzu, deitu mesedez. Deitu 638014698 telefonora.

8. DENETARIK

801. SALDU

Aulkia eta kapazoa. Arrue. Arrue derby modeloa. Etxerako sehaska, koltxoi eta guzti, eta bidaiatzeko sehaska. Komun musikala. Dena 250 euroan. 652-748582.

Biohe salgai, koltxoi eta somierarekin. 1,5 neurrikoa. Gau-mahaia eta idazmahai, apalekin. 650626178.

Bikien karroa salgai. Aulkitxoak, kapazoa, maxi-cosia eta bakoitzaren zakutxoak barne. 669-081882 943-797675

Bizikleta salgai. Conor bizikleta salzten dut. Egoera onean, bizikleta oso ona omen da ta garezti baina saltzea beharrezkoa dut. 606744237 edo 689685681

Egongelako aitzariak. Estilo klasiko-rustikoa. Armairua, ontzitegia eta erdiko mahaioak. Egoera oso onean. Debagoienan. Interesatuok deitu zenbaki honetara eta galdetu Anegatik 653704547.

Errepideko bizikleta salzten dut. Orbea Onix. 2009koa. Karbonozko tijaduna, 54 neurrikoa. Shimano 105 aldagailuarekin eta Compact sistemarekin. Deitu 645005681 telefono zenbakira.

Eskiatzeko botak salgai. Estreinatzeke. Nordica etxekoa, Easy Move SX modeloa, neskendako, 24,5 neurrikoa. Prezio interesgarria. Deitu 626646334 telefono zenbakira.

Gitarra akustikoa eta midi teklatura salgai. Takamine (G-series 530 etc... Urdina) salgai, berri-berria eta gutxi erabilia. Berri, 530 euro balio ditu eta nik 350 euroan eskaintzen dut. Teklatura oxigen 49 hirugarren generazioko salzten dut, hau ere berri-berria. Erosi berri 125 euro balio ditu eta nik 75 euroan eskaintzen dut. Olenzteroren hankazartzeke beste batentzat onuragarri izan daitezten... 677-783156

Gurpildun aulkia salgai. Minos power markako gurpildun aulkia elektrikoa salzten da, apenas erabilia, oso egoera onean. Kontakturako telefonoa: 676-388004

Haritzeko oholak salgai. Haritz egurrezko ohol berriak eta sikuak salzten ditut. Ertz bizi-koak. Neurria: lodiera 8 edo 5zm, zabalera 20 zm-tik aurrera eta luzera 3 m-tik aurrera. Arotzentzako egokiak dira, baita teilatu edo zoruak berrizatzeko ere. Tel.: 650-720725

Haurrentzako aulkia. Haur aulkia salgai. 3 gurpilekoa. Grupo O, kapazoa eta aulkia. Zakua, sombrilla eta aterkia jartzekoak. Opari bezela trona eta mahaian jartzeko aulkia. Deitu 686116702 zenbakira.

Hohmer etxeko trikitia salgai. Mexikoko tex-mex berezia. Hiru ilarakoa. Bost erregistro. Prezioa adostu aurretik, probatzeko aukera. Egoera oso onean. 696379179

Umearendako osagarriak. Aulkia eta kapazoa, Arrue Derby modeloa. Etxerako sehaska, koltxoi eta guzti, eta bidaiatzeko sehaska. Komun musikala. Dena 250 euroan. 652748582

Izozkailu bertikala salgai. Izozkailu bertikala salgai. 125 euro. 679-382369

Kapazo eta aulkia salgai. Grupo O kapazoa eta aulkia salgai. Baita autorako aulkia ere. Otik 18 kiloraino. 659-240152

Marrakzi mahai bat. Plano edota marrazkiak egiteko mahaia. Aparejadore edo arkitektoarentzako modukoa. Ple-gatu egiten da eta zutik jartzen da. 686116702.

Nikon argazki kamara Etxarri. Nikon argazki makina beltza galdu zen urtarilaren 15ean Etxarri Aranatzan, xapatero tabernaren inguruan. Opatu duenak hots egin dezala 678-301136 telefonora.

Ordenagailua Packard Bell ordenagailua eta Home Cinema. Philips sikon argazki makina beltza galdu zen urtarilaren 15ean Etxarri Aranatzan, xapatero tabernaren inguruan. Opatu duenak hots egin dezala 678-301136 telefonora.

Ordenagailua eta Home Cinema. Packard Bell ordenagailua eta Home Cinema, Philips etxekoa, salgai. 943796089.

Ordenadore pantaila. Samsung 75E, 17", egoera onean. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 680619699.

Piano digitala. Ringway tg 8865 markako piano digitala salzten dut. Interesatuok, deitu 659-408520 telefono zenbakira.

Patinetea. Bigarren eskuko patinetea salgai, merke. 679740061.

Ping-pongoko mahai profesionala salgai, Antzuolan. Egoera oso onean, berri dago. Prezioa, adosteko. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 660521148

Snow taula Burton custom. 1,56 + burton fijazioak (m). Egoera onean. 190 euro. 630-650403

Snow taula salgai. Atomic tika modeloa, neskendakoa. 1,44 neurrikoa. Behin bakarrik erabilia. Egoera oso onean. Deitu 679-093334 telefonora.

Trikitia. Hohmer etxekoa. Mexikoko Tex-Mex berezia. Hiru ilarakoa. Bost erregistro. Prezioa adostu aurretik, probatzeko aukera. Egoera oso onean. 696379179

Umearendako osagarriak. Aulkia eta kapazoa, Arrue Derby modeloa. Etxerako sehaska, koltxoi eta guzti, eta bidaiatzeko sehaska. Komun musikala. Dena 250 euroan. 652748582

Umeendako osagarriak. Kapazurako zakua salgai. Berdea eta berdea. 35 euro. Jane markako maxi-cosia erantzat zakua salgai, gris kolorekoa. 25 euro. Pardelak aldatzeko, eruberekin 35 euro. Esnea ateratzeko advent markako 40 euro. marysea15@hotmail.com edo 653-722254.

802. EROSI

Elurretako erraketak. Bigarren eskuko elurretako erraketak erosiko nituzke. Deitu 628-512278 telefonora.

Inkubadora. Bigarren eskuko inkubadora bila nabil, txitak eta galeperrak ateratzeko. Deitu 686500692 zenbakira

803. EMAN

Armairua. Hiru ateko armairua ematen dut opari. Arrunta da, baina berri dago. Deitu 653-708409 telefono zenbakira eta Gaizkarengatik galdetu.

804. HARTU

Besaulki txukun bat. Kentzeko moduan bazaude, mesedez abisatu eta gustura hartuko nuke. 618-800932.

Sofak hartuko genituzke doan. Arrasateko Gazte Txoko-koek botatzeko dituzuen sofak hartuko genituzke zuen etxean. Deitu 688684944 telefonora.

807. AURKITU

Giltzak aurkitu Beriainen. Beriainen, uharte arakidik igota, bi giltza aurkitu dira. Deitu 650-507194 telefonora.

Giltzak Etxarri Aranatzan. 2 giltza opatu dituzte Etxarri-aranatzan. C. D. Lagun artea lakuntzagiltzarria dauka. Galdu dituenak beleixe irratian jaso ditzala.

806. GALDU

Irakurtzeko betaurrekoak galdu. Abenduaren 9an, egue-na, galdu nituen bergarako industrialdetik kiroldegirako bidean. Aurkitu badituzu, deitu zenbaki honetara, mesedez. 943-762835.

Lepokoa galdu Etxarri Aranatzan. Lepokoa galdu zen etxarri aranatzan aurreko astean. Euskal herriko mapa dauka eta atzean luciene eta daniel jartzen du. Opatu duenak dei dezala 687-634422ra.

Pultsera galdu. Joan zen azaroaren 25ean perla urdindun urrezko pultsera galdu nuen kontzetio eta erquin artean. Norbaitek aurkitu badu, deitu mesedez zenbaki hauetara 675-717514943-794265.

Txamarra beltza galdu. Azaroaren 6an, Orly (azken bazter) tabernan, ante itxurako

gizonezkoendako txamarra beltz bat galdu nuen. Aurkitu duenak, dei dezala, mesedez. Eskerrik asko. 680-449161 699-724891.

Ume baten baserritar jantzia. Joan den Ostegunean, hilak 13, urtebeteko neskatilaren baserritar jantzia galdu genuen Iturriotz kaletik Sebero Altube bitartean. Aurkitu baduzu deitu 605775738 Eskerrik asko

Wesc markadun beroki beltz bat galdua. Wesc markadun beroki beltza galdu nuen abenduaren 31n, Arrasateko Ekaitz tabernan. Aurkitu duenak, eraman dezala, mesedez, Ekaitz tabernara.

Gizonen eskularruak Urdiaien. Urdiaien basoan gizonekoaren eskularruak galdu dituenak Guaxen galde dezala.

9. HARREMANAK

904. BESTELAKOAK

Gasteizera egunero Debagoienetik. Egunero gasteizera autoan joaten naiz. 09:00etan gasteizen egoten naiz, eta 13:00etan bueltatzen naiz. Joateko bakarrak, edo bueltatzeko aukera. 690-198279.

Sarriguren - Komarka II. Autorik gabeko multil bat naiz. Sarriguren - Komarka II industrialdea ibilbidea egin beharko nuke lan-egunetan, autoz. 08:30 aldera atera / 17:30ean bueltatu. Gastuak partekatuko. 670-969656 - Alfonso

Zumaia-Irun Irunera 07:30-08:00etarako iristeko autoa partekatu nahi nuke zumaia-zarautz aldetik. Lanaldi jarraia dut, eta 15:00-15:30ak aldera amaitzen dut lanaldia. Harremanetarako, deitu 646-804376 telefono zenbakira edo misai@hotmail.es helbidera idatzi.

Zarautza lanegunetan. Tolosaldeetik edota Goieritik Zarautza autoz joateko jende bila. Irten, 7etatik 8etarako tartean; handik, bueltan, 15etatik 16etara. 688-606715.

Gitarrista bila. La Madriguera (Rock-urbano) taldea gara, eta gitarrista serio baten bila gabil-tza gure talderako. Behar dugun gitarrista denboran behar du entseu eta kontzertuak emateko. Harremanetarako begiratu Myspace orria: www.myspace.com/losmadriguera edo deitu zenbaki hauetara: 680489438 (Andoni) edo 646616329 (Juanxu)

www.inmosalbide.com

Salbide
SALBIDE
Higiezin zerbitzuak

Aia. Eraikuntza berria. 3 logela, 2 bainugela eta 127 m²ko terraza. 46.588.000 pezeta.

Aizarnazabal. 3 logelako etxebizitza. Oso prezio onean. 28.500.000 pezeta.

Getaria. Herrerietan kalean. 3 logela eta 2 bainugelako etxebizitza. Trastelekuarekin. Egoera onean. 41.000.000 pezeta.

Zarautz. Landako plaza. 2 logela eta bainugela bat. Guztiz berritua. 45.000.000 pezeta.

Zarautz. Vista Alegren. 3 logela, bainugela eta aseoa. Terraza handia hegoaldera. Bista ederrak. 50.000.000 pezeta.

Zestoa. Erdialdean. Etxe bifamiliar batean, 3 logelako etxebizitza. 31.000.000 pezeta.

Bizkaia kalea, 6 • 20800 Zarautz
Telef.: 943-01 07 00 • Mug.: 665- 71 85 96

ATOM RHYMBA

GOIENA TELEBISTA
URTARRILAK 27, EGUENA, 22:45



DEBAGOIENDARROK DIOGUNA **goiena**

Myspace, web sozialean aitzindari, gainbeheran da eta saltzekotan dira

Artean, geldiezin segitzen du Facebookek, 600 milioi erabiltzailerekin eta etengabe hazten

JON BEREZIBAR | ARRASATE

Sasoi baten ez zen web edo sare sozialez hitz egiten, baina han zegoen Myspace, 2003a ezkerro. Egun, Interneten oinarri da *sozialtasuna*, baina aitzindari izan zena atzean geratu da.

Facebook-en itzala luzea da eta, oraingoz, beste ekimenek ezin izan dute Mark Zuckerberg sortutako zerbitzuaren zabal-

kundea apaldu. Google ere azken urteetan pare bat proposamenekin ausartu da, baina zarata asko atera eta gero, ez Google Buzz eta are gutxiago Google Wave-k, ez dute inola ere esperotako arrakastarik izan.

Salmenta asmoa

Kinka larrian dago Myspace, garai baten lagunen arteko sarea

sortu, bloga egin edo musika partekatzeke ezinbesteko tresna eta 2006. urte aldera sekulako hedapena izan zuena. News Corporation Rupert Murdoch handiki kontserbadorearena da, hain zuzen, Myspace-en jabea, eta konpainia saltzekotan dabil. Aurreko astean langileen %47 kalera-tu zuten, nahiz eta agindu duten aurki diseinu berriarekin ezustekoa emango dutela atzera ere. Hala ere, berandu baino lehen, zuzendaritzatik dagoeneko esan dute saltzeko asmotan dabiltzala eta hasi direla dagoeneko erosle bila. Webguneko publizitateari dagokionez, Myspace-ek Google-ekin du hitzarmena, eta, nahiz eta aurreko hilean berritua izan, publizitate sarrerak asko murriztu dira Myspace-en. Hala ere, Google bera izan liteke Myspace erosten interesa izaten lehena, sare sozialean behin betiko eta behar bezala muturra sartzeko asmoarekin. Artean, Facebook-ek 600 milioi erabiltzaile ditu; marka guztiak hautsita.



Myspacek azken itxuraldaketarako erabilitako irudia. | MYSPACE.COM

Baja hartu du Apple enpresako buru Steve Jobsek, elektronikaren erraldoia egoera ezin hobean utzita

J. B. | ARRASATE

Steve Jobsek baja hartuko duela esan eta merkatuek dardar egin dute. Azkenean, ez da ezelan ere zoritxar-igarleek esandako gainbeherarik izan. Baina Steve Jobsen hutsak zenbat kalte dezake elektronikaren enpresa erraldoia?

Bajaren iragarpenarekin teknologiaren erraldoia ahulduko ez ote zen izua abiada biziz hedatu zen, eta, hain justu, albistea zabaldu ahala, Frankfurteko burtsan sei puntu egin zuten behera Apple enpresaren akzioek. Jakina, burtsa sarri askotan barne-bulkada eta ia berezko dituen espekulazioen ur-lasterren eraginpean egon ohi

da eta baliozko epaia oraindik New Yorkeko burtsak zuen emateko, atzo itxita, gaur ireki dutena. Azkenean, %2,24 jaitsi dira elektronikaren erraldoiaren akzioak Wall Streeten. Irristada txikia, inondik inora.


Burtsan beherakadatxo garrantzi bakoarekin bakarrik ez, bularra ondo puztu eta iazko emaitzak argitara emanez egin du kontraerasoa Apple enpresak: urritik urtarrilerako ekitaldian 6.000 milioi dolarreko irabazi garbia atera du, ia iazkoaren bikoitza, eta fakturazioa 26.740 milioiokoa, iPhone, iPad eta Mac ordenagailuen salmentetatik, gehien bat.



Steve Jobs. | FLICKR.COM

Facebook 'eromena'

- ▶ 2011n 600 milioi erabiltzaile aktibo ditu Facebook-ek. Planetako 13 lagunetik ia bat da hori.
- ▶ 18 eta 34 urte bitarteko erabiltzaileen %48 profilera sartzen dira jaiki bezain laster.
- ▶ Momentu honetan 35 urtetik gorakoek osatzen dute erabiltzaile basearen %30.
- ▶ Erabiltzaileen %57k jende gehiagorekin hitz egiten dute Facebook bidez "bizitza errealean" baino.
- ▶ Gazte amerikarren %48k albisteen berri Facebook bitartez dakite.



Obsessed with Facebook.

"Bankari damutuari" 5.500 euroko isuna ipini diote Suitzan

Rudolf Elmer bankari ohi eza-gunak Suitzako banketxeetako 2.000 kontu korronteren datuak eman zizkion astelehenean WikiLeaksi. Aberats, politikari eta zenbait famaturen datuak jasotzen dira utzitako fitxategi horietan. Antza, zenbait herrialdeetako zergak ordaintzeari ihes eginiko bezeroen datuak dira Londresen Julian Assange Wikileaks-eko editoreari eskuratutakoak. Elmerrek dio ordain moduan egiten duela hori. Ondorioz, Suitzako bankuen sekretua azaleratzeagatik epaitua izan zen eguaztenean eta bankari ohi suitzarrari 5.500 euroko isuna jarri dio Zuricheko epaitegi batek. Rudolf Elmer 2002an kaleratu zuten Julius Bär banketxe suitzarretik; Kaiman uhartee-tako sukurtsaleko zuzendaria zen ordura arte eta bere nagusi ohiak salatzea erabaki zuen. 2008an ere antzerako karguei egin behar izan zien aurre.

Europako GPSa, Galileo, beste 11 urtez atzeratua

J. B. | ARRASATE

2020. urtean helduko da, hortaz, Europako Batasuneko apustu teknologiko eta politiko garrantzitsuenetakoa izan daitekeena: GPS estatu-batuarraren alternatiba europarra izan zedin abiatu zutena. Oraingoz, eta gutxienez, beste 1.900 milioi euro behar-ko dituzte proiektua aurrera eramateko. Helburua da 30 satellite izatea orbitan, 70 zentimetroko zehaztasunarekin.

Galileo proiektua Europako Batasuneko apustu garrantzitsuenetako bat izan da amerikarren GPSarekiko mendekotasunetik irteteko; alabaina, europar buruzagi politikoak ez dira gauza izan egitasmoari behar bezalako bultzada emateko. GPSaren nagusitza eta inbertsio pribatuaren interes urria ere baldintzatzaileak izan dira bide geldo horretan.

Oraingoz, Batasunak bi satellite experimental besterik ez du orbitaratu eta aurten jaurtiko dituzte beste lau; modu guztiz operatiboan, hori bai. Asmoa da, hain zuzen ere, lehen lau horien ostean, hiru hilean behin satellite bat gehiago orbitaratzea 18ko kopurura iritsi arte. 2014. urtean ekingo liokete lehen zerbitzuak eskaintzeari, baina orduan ere, GPSak baino zehaztasun txikiagoa izango du nabigazioak.



'minusbi.tumblr.com'

Política -2.0 euskal politikaren ifrentzu satiriko eta azidoa da. Fotomuntaia, txantxa eta adar-jotzeekin betetako bloga da, euskal politikariak jomuga dituen. Zarracarbonero kolaboratzailearen muntaiak eta hitz-jokeak ez dute preziorik. Irribarra ateratzeko webgune ezin hobea.

TELE-BEGI

AMAIA PAVON
'twitter.com/
amaiapavon'



Koloredun gerra

I. Mundu Gerrak makina bat errepresentazio izan ditu honezkerok. Horietatik azkena da La2 telebista katean emititzen ari direna urtarilaz geroztik: *Apocalipsis*.

Frantzia ekoiztutako lan honetaz esan da *National Geographic*-en ildoari era estuan erantzuten dion dokumental delako, II. Mundu Gerra kontatzeko ikuspuntu propioa duena, anbiguo samarra hala ere.

Ekoizpenari zerbait berria gehitu behar nonbait, eta pelikula koloreztatu egin dute, gerra zuri-beltzaren hoztasunetik urrundu guran. Dramatismoaren gorena jotzeko helburu argiak dituen emaitzak, dokumentala baino, badu Warner Brothers marrazkien antz handiagoa, alderaketak makabro samarra badirudi ere.

Dokumentalaren ikuspuntutik gerra kontatzea ez da sekula polita izan. Fikzioaren tresnez balitatuta, estilo epikoagoa ematea kontakizunari errespetagarria da. Baina hildako gorpuei karmina jarzeari lizunkeria beldurgarria deritzot, telebistak hain gustuko duen errealitatea faltsutzea eta espektakulua sortzearen beste ariketa bat.

ASTEA GOIENAN

GOIENA TELEBISTA

ASTELEHENA 24

**Kirol sariak emandakoa**

20:45

Debagoieneko 2010eko kirol sariak eman dutenari buruz hitz egingo du Xabier Urtzelaik *Harmailatik* saioan.

13:15 Marrazki bizidunak
13:45 Kantari
14:15 Berbetan
14:45 Berriak
15:15 DKSTO kirol sariak
16:15 Gipuzkoa kultura
16:45 Berriak
17:10 Marrazki bizidunak
17:45 Antzerki topaketak
16:15 Marrazki bizidunak
18:45 Berriak
17:15 Kantari
19:45 Goiena Magazinea
20:45 Harmailatik
21:30 Goiena Magazinea
22:30 Harmailatik
23:15 Gipuzkoakultura
23:45 Goiena Magazinea

MARTITZENA 25

**'Magazinea'-n elkarrizketa**

19:45

Iñaki Nafarrate, Arabako Toki administrazio-ko eta Lurralde Oreako foru diputatua, elkarrizketatuko dute *Goiena magazinea*-n.

13:15 Marrazki bizidunak
13:45 Kantari
14:15 Onein
14:45 Berriak
15:15 Harmailatik
16:00 Kulturzulo
16:15 Herriz-herriz
16:45 Berriak
17:15 Marrazki bizidunak
17:45 Harmailatik
16:15 Marrazki bizidunak
18:45 Berriak
19:15 Kantari
19:45 Goiena Magazinea
20:45 Danbaka
21:30 Goiena Magazinea
22:30 Iragana gogoratuz
23:00 Goiena Magazinea

EGUAZTENA 26

**Tertulia saioa gonbidatuekin**

20:45

Gaurkotasuneko gaiak landuko dituzte Monika Belastegik gidatzen duen *Tertulia* saioan; Tabakoaren Legea, adibidez.

13:15 Marrazki bizidunak
13:35 Kantari
14:00 Harmailatik
14:45 Berriak
15:15 Onein
15:45 Bi tartean
16:45 Berriak
17:10 Marrazki bizidunak
17:30 DKSTO kirol sariak
16:30 Marrazki bizidunak
16:45 Berriak
19:15 Kantari
19:45 Goiena Magazinea
20:45 Tertulia
21:45 Goiena Magazinea
23:15 Tertulia

EGUENA 27

**Komikiei buruz jardungo dugu**

22:15

Gipuzkoa Kultura saioan ikusi ahalko da Donostian zabaldu duten komikiaren dokumentazio zentroa, besteak beste.

13:15 Marrazki bizidunak
13:55 Kantari
14:15 Onein
14:45 Berriak
15:15 Nire Herria
13:45 Bi tartean
16:45 Berriak
17:15 Marrazki bizidunak
17:45 Ipupomamua
18:15 Marrazki bizidunak
18:45 Berriak
19:15 Kantari
19:45 Goiena Magazinea
20:45 Iragana gogoratuz
21:15 Goiena Magazinea
22:15 Gipuzkoakultura
22:45 Danbaka
23:45 Goiena Magazinea

EGUBAKOITZA 28

**Hirugarren sektoreari buruz**

15:15

Hirugarren sektorea izango dugu berbagai *Ur eta lur* programan. Ordu erdi irauten du Xaloe Telebistak ekoiztutako saioak.

13:15 Marrazki bizidunak
13:45 Kantari
14:15 Onein
14:45 Berriak
15:15 Ur eta lur
15:45 Kulturzulo
16:00 Leku txiki bat
16:15 Danbaka
16:45 Berriak
17:15 Marrazki bizidunak
17:45 Gipuzkoakultura
18:15 Ipupomamua
18:45 Berriak
19:15 Kantari
19:45 Goiena Magazinea
20:45 Gipuzkoakultura
21:15 Goiena Magazinea
22:15 Danbaka
23:45 Goiena Magazinea

ARRASATE IRRATIA

Errezeta elektronikoari buruz jardungo dute 107.7an

Gipuzkoako farmazialarien ordezkari Angel Garairekin solasaldia egingo dute errezeta elektronikoaren gainean. Apiriletik aurrera hasiko da erabilera zabaltzen eta pazientek osasun txartelarekin identifikatu beharko du. Horri buruzko xehetasunak, *Igo autobusera* saioan.

AED elkarteko azken ikerketari buruzkoak martitzenean

AEDk euskara kalean zergatik ez den erabiltzen aztertu du eta gai horri buruzkoak jasoko ditugu Arrasate Irratiko uhinetan. Eta Topaguneak Durangon egingo duen jardunaldiaren berri ere emango dugu; bertan jorratuko da Euskal Herriko hizkuntza aniztasunaren errealitatea.

Iñigo Garitano herriko idazkari berriari elkarrizketa

Igo autobusera saiora igoko da Arrasateko idazkari berria: Iñigo Garitano. Lehen, Gizarte Zerbitzuetako arduraduna zen Garitano bergararra. Urtarriletik aurrera, baina, kargu berria du: idazkaria da. Arrasate Irratiko uhinetan izango dugu solasean bere kargu berriari buruz hitz egiten, beraz.

TELE-ALBISTEAK

Tokiko elkarteko ekoizpenak ikusgai Goiena Telebistan

Bi saio berri eskainiko ditugu: elkarrizketa saio bat eta haurrentzako pailazoen programa bat

AMAIA TXINTXURRETA | ARRASATE

Tokiko euskarazko toki telebisten elkartearen bitartez, bi saio berri hasi da eskaintzen Goiena Telebista: Erlo Telebistak ekoiztutako *Bi tartean* elkarrizketa saioa eta Hamaika Telebistaren *Leku txiki bat* pailazoen programa.

Elkarrizketa saioekin sakanago ezagutuko da platora eramandako gonbidatua eta pailazoen programarekin, berriz, etxeko txikienek asko disfrutatuko dute toki desberdinak ezagutzen. Goienako ikus-entzuleendako eskaintza zabaldu egin da, beraz.

'Bi tartean'

Euskal Herriko pertsonaia ezagunak elkarrizketatzen ditu Xabier Elosegi aurkezleak *Bi tartean* elkarrizketa saioan. Ordubete irauten du programa bakoitzak eta gonbidatua gertutik ezagutzeko aukera paregabea ematen du saioak.

Giro lasaiko elkarrizketak izango dira eta dagoeneko lehenengo emititu dugu Goiena Telebistan. Bertan, Aitor Furundarena musikaria elkarrizketatu zuen Elosegik. Aste honetan, berriz, ikusgai izango da Mikel



Leku txiki bat saioko Lulu eta Elmer pailazoak. | HAMAIKA TELEBISTA

Markez musikariari egindako elkarrizketa.

'Leku txiki bat'

Bestalde, Hamaika Telebistak ekoiztutako saioa da *Leku txiki bat* eta bereziki etxeko txikiei zuzenduta dago. Protagonistak bi pailazo dira: Lulu eta Elmer.

Saio bakoitzarekin leku batera bidaiatuko du ikus-entzuleak modu dibertigarrian.

Lehenengo programan, telebista erakutsiko digute Luluk eta Elmerrek. Eta aurrerago eza gutu ahal izango ditugu ilargia, New York, liburuak eta bertso-larritza, besteak beste.

Atom Rhumba taldearen zuzeneko kontzertua

AMAIA TXINTXURRETA | ARRASATE Danbakako talde gonbidatua izan zen Atom Rhumba eta euren azken lana, *Gargantuan melee*, aurkeztu zuten Espaloian eskainitako zuzenekoan.

Asteon telebistaz emango dugu Atom Rhumbaren kontzertua eta funk, blues eta rock doinuen fusioaz gozatze-ko aukera izango dute ikus-entzuleak.

Danbaka musika lehiaketarekin Goiena Telebistak 11 orduko ekoizpen propioa egin du, 22 saio grabatuta. Emisio egunak martitzen eta eguenak izaten dira, eta egubakoitzean 22:15ean Desprezio finalistaren eta Atom Rhumbaren kontzertuak eskainiko dira.

ZORION AGURRAK



ARRASATE
Alaitz eta Manex Bengoa Iria
Urtarrilaren 29an, 8 urte. Zorionak, Alaitz eta Manex!
Ondo pasatu zuen urtebetetze eguna eta txokolatada ederra prestatu. Aupa gure pandero jolea eta pelotaria!
Etxekoan partetik.



ESKORIATZA
Iker Jimenez Segovia
Urtarrilaren 28an, 2 urte. Zorionak, potxolo, etxeko guztien partetik. Muxu handia denon partetik.



ESKORIATZA
Ekaitz Andres Eizmendi
Urtarrilaren 28an, 7 urte. Zorionak, txapeldun!
Ondo-ondo pasatu eguna eta laztan mordoa etxeko guztien partetik.



ANTZUOLA
Arantzazu Gezalaga Esnaola
Urtarrilaren 27an. Zorionak, "señorita"! Ondo igaro zure lehenengo urtebetetzean eta betiko aurpegi alai horrekin zorionez bete gaitzazula.



BERGARA
Irati Iriondo Igarza
Urtarrilaren 27an, 6 urte. Zorionak eta muxu handia familia guztiaren partetik.



ARRASATE
Ione Miren Arizabaleta Heriz
Urtarrilaren 26an, 39 urte. Zorionak eta patxo handi-handia etxekoan, eta bereziki, Amalur, Gaizka eta Baltaren partetik!



ARRASATE
Aimar Agirre Lete
Urtarrilaren 26an, 5 urte. Zorionak eta patxo handia etxeko danon eta, batez ere, Ekainen partetik!



ARETXABALETA
Mikel Zubizarreta
Urtarrilaren 26an, 35 urte. Zorionak, aitaxo. Urriak aurrera doiez, baina trankil ondio nire atzien korrika ibiltzeko sasoi zaitza!
Mordo bat guretzat. Zure mutikotxuak, Beñatek eta amatxok pe, zorionak! Pa!



ARRASATE
Paula Heriz Uribesalgo
Urtarrilaren 26an, 21 urte. Zorionak, prexioxi!
Danok batera ospatukou gainera, ze ondo. Egun ederra pasatu eta patxo pila Zigarrolakuen partetik.



ARRASATE
Eider Prieto
Urtarrilaren 26an, 8 urte. Zorionak eta ondo pasatu zure egunean!
Familia eta lagun guztien partetik.



OÑATI
Marina Axpe del Amo
Urtarrilaren 25ean, 2 urte. Zorionak, "bitxito"! Muxu eta besarkada potolo asko familia guztiaren eta, bereziki, aitaxo eta amatxoren partetik. Muxuak, printzesa.



ARETXABALETA
Olatz Romeo
Urtarrilaren 25ean, 17 urte. Zorionak, "txurri"! Ondo pasatu zure eguna, eta aber elurte handi bat itxen dauen eskietan joateko! 17 patxo handi danon partetik.



ARRASATE
Danel eta Nora Ruiz
Norak urtarrilaren 23an, urtebete eta Danelek 27an, 5 urte. Zorionak, Txali eta Txipi, familia osoaren partetik. Ondo pasatu eguna biok. Muxu handi bana!



BERGARA
Maidier Bilbao
Urtarrilaren 23an, 6 urte. Haritz, aitaxo eta amatxoren partetik, musu handi bat gure "erregiña".



BERGARA
Mikel Etxaniz Zafra
Urtarrilaren 23an, 6 urte. Zorionak eta patxo handia Jontxu, amatxo eta aitaxoren partetik.



ARRASATE
Ibai Apaolaza Arregi
Urtarrilaren 22an, 7 urte. Zorionak, txapeldun!
Musu handi bat aitaxo, amatxo eta Iraiaren partetik.



ARRASATE
Oihan Iriondo Lasaga
Mutrikuko Oihanek urtarrilaren 22an, urtebete. Zorionak, gizontxo, eta muxu handia Arrasateko familiaren partetik.



BERGARA
Luken Pagaldai Gomez
Urtarrilaren 21ean, 4 urte. Zorionak, politxu hori! Asko maite zaitugu!
Etxekoak.



ARRASATE
Iraia Nieto Gorosabel
Urtarrilaren 21ean, 7 urte. Zorionak, "guapa". Patxo potolo bat familia guztiaren partetik.



OÑATI
Ana Santos
Zorionak, tia Ana!
Urtarrilaren 20an 43 urte bete zenituen, oso ondo pasatuko zenuelakoan, muxu eta besarkada asko Natxo, Fuensi, Elena eta Karlaren partetik.



BERGARA
Olatz Gallastegi
Urtarrilaren 19an, 7 urte. Zorionak etxeko danon partetik.



OÑATI
Garazi Guridi
Urtarrilaren 18an, 20 urte. Zorionak eta urte askotarako "waxixima"! Ondo-ondo pasatu zure eguna eta patxo handi handi bat etxeko danon partetik! Aste bukaerako pintxua zure kontu, e?



ARETXABALETA
Ion eta Juan Carlos Vazquez
Ionek urtarrilaren 18an, 4 urte eta Juan Carlosek urtarrilaren 14an. Zorionak, bioi, asko maite zaituztegun etxekoan partetik. Zoriontsu izan eta muxuak.



ESKORIATZA
Aritz Oianguren
Urtarrilaren 18an, 28 urte. Zorionak, "Mari Paz"! Patxo potolo bat kuadrila danan partetik!
Zapatuen ospatukou brixka partida batez!



ARRASATE
Jana Pescador
Urtarrilaren 18an, 32 urte. Zorionak kuadrilako danen partetik, potxola! Muxu pila!



OÑATI
Leire Egaña Bikuña
Urtarrilaren 21ean, 11 urte!
Zorionak, andereño!
Txokolate-marrubizko patxo asko Eider, June eta Markelen partetik. Pa!



ARETXABALETA
Eñaut Beltran de Heredia
Urtarrilaren 17an, 10 urte. Zorionak, Eñaut!
Futbola ondo dau, baina badauz beste kontu batzuk be... Patxo handi bat. Aupa, UDA!



ARETXABALETA
Begoña Blázquez
Urtarrilaren 16an, 48 urte. Zorionak eta muxu haundi bat etxeko guztien partetik!



ARETXABALETA
Amona Corona
Urtarrilaren 15ean, 89 urte. Zorionak, amona, familia guztiaren partetik. Asko maite zaitugu! Muxuak.



OÑATI
Uxue Igartua Cortabarría
Urtarrilaren 14an, 4 urte. Zorionak, printzesa. Ondo-ondo pasatu zure eguna eta mila patxo handi zuretzat etxekoan partetik.

ESKER ONA

María Cristina Zuazabeitia Iza



Aretxabaletan hil zen 2010eko abenduaren 22an, 87 urte zituela.

Sendikoek eskertzen dizuegu ospatu zen hileta-elizkizun berora etorri zineten guztioi eta samin-agurrak bidali dizkiguzuenoi.

Aretxabaletan, 2011ko urtarrilaren 24an.

GOIENAN ESKELA JARTZEKO DEITU EGUEN EGUERDIA BAINO LEHEN: 943 25 05 05. EDO ZATOK ORDEZKARITZA BATERA.



Eskelaren prezioa: 126 euro. Egubakoitzean eta astelehenean, bietan, argitaratuz gero, 168 euro. Goiena: astero, 34.000 irakurle (CIES) Gipuzkoan.

JAIOTAKOAK

BABESLEA

IKUSI MAKUSI



Umeen paradisia



Ander Unamuno Lopez de Arkaute
Arrasate 3,600 kilo. Urtarrilaren 17a. Gurasoak: Itziar eta Aitzol. Argazkian, umea amarekin.



Sara Cabana Rodriguez
Bergara 3,000 kilo. Urtarrilaren 18a. Gurasoak: M. Jose eta Carlos. Argazkian, umea aitarekin.



Ainhoa Rivera Iñarra
Bergara 3,210 kilo. Urtarrilaren 17a. Gurasoak: Maite eta Angel. Argazkian, Ainhoa gurasoekin.



Aner Alberdi Etxabe
Eibar 4,040 kilo. Urtarrilaren 14a. Gurasoak: Argine eta Jokin. Argazkian, umea amarekin.

DENBORA-PASA


HITZ GEZIDUNAK

	* Bergarako auzoa	Zintzilikatu, eseki	Zuek	Austriako hiriburua
			Adminis-tratua	Gramoa
	Tolosako auzoa	Ipar EH-n, abere arra		
Urduri	Ongi			Nitrogenoa
Herritarren defenditzailea	Oso, erabat			Uhin
Haur-oihala			50	Suari dariona
Dohainak			Erdi, hitz elkarteetan	
Erregai mota		12 hilabeteko epe		
Katu basa		Potasioa		

LUMA

BILA-BILA 7

Bila itzazu zazpi ezberdintasun bi irudien artean.



SOLUZIOAK

A	U	T	A	K	S	A	B
E	R	T	U	S	G	A	B
K	A	K	E	T	U	R	T
L	A	X	A	V	T	R	O
A	O	K	O	A	R	A	V
N	O	N	D	O	A	N	A
R	E	I	U	R	E	S	K
I	G	E	S	K	E	G	I
V	Z	O					

A	U	T	A	K	S	A	B
J	A	K	L	P	R	A	T
B	I	T	O	E	U	J	T
A	A	A	A	A	A	A	A
A	A	A	A	A	A	A	A
N	I	G	O	J	O	P	X
H	A	R	K	I	L	B	H
A	H	I	D	I	X	L	M
I	Z	O	Z	K	I	E	T

			5	4	5	3	
						8	
			5	7	2	4	
			3				
			2	8	6	4	
6			8	4	6	5	
			9			9	
			7			6	8
4	3		8			6	

SUDOKUA

9	7	5	6	1	2	8	3	4
2	6	8	4	5	3	7	9	1
1	4	3	7	8	9	2	5	6
5	2	9	1	7	6	4	8	3
4	3	1	5	2	8	6	7	9
7	8	6	3	9	4	1	2	5
6	9	4	2	3	7	5	1	8
8	5	2	9	6	1	3	4	7
3	1	7	8	4	5	9	6	2

HIZKI SALDA

Bost esneki.

I	Z	O	Z	K	I	E	T	G
H	U	I	D	I	X	L	M	A
U	J	E	R	K	I	L	B	H
G	O	J	O	P	X	G	N	I
R	G	U	R	I	N	A	A	A
E	U	A	A	A	A	Z	A	A
U	T	O	E	U	J	T	I	B
J	A	K	L	P	R	A	T	J
G	A	T	Z	A	T	U	A	A

HIEROGLIFIKOA

Printzipio filosofikoa: Lehenbizi...

Zi

Zi



Hieroglifikoa:
Bi zi.

AI, ENE!

Nostalgikoentzako, ezin hobea

Nork ez ditu gogoratzen artxiboak gordetzeko disketeak? Faltan sumatzen dituenik badago, gus-tura hartuko du pendrive hori. <http://www.geekno.com>



AHOBERO

"Asko, asko igo behar du angulen prezioak sansebastianetan jan ez daitezen"

ESPERANZA ANSO | MARISKO SALTZAILEA

Zenbat da asko? Ansoren esanetan, kilo 600 eurotan dago, iaz baino 80 euro merkeago. Argi dago bakoitzak nahi duena egiten duela bere diruarekin, baina krisi garaian horrelako handikeriatan ibiltzea ere... Bilbotarren gainean esango dute gero... **'Noticias de Gipuzkoa'**

EGURALDIA



Max. 5°
Min. -1°

Eguraldi argia espero da eta gainera ateri eutsiko dio. Izo-tza egingo du. euskalmet.net

ASTELEHENKOA

goiena

2011-01-24

HARPIDETZA: ARETXABAETA 20550, E05 BASABE POLIGONOA | TEL.: 943 08 10 50 | HARPIDETZA@GOIENA.COM

HAMARREKOA

Estitxu Fernandez Bost ordu ematen ditu telebistan arratsaldero kontu kontari. Baina sexologoa ere bada, baita bertsolaria ere. Hori guztia gutxi balitz, doula ikastaro baten dabil. | TXOMIN MADINA

"Naturarekin bat nagoenean sentitzen naiz erabat ni"

1. Sexologia ikasi zenuen, baina aurkezlea zara.... Hain gaizki daude sexu kontuak Euskal Herrian?
Sexologo gisa lana izateak adieraziko luke gaizki daudela! Hala ere, sexologia eta psikologia kontuak ez ditut erabat baztertu, izugarri interesatzen zaizkit. Egia da, kontrakoa uste arren, sexuak tabu izaten segitzen duela.

2. Magazineak, talk show-ak, kirolak, Bertso Finala... Aurpegi askotariko neska zara.
Badago tarte txiki bat aukeratzeko, baina, herri eta telebista txikia izanda, tokatzen dena egin behar da batzuetan. Baina gus-tatzen zait aldatzea, eta azken urteotan hagitz gustura nabil.

3. Zein gai lantzeak alaitzen dizu programa?
Psikologia eta sexologiari buruzkoak gehiago landuko nituzke; giza harremanak. Mundua hobeto joateko oinarria dira.

4. Debagoiendar batekin hainbeste ordu pasata, ikasi duzu gure ibarreko esamolderik?
Kontua da Oihan Vegarekin nagoenean, batuan hitz egiten duela... Baina *jauk* eta halako hikako formak gustuko ditut.

5. Kirolak aurkeztu bai... baina praktikatzan dituzu?
Oraintxe igerilekutik nator, yoga egiten dut, pilatesa... Asteburuetan mendia: askatasun sentsazioa ematen dit; naturarekin bat nagoenean sentitzen naiz erabat ni.



LEXURI DOYAGE

LEHENDAKARIA BANINTZ

"Aukera hau ez nuke alferrik galduko"

"Ni nafarra naiz; beraz, ez nintzake lehendakari izango, Nafarroako Gobernuko presidente baizik. Bata zein bestea izan, ez nioke nere buruari barkatuko momentu honetan dugun aukera alferrik galtzea. Ez dakit zein punturaino dagoen euren eskuetan, baina uste dut badutela zer esana; dena emango nuke".

6. Arratsaldeetako borrokan, nori beldur handiago: Belen Estebani ala dokumentaletako piztiei?
Belen Estebani eta konpainiari. Audientziei ez diet kasu handirik egiten, baina muga etikoak aspaldi gainditu zituzten.

7. Kameraren pilotua gorri, baina zure burua zuri. Zer egin?
Hitz jarioan konfiantza eduki eta mingaina aske utzi; ez lotu, naturaltasunez jokatu.

8. 60 urterekin ere aurkezle ikusten duzu zeure burua?
Ez dakit telebistan izango den, baina seguru lanean jarraitu beharko dudala. Zergatik ez? Uste dut gaztetasuna gehiegi baloratzen dugula, adineko jendea aldarrikatu behar dela. Hori bai, telebistan banago, espero dut ez izatea egungo erritmo berean.

9. Irratiko uhinetan ere nabigatu duzu. Buelatzeko asmorik?
Gustura aritu nintzen, eta egun, bost orduko programarekin, pentsatu izan dut: ze lasai nengoen! Beti erran izan dut telebista dela gehien gustatzen zaidana, baina momentuak eta momentuak dau-de. Orain, baina, ezin.

10. Gogoratzen duzu botatako azken bertsoa?
Egiten ari naizen doula ikastaroko erditze erritual baten izan zen. Zer den doula? Haurdunalditik jaioberriaren lehen egunetara amari laguntzen dion figura; gaiak izugarri erakartzen nau.

BIHARAMUNA



MARIA AGIRRE

2011n euskaraz ere bai

Urtea hasi berri, igogailuan sartu eta *Aviso-Oharra* zioen idatziarekin egin nuen topo. Jakina, *Oharra* zen euskarazko hitz bakarra, ondorengo azalpen guztiak gaztelerez baitziren. Boligrafoa atera eta *2011n oharrak euskaraz ere bai, mesedez* idatzi nuen. Nire letra ezagutu zuen batek kritika egin zidan. Anonimotasunean baino gehiago, hurrengo bileran egin behar nuela eskaera formala. Kontua da nire idatzia, antza, probokazioa izan zela. *In English too*, hau da, ingelesez ere bai idatzi zuen nire eskaeraren alboan norbaitek, eta hortik aurrera gaiztotzen joan ei zen kontua.

Joan den astean aretxabaletar batek egin zuen lehenengo aldiz euskaraz Senatuan, Lorea Leanizbarrutiak. *El Mundo* egunkari digitalari ez zitzaion gustatu itzulpenak egin behar izatearen kontua. "EAJk eta CIUk diote gastua ez dela gehiegizkoa" titularpean albiste idatzi, eta ondoren, anonimotasunean hainbatek iritzia idatzi zuten. "Itzulpenen gastua ez bada handia euren poltsikotik ordain dezatela", edo "autonomia erkidegoari deskontatu behar zaio gastu hori", halako iritzia barra-barra idatzi ziren. Portaleko oharra euskaraz jartzeagatik nik ordaindu beharko ote dut?

ESKERRIK ASKO!

Parte hartzaileei, babesleei, laguntzaileei, ikus-entzuleei eta epaimahaikideei.

